

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Laudioko hiri-antolamenduko plan orokorraren 40. aldatze proiektua eta Ermuko Andra Mariko eta Santa Luzia Ermitako monumentu multzoaren babestu eta kontserbatzeko plan berezia**

Denon ezaguerarako jakinarazten da udal honetako udalbatzak, 2015eko uztailaren 20an egin duen bileran, besteak beste, hartu duen erabakiko xedapenenen atala honako hauxe dela:

“Lehena. Behin betiko onartzea, hiri-antolamenduko plan orokorraren 40. aldaketa Ermuko Andra Mari eta Santa Luzia ermitako monumentu multzoa babestu eta kontserbatzekoa; espediente administratibo horretan jasota dago Ion Barcena Ortiz de Urbina, Jaime Diaz Morlan eta Irene Zuñiga Sagredo arkitektoek, Oscar Miravalles Quesada baso-ingeniariak eta zuzenbidean doktore eta hirigintza-teknikari Ignacio Peman Gavinek osatzen duten erredakzio-taldeak aurkeztutako proiektu teknikoa, 2013ko azaroaren 5ean jasotako dokumentuaren arabera (sarrera erregistroko 12239 zenbakia).

Bigarrena. Behin betiko onartzea Ermuko Andra Mariko eta Santa Luzia ermitako monumentu multzoa babestu eta kontserbatzeko plan berezia, 2013ko azaroaren 5ean aurkeztutako dokumentu teknikoaren (sarrera-erregistroko 12239 zenbakia) arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamendurako batzordearen hirigintza plangintzako sailaren erabakian 515/2009 dekretua, irailaren 22koa betetzeko beharraz jaso zen zehaztapena. Dekretu horren bidez ezarri ziren abeltzaintza-ustiategietako, baldintza teknikoak, osasunekoak, higienikoak eta ingurumenekoak.

Uraren Euskal Agentziaren (URA agentziaren) txostenaren arabera, plana aplikatuta, horren esparruan dauden gunetako saneamendu-arazoak konpondu beharko dira eta zerbitzua kudeatzen duen erakundearen adostasuna beharko da. Halaber, jabari publiko hidraulikoan eragina duten edo jabari publiko hidraulikoaren zor nahiz zaintza eremuetan kokatzen diren esku-hartzeak egin ahal izateko, kantauri mendebaldeko arroen agentziaren eskualde bulegoan izapidetuko den baimena beharko da.

Hirugarrena. Agintzea Euskadiko lurralde antolamenduko batzordera behin betiko onarpen-erabaki kopia ziurtatua eta, dagokion bezala, udal espedientearen ale osatu eta izapidetua bidaltzea, paperezko formatuan zein euskarri informatikoan.

Laugarrena. Xedatzea behin betiko onartuta dagoen plangintza-dokumentu hau Arabako Foru Aldundiko hiri-plangintzen administrazio erregistroan (hala euskarri informatikoan nola ohiko paperezko euskarrian) gordailutzea, Euskadiko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Bosgarrena. Aipatu den Erregistroan gordailututa uzteko betebeharra bete ondoren, ALHAOn argitara ematea behin betiko erabaki honen eduki osoa nahiz plan bereziko hirigintza arauak, baita Araban hedapenik handiena duten egunkarietako batean argitaratzea ere, Euskadiko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89.5 artikuluan aurreikusitakoarekin bat”

Administrazio bidea amaitu duen Xedapen Orokor horren behin betiko onarpenaren aurka, 30/1992 Legeko 107.3 artikuluan erabakita dagoenarekin bat, ezin daiteke errekurtsorik jarri administrazio bidean; hala ere, zuzenean jarri daiteke administrazioarekiko auzi errekurtsoa

Euskadiko Justizia Auzitegi Goreneko administrazioarekiko auzitarako gelaren aurrean, ALHAOn xedapen honi dagozkion hirigintza arauak argitaratuta azaltzen diren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Laudio, 2015eko abenduaren 16a

*Alkatea*

*JON IÑAKI URKIXO ORUETA*

## II. Liburukia: Araudia

### Aurkibidea

#### I. kapitulua. Lurzoruaren araubidea.

- 1 Lurzoru urbanizaezinaren zehaztapen orokorrak
  - 1.1 Lurzoru urbanizaezinaren definizioa eta kalifikazioa
  - 1.2 Erabileren definizioa
  - 1.3 Lurzoru-antolamendurako matrizea
  - 1.4 Irabazteko aprobeitxamendua amaitzeagatiko konpentsazio-araubidea
- 2 Lurzoru urbanizaezinaren kategoria bakoitzaren araudia
  - 2.1 Babes bereziko araubidea
  - 2.2 Ingurumen-hobekuntzako araubidea
  - 2.3 Nekazaritza-, abeltzaintza- eta landazabal-eremuko araubidea
  - 2.4 Sistema orokorreko araubidea: Ermualdeko parkea
- 3 Ondare kultural eta materialaren araubidea
  - 3.1 Araubide orokorra
  - 3.2 Ondare arkeologikoaren araubidea
    - 3.2.1 Araubide orokorra
    - 3.2.2 Araubide partikularra
  - 3.3 Eraikitako ondarearen araubidea
    - 3.3.1 Araubide orokorra
    - 3.3.2 Araubide partikularra
  - 3.4 Elementu etnografikoen araubidea
    - 3.4.1 Araubide orokorra

#### II. kapitulua. Urbanizatzea.

- 4 Urbanizazio-obretarako proiektuak idazteko irizpideak
  - 4.1 Irizpide orokorrak
  - 4.2 Espazio publikoa osatzen duten elementuak

#### III. kapitulua. Ikerketa.

- 5 Ikerketa-prozesua

- 5.1 Baldintza orokorrak
- 5.2 Baldintza partikularrak

## Araudia

### I. kapitulua. Lurzoruaren araubidea

- 1 Lurzoru urbanizaezinaren zehaztapen orokorrak
- 1.1 Lurzoru urbanizaezinaren definizioa eta kalifikazioa

#### 1. artikulua. Definizioa

Lurzoru urbanizaezin gisa sailkatu dira plan berezi honek barne hartzen dituen lurrak. Horiek arautzeko bi aukera daude: babes-araubide bereziren batean sartzea eta orubeen babesa eta zaintza beharrezkotzat jotzea, lurralde-antolamendurako zuzentarauetan, erreka eta ibai bazterretako lurraldeko plan sektorialetan edota nekazaritza eta basozaintza planetan jaso diren irizpideak aplikatuta.

#### 2. artikulua. Lurzoru urbanizaezinaren kalifikazioa

1. Aurreko artikulua kontuan hartuta, kalifikazio hauek bereiz daitezke lurzoru urbanizaezinaren barruan:

a) Babes berezia duten lurzoru urbanizaezinak:

- Erreserba-eremuak.
- Azaleko urak babesteko eremuak.
- Babes aktiboa duten eremuak.
- Progresio ekologikorako eremuak: 1. maila.

b) Ingurumen hobekuntzarako lurzoru urbanizaezinak:

- Kontserbazio aktiboa duten eremuak.
- Progresio ekologikorako eremuak: 2. maila.

c) Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabal eremuko lurzoru urbanizaezinak:

- Trantsizioko landa-paisaia duten eremuak.

2. Bestalde, aurreko kalifikazioei gainjarritako elementu baldintzatzaile hauek daude:

a) Babes bereziko eremuaren gaineko baldintzatzaileak:

– Batasunaren intereseko leku diren Gorbeiako eta Armañongo korridore ekologikoen barruan dagoen Ganekogorta mendiaren nukleoaren eremua, Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren "Euskal Autonomia Erki-degoko korridore ekologikoen sarearen" barrukoa.

– Arabako Lurralde Historikoko zuhaitzi katalogatuak: zuhaitzi bereziak: artadi kantauriarra (82. zk.) eta gurbiztia (158. zk.).

– Arabako Lurralde Historikoko zuhaitz katalogatuak: bi arte (57. eta 58. zk.).

– Ugaldeko mendixken paisaia bikaina, Diputatuen Kontseiluak irailaren 27an emandako 829/2005 erabakiaren bidez "Arabako Lurralde Historikoko paisaia berezien eta bikainen katalogoan" definitutakoa.

– Eremu higagarriak: Goikogane mendiko mazela garaia.

– Erabilera publikoko mendiak: Autonomia Erkidegoak 75 zenbakiarekin katalogatutako Iñarrondo mendia eta 72 zenbakiarekin katalogatutako Ameztui mendia.

b) Ingurumen-hobekuntzarako eremuaren gaineko baldintzatzaileak:

– Batasunaren intereseko leku (BIL) diren Gorbeiako eta Armañongo korridore ekologikoen indargetze-eremua, Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren “Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarearen” barrukoa.

– Erabilera publikoko mendiak: Ameztui mendia, 72 zenbakiarekin katalogatua.

c) Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabal eremuaren gaineko baldintzatzaileak:

– Batasunaren intereseko leku (BIL) diren Gorbeiako eta Armañongo korridore ekologikoen indargetze-eremua, Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren “Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarearen” barrukoa.

3. Atxikitako sistema orokor hau ere lurzoru urbanizaezin gisa klasifikatu da: Ermualdeko parkearen sistema orokorra.

1.2 Erabileren definizioa

### 3. artikulua. Lurzoruaren erabileren definizioa eta arautzeko mekanismoak

Lurzoru urbanizaezinaren erabilera mota arautuak definitzeko eta sistematizatzeko oinarri gisa erabili dira lurralde-antolamendurako zuzentarauak eta nekazaritza eta basozaintza antolatzeke lurraldearen arloko planaren behin behineko onarpena. Hauek dira erabilera mota arautuak:

1. Ingurumen-babesarekin lotuta erabileren definizioa:

a) Kontserbazioa:

Uneko egoerari eta ezaugarriei bere horretan eustea, gizakien esku hartzerik gabe, kasurik naturalizatuenean izaera zientifikoa edo kulturala duten esku hartzeekin soilik edo, gainerako kasuetan, uneko erabilerari eustea, gizakiek garapen iraunkorreko dinamika batean aktiboki parte hartuta.

b) Ingurumen-hobekuntza:

Eremua jatorrizko egoerara edo oreka-egoera baliotsuagoetara itzultzeko gaitasuna duten esku-hartzeak inplikatzan dituzten tratamenduak. Hobekuntzak hainbat forma har ditzake, esleitzen zaizkion unitateen kasuistika bereziaren arabera (inauste selektiboak, artzaintza kontrolatua, garbiketa, landareak selektiboki kentzea, izurrite eta gaixotasunen tratamendua eta abar).

2. Aisialdiarekin eta jolasekin lotutako erabileren definizioa.

a) Aisialdi estentsiboa:

Aisialdirako, turismorako, natur ingurunean hezteko eta natura interpretatzeko erabili eta gozatzea, jarduera arinak bideratuta, ekipamendu handirik gabe (txangoak eta kontenplazioa), ingurune fisikoan eragin txikiarekin eta, lan txikiak, seinaleak edota paisaian integratutako informazio-panelak kenduta (erreken gaineko igarobideak, bidexken zatiak, begiratokiak eta abar), inolako azpiegitura edo egokitzapenen beharrik gabe. Besteak beste, erabilera hauek sartzen dira:

– Txangoak, paseatzea, mendi-ibiltaritza eta mendizaletasuna eta natura kontenplatzeko jarduerak.

– Zaldi gaineko paseoak.

– Mendi-bizikleten erabilera ere sartzen da, kategoria bakoitzean araututakoarekin bat.

Baztertu egin dira eraikuntza-garapenak, esaterako, bide-sareko instalazioak edota elementuak.

Erabilera honen inguruko arau gehienak apirilaren 16ko 79/1996 dekretuan jaso dira, Euskal Autonomia Erkidegoan mendi-ibiltaritzaren antolatzeari eta normalizatzeari buruzkoan.

b) Aisialdi intentsiboa:

Aisialdirako, turismorako, natur ingurunean hezteko eta natura interpretatzeko erabili eta gozatzea, espazioa aisialdi-jardueretarako egokitzea eskatzen duten aisialdiko edota harrerarako ekipamenduekin. Atsedenleku deritzenez ari gara eta, besteak beste, aparkaleku txikiak, mahaiak, bankuak, barbakoa egiteko parrilak, iturriak, osasun zerbitzuak, umeentzako jolas-lekuak, paperontziak, seinaleak, informazio-panelak, zarama errausteko labeak edota antzeko zerbitzu-eraikuntzaren bat izan ditzakete.

Ez dira erabilera horren barruan sartzen kanpinak, golf zelaiak, tiro eremuak ezta motordun ibilgailuen zirkulazioa inplikatzeko jarduerak ere, berdin dio berariaz egokitutako zirkuituetan edo interes orokorreko bideetan izatea. Eraikuntzak edo instalazio handiak altxatzea eskatzen duten jarduerak ere ez dira erabilera hauen barruan sartzen.

c) Arrain- eta ehiza-jarduerak:

Ehiza eta arrantza praktikatzeko, betiere, nazioartean, estatuan, erkidegoan edo probintzian indarrean dauden eta aplikagarri diren legeak gordeta eta, bereziki, ehizari buruzko apirilaren 4ko 1/1970 Legean eta arrantzarako nahiz ehizarako epe baldiodunei eta debekualdiei buruzko foru arauetan ezarritakoari jarraikita.

Halaber, Arabako Lurralde Historikoko ehizari buruzko ekainaren 14ko 8/2004 foru arauko segurtasun-eremuen definizioa jaso da:

24. artikulua. Segurtasun-eremuak

24.1. Segurtasun eremuak arreta neurri bereziak hartu beharreko eremuak dira. Pertsonen eta haien ondasunen babesa bermatzeko helburua dute, eta halakoetan armaz ehizatzea debekaturik dago.

24.2. Segurtasun-eremu dira:

Erabilera publikoko bideak eta trenbideak eta, halaber, haien bazterrak eta zorgune zonak, hesituta daudenean.

b) Bidegorriak edo bide berdeak, hala deklaraturik daudenean.

c) Ur publikoak, bai eta haien ibilguak eta ertzak ere. Ehiza aprobetxamenduaren titularrak proposaturik —eta baldin ehizaren antolamenduko planean jasota badago—, Foru Aldundiko sail eskudunak ehiza baimendu ahal izango du eremu horietan.

d) Hiriguneak, landatar herriguneak, kanpalekuak, golf zelaiak, jolas eremuak eta hala deklaraturiko beste edozein leku.

Euskadiko ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legearen arabera, plan berezian segurtasun-distantzia hauek zehaztu behar dira:

— Erabilera publikoko bideen gainean eta, halaber, horien bazter eta zorgune zonetan, hesituta daudenean: 50 metro.

— Bide eta bidexka berdeen gainean: 50 metro.

— Erreken gainean, ibilgu eta bazterrak barne hartuta, eta lurraldeko planean zehaztutako zortasun-zonetan: 5 metro.

— Hirigune eta landa-guneetako segurtasun-eremuen, nekazaritza-turismoko etxeen eta landetxeen, bizitzeko toki izateko baldintzak dituzten isolaturiko eraikinen (txaletak, baserriak

etab.), akanpalekuen, aire zabaleko kirol eremuen, parkeen, aisialdi-eremuen nahiz lehentasunezko nekazaritza-ustiaguneen gainean. Horien guztien kasuan, 200 metroko distantzia.

Erabilera honen barruan, eraikuntza-garapen oro dago debekatuta.

3. Lehen mailako baliabideak aprobetxatzearekin lotutako erabileren definizioa:

a) Nekazaritza:

Basozaintzakoak ez diren landare-baliabideak landatzearekin zuzenean lotutako jarduerak (belarki-laboreak, labore zurkarak, baratzezaintza, lorezaintza, mintegiko laboreak, onddo/perretxiko/zizak eta hidroponikoak): lurra laboreak landatzeko prestatzea, lan eta praktika kulturalak barne, biltegitatu edo kontsumitzeko moduko baldintzetan dauden uztak jaso, hautatu eta sailkatzeko lanak, ureztatzea eta aprobetxamendu-intentsitate handiagoa eremu ureztatuen kasuan eta, oro har, nekazaritza hobetzeko behar diren landa-azpiegiturak.

Kontzeptu horren barruan sartzen dira aire zabaleko nekazaritza-jarduerak nahiz estalpekoak (labore babestuak).

Nekazaritza-ustiaguneekin lotutako jarduerak:

- Ureztatze ura ateratzea.
- Landare-estalkiari eustea.
- Ongarritzea eta simaurtzea.
- Frutarbolak landatzea, ebakitzea eta inaustea.
- Produktu fitosanitarioak.
- Luberritzeak – etengabeko lanketa nahiz aldian behinekoa.
- Lurra eranstearen edo ura ateratzearen bidezko drainatzeak edo lehortzeak (betiere, garrantzi ekologikoa duen hezegunea ez bada).

Nekazaritza-ustiaguneekin lotutako eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak:

Nekazaritza-jarduerekin zuzenean lotutako eraikuntzak eta instalazioak:

Nekazaritza-ekoizpenean laguntzeko eraikuntza eta instalazioak:

- Tresnak eta produktuak biltegitratzea eta kontserbatzea.
- Nekazaritza-produktuak lehortzea, ateratzea eta sailkatzea.
- Ureztatze-nekazaritzarako obrak eta instalazioak (ureztatze urmaelak barne).
- Terrazak: baratze maila edo zapaldak eraikitzea, betiere, higatze-prozesuak eragozteko edo minimizatzeko badira eta berezko landareek estalitako eremuei eragiten ez zaien bitartean.
- Nekazaritza-produktuak jasotzeko plaiak.

Nekazaritza-produktuen lehenengo eraldaketan laguntzeko eraikuntza eta instalazioak:

- Landare-kontserbak, marmeladak eta konfiturak ekoiztea.
- Sagardoa ekoizteko dolareak eta ardoa eta txakolina ekoizteko soto eta upategiak.

Nekazaritza-ustiaguneen jarduera osagarriak bideratzeko eraikuntza eta instalazioak: Jarduera osagarritzat joko dira nekazaritza-ustiagunean nekazaritza-jarduera nagusiaren osagarri gisa bideratzen direnak, besteak beste:

- Ustiaguneko produktuak eraldatu eta saltzea.
- Ustiagunean bertan lortutako produktuak dastatzea.

– Bertoko produktu tipikoen artisautza-tailerrak (saskigintza, buztingintza, zurgintza, ogi labeak eta abar).

– Nekazaritza-turismoa (nekazaritza-ustiagunean turistei ostatu emateko zerbitzuak).

– Natura eta landa-eremua gozatzearekin, aisialdiarekin eta horren dibulgazioarekin lotutako jolas-jarduerak (landa-eremuko zalditegiak, umeentzako parkeak, bertoko landare eta animalia espezieen erakusketak, etnografia-bildumak eta abar).

– Energia berriztagarria ekoizteko azpiegiturak, batez ere, nork bere burua hornitzekoak.

Nekazaritza-ustiagunearen erabilera osagarriak:

– Ustiaguneari atxikitako etxebizitza, arau espezifikoaren arabera.

Nekazaritza-jarduera bereziak:

– Negutegiak.

– Basozaintzarako, nekazaritzarako, lore apaingarrietarako eta loretarako mintegiak.

– Boilur ekoizpena.

– Onddo ekoizpena.

– Zizare ekoizpena.

Edonola ere, eraikitako azalerak proportzioa gorde beharko du ustiagunearen (edo, ekoizle bazkide-tuen kasuan, ustiaguneen) ekoizpen-gaitasunarekiko.

Erabilera honekin erlazioatutako eraikuntza orok paisaia-inpaktuari buruzko txostena izan beharko du, jasota gera dadin Arau hauetan ezarri diren "pasaian esku hartzeko irizpideak" bete direla.

b) Abeltzaintza estentsiboa:

Edozein abere mota aire zabalean hazteko jarduerak eta artzaintza, betiere, ez badira animaliak beti ukuiluratzen eta, beraz, jarduerak ez badute hondakin organikoak kentzeko instalazioak dituzten eraikin itxiak ipintzea eskatzen.

Larreak sortu, hobetu eta aprobetxatzeko lanak sartzten dira hemen, animaliek "haginka" zuzenean janda zein, segatzeko eta belarra biltzeko, baliabide mekanikoak erabilia ere.

Artzaintzari lotutako eraikuntzak ere barne hartzen dira, esaterako, hespilak, bordak eta askak.

Ez da barne hartzen abereak babesteko inolako babeslekurik.

c) Abeltzaintza intentsiboa:

Abeltzaintza-jardueratzen joko da edozein motatako abereak ugaltzea eta haztea, larrutarako animaliak ugaltzeko etxaldeak eta ehizarako espezieak ugaltzekoak barne. Bazkarako larreak eta laboreak lortzeko lurraren prestakuntza eta artzaintza ere atal honetan sartzten dira.

Abeltzaintzarekin lotutako ohitura kulturalak:

Ohitura kulturalatzen jotzen dira bazkarako laboreak, larreak eta zelaiak:

– Sastrakak kentzea.

– Fitosanitarioak aplikatzea.

– Lurra goldatzea eta zelaietako espezieak landatzea.

– Ongarritzea.

– Eskuz zein makina bidez jasotzea edo segatzea.

– Siloratzea.

Abeltzaintza-ustiaguneekin lotutako eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak:

Abeltzaintza-jarduerekin zuzenean lotutako eraikuntzak eta instalazioak:

– Ukuilu.

– Jezteko aretoak eta esnea kontserbatzeko lokalak.

– Goroztegiak eta minda edo pixortegiak.

– Tresnak eta produktuak biltegiatzea eta kontserbatzea.

– Pentsu eta bazkatarako siloak (soilik zerealak, aledun leguminosoak edo abereentzako pentsuak eta bazka gordetzeko diren eraikuntzak. Adreilu edo harri eta kareorez egindakoak edo xafla metalikoz egindakoak izan daitezke).

– Babeslekuak eta bordak (mendiko bazka-larreetan kokatutako eraikuntza tradizionalak, artzaintza transhumanteari eta artzaintza transterminanteari edo erdi mailako transhumantziari lotutakoak).

– Lurzoruaren araubidearen eta araudi honetako baldintza espezifikoaren arabera itxiturak eta hesiak.

– Askak eta horien ur-bilguneak.

– Ganbelak (normalean bazkatzen diren larreetan abereen elikadura osatzeko jartzen diren eta soilik pentsuak eta bazka emateko diren eraikuntzak).

– Osasun eta gobernatzeko instalazioak (parasitoen aurkako tratamenduak nahiz txertoak emateko, ugalketarekin erlazionaturako hainbat lanetarako, abereak sailkatzeko, garraioetan sartzeko eta abarretarako instalazioak. Elementu hauetakoren bat edo guztiak dituzte: eskortak, tratamendu-eskortak, parasitoen aurkako baimuak eta garraioetara igotzeko ateak).

Abeltzaintza-produktuen lehenengo eraldaketan laguntzeko eraikuntza eta instalazioak:

– Gaztandegiak eta gainerako esnekiak ekoizteko tokiak.

– Okelazko produktuak, hestekiak eta eratorritako produktuak ekoizteko tokiak.

– Eztia eta erleen gainerako produktuak ontziratzeko tokiak.

Abeltzaintza-ustiaguneen jarduera osagarriak bideratzeko eraikuntza eta instalazioak: jarduera osagarritzat joko dira abeltzaintza-ustiagunean abeltzaintza-jarduera nagusiaren osagarri gisa bideratzen direnak, besteak beste:

– Ustiaguneko produktuak eraldatu eta zuzenean saltzea.

– Bertoko produktu tipikoen artisautza-tailerrak (saskigintza, buztzingintza, zurgintza, labe tradizionalak eta abar).

– Nekazaritza-turismoa (abeltzaintza-ustiagunean turistek ostatu emateko zerbitzuak).

– Natura eta landa-eremua gozatzearekin, aisialdiarekin eta horren dibulgazioarekin lotutako jolas-jarduerak (landa-eremuko zalditegiak, umeentzako parkeak, bertoko landare eta animalia espezieen erakusketak, etnografia-bildumak eta abar).

– Energia berriztagarria ekoizteko azpiegiturak, batez ere, nork bere burua hornitzekoak.

Abeltzaintza-ustiagunearen erabilera osagarriak:

– Ustiaguneari atxikitako etxebizitza, arau espezifikoaren arabera.

Abeltzaintza-jarduera bereziak:

- Erletxea.
- Ordezko abeltzaintza-ustiaguneak.
- Ehiza-etxaldeak.

Edonola ere, eraikitako azalerak proportzioa gorde beharko du ustiagunearen (edo, ekoizle bazkidetuen kasuan, ustiaguneen) ekoizpen-gaitasunarekiko.

Mendien Foru Araua eta udal arau osagarriak gorde beharko dira abeltzaintza-erabilerak arautzeari dagokionez.

Erabilera honekin erlazionatutako eraikuntza orok paisaia-inpaktuari buruzko txostena izan beharko du, jasota gera dadin Arau hauetan ezarri diren “pasaian esku hartzeko irizpideak” bete direla.

d) Basozaintza erabilera:

Baso-lurrak hobetzeko edo aprobetxatzeko xedea duten jarduera oro sartzen da atal honetan (abeltzaintza kenduta). Hortaz, basozaintzarako erabileraren araubidea dute zuhaitz edo zuhaixka masek okupatzen dituzten edo okupa ditzaketen lurzatiak, betiere, nekazaritza-laborerik ez badute eta hiri-lurretan ez badaude. Oro har, lortzen den produktu nagusiaren, hau da, zuraren izaera berriztagarriak, tratatzen diren landare-espezioren txanda luzeek eta jarduerak izan ditzaketen ingurumen-inplikazioek bereizten dituzte basozaintza-jarduerak, bestea beste: ibaian behera dauden beste lurrek jasan ditzaketen kalteak edota onurak, animalien bizitza mantentzea, aisialdirako onurak (paseoak, bigarren mailako produktuak biltzea, ehiza eta arrantza) eta abar. Hori dela eta, baso-masek hainbat babes eta ekoizpen-funtzio betetzen dituzte, gradu desberdinetan.

Jarduera horiek askotarikoak izan daitezke zuhaitzi baten ziklo osoan; zuhaitz-masa bera instalatzeko egin behar diren lanak, masaren osasuna zaintzekoak, babesteko eta aprobetxatzeko lanak, zuhaitzak hobetzekoak edota baso-zerua berrizatzeko lanak.

Mendien Foru Arauaren arabera arautuko da basozaintzarako erabilera oro.

Bizitegi-erabilera ez da basozaintza-ustiaguneen erabilera osagarritzat jotzen, ez bada titulartasun publikoa duten baso-masak zaintzeko baso-etxebizitzaren kasuan.

Basozaintzarekin erlazionatutako ohitura kulturalak:

- Baso-masa ezartzeko fasea: baso-lurren gainean egindako lanak: mugatzea, lantzea, ongarritzea, zuzenketak egitea, sastrakak kentzea, landare-hondakinak kentzea eta abar.
- Baso-zeruaren gainean egindako lanak: landatzea, ereitea, birsortzeko mozketak egitea, hazi hautatuak biltzea eta abar.
- Baso-masa kudeatu eta hobetzeko fasea: produktu fitosanitarioak aplikatzea, inaustea, hobetzeko mozketak, baso-masaren inbentarioa, eta abar.
- Ateratze fasea, hau da, baso-masaren produktuak ateratzea: moztea, produktuak sailkatzea, bide-sareraino herrestan eramatea eta abar.

Azpiegiturak:

- Zura prozesatu edota pilatzeko parke edo biltegiak.
- Suteen aurkako behakuntzarako instalazioak.
- Suebaki-eremu eta -zerrendak.
- Ur-hartuneak.
- Itxitura eta hesiak, arau hauetan jasotako baldintza espezifikoetan.

Baso-jarduera bereziak:

- Perretxikoak biltzeko eremuak mugarriztatzea.
- e) Nekazaritza-industriak: ez dira onartzen plan bereziaren esparruan.
- f) Ateratze-jarduerak: ez dira onartzen plan bereziaren esparruan.

4. Azpiegiturekin erlazionatutako erabileren definizioak:

- a) Garraiorako bideak: ez dira onartzen plan bereziaren esparruan.
- b) Landa-bideak:

Eraikuntza eta zolatze-baldintzak nahiz titulartasuna gorabehera, landa-bidetzat joko dira nekazaritza-ustiaguneetara sartzeko bideak eta natura-ingurunean kokatutako biztanleguneen arteko komunikazio-pistak, betiere, goragoko errepide-sare batean sartzekoak ez badira.

Plan berezi honen xedeetarako, landa-bideak dira 0.03 bidezaintza-planoan jasotakoak.

Erabiltzeko baldintzei dagokienez, 6/95 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko landa-bideak erabiltzeari, kontserbatzeari eta zaintzeari buruzkoan ezarritako irizpideak aplikatuko dira.

c) Baso-pistak:

Baso-pistatzat joko dira erabilera hauek dituzten bideak:

Erabilera nagusia:

– Mendi publiko edo pribatuetara sartzea basozaintza-lanak egiteko (sastrakak kentzea, bakanketak, azken mozketak, zura ateratzea eta oihanberritzea). Normalean, baso-aprobetxamendua ateratzeko ekoizpen fasean dauden mendiekin lotzen dira.

Bestelako erabilera:

– Abeltzaintzarako larre itxietara, bazka-larreetara eta erregimen estentsiboan dauden abereak dituen mendi zuhaiztuneko eremuetara sartzea (abereen joan-etorriak, kontrolatzeko bisitak eta abar).

– Suhiltzaileentzako sarbidea sute kasuetan.

– Basozainek jagotea eta udal zerbitzu teknikoek ikuskatzea.

– Oinezkoen aisialdi-jarduerak, mendi-txirindularitza, zaldiz egiteko ibilbideak...

– Motordun ibilgailuak kontrolik gabe erabiltzea (motokrosa, quad-ak, lur orotarako ibilgailuak eta abar).

Erabilera honen barruan, ateratze-bide deritzon bide mota bereizten da, hau da, soilik basozaintza-lanak egiteko eta zura ateratzeko mendi-eremuetara iristeko erabiltzen direnak. Ez dira etengabe erabiltzen eta ez dute egokitzerik edo mantentze-lanik eskatzen (ura bideratzea, zorua edota arekak tratatzea eta abar).

Lotutako instalazioak:

– Hesiak eta ubideak aurretik zeuden bideetan.

d) Ibilbide berdeak.

Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeei buruzko 1/2012 Foru Arauan, urtarrilaren 23koan definitzen dira azpiegiturok, hitzez hitz honelaxe:

– 2. artikulua. Definizioak eta tipologiak.

1. Komunikazio azpiegiturak –ahal dela zerbitzutik kanpo erabat edo neurri batean dauden azpiegitura lineal zaharrak–, garai bateko abelbideak nahiz bide naturalak, erromesenak eta ibilbide historiko handiak edota interes ekologiko eta paisaia interes adierazgarrikoak direnak

erabiltzen dituztenak, motorizatu gabeko joan-etorriak egiteko (oinez, bizikletaz, zaldiz, patinekin, beste batzuen bitartez. Bide horiek jendeak erabiltzeko proiektatu, egokitu edo eraiki dira, naturan aisia irisgarria, aisia ekologiko eta hezitzailea, soziokulturala eta kirolekoa sustatze aldera. Halaber, zeharkatzen duten lurraldearen natura ondarea eta ondare historiko eta kulturala lehengoratu, dinamizatu eta balioztatu nahi da.

2. Ezaugarri teknikoek dagokienez, jarraian aipatuko diren tipologia bereizten dira ibilbide berdeen artean:

– Bide berdea: ibilgailu motordunik gabeko joan-etorrietarako utzitako bidea, dituen ezaugarriengatik eta morfologiarengatik behar besteko zabalera, malda eta gainazaleko kalitate badiu edozein gaitasun fisiko duten erabiltzaileek bizikidetzan eta segurtasunean erabiltzeko.

– Ibili berdea: ibilgailu motordunik gabeko joan-etorrietarako utzitako bidea. Hauetan, erabilera horiek bat etorri daitezke landa jardueretara elkartutako joan-etorri motorizatu batzuekin (funtsean nekazaritza, abeltzaintza edo basozaintzako jarduerak), edo, bestela, izan daiteke zeharkatzen duen ingurunearen ezaugarriak direla-eta ez betetzea bide berde bat izateko baldintzak, malda arina edukitzea zailtzen duen topografia bati egokiturik egoteagatik.

– Bidexka berdea: ingurune naturaletik edo landa inguruntetik igarotzen den bidexka. Honen malda baldintzak eta azaleraren kalitatearenak lurzati naturalarenak dira, eta horren zabalera, normalean, bide edo ibili berdeetarako normalizaturik dagoena baino txikiagoa izaten da. Mantentzeko gutxieneko esku hartzea eskatu ohi dute.

Ibilbide horiek jada existitzen diren azpiegiturak izan ditzakete oinarri, edo, bestela, sorrera berriko tarteekin eraikita egon. Helburua, ahal dela, trazadurari jarraitutasuna ematea edo ibilbideek euren artean eta beste puntu interesgarri batzuekin (landakuneekin, ekipamenduekin, zerbitzuekin, mugarriekin edo natura intereseko guneekin, ondare interesekoekin edo interes historiko eta kulturala dutenekin) lotura edukiko dutela bermatzea da.

e) Aireko linea elektrikoak:

Argindarra eta telekomunikazioak garraiatu edota banatzeko, euskarri isolatuak eta instalazio txiki osagarriak jarrita, aireko linea gisa instalatzen diren sareen eta bestelako azpiegituren multzo osoa hartzen dute eta dagokion sareak funtziona dezan beharrezkoak dira.

f) Lurpeko lineak:

Gasa, petrolio edo eratorritako produktuak, ura, saneamenduak, telekomunikazioak eta lurpeko beste azpiegitura-sare batzuk hartzen dituzte barne, lurpean egiten diren instalazio osagarriez gain.

g) Zerbitzuetarako A motako instalazio tekniko ez linealak: plan berezi honen esparruan, ez da erabilera hori onartzen.

h) Zerbitzuetarako B motako instalazio tekniko ez linealak: plan berezi honen esparruan, ez da erabilera hori onartzen.

i) Hondakindegia eta hondakin solidoetarako zaborteak: plan berezi honen esparruan, ez da erabilera hori onartzen.

5. Eraikuntza-erabileren definizioak:

a) Aurretik zeuden biztanleguneetan oinarritutako hirigintza-hazkuntza:

Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen arabera, gaur egungo auzoak ez dira landa-biztanlegunetzat jotzen eta, beraz, plan berezi honen esparruan ez da halako erabilerarik onartzen.

b) Aurretik zeuden biztanleguneetan oinarritutako gabeko hirigintza-hazkuntza: plan berezi honen esparruan, ez da erabilera hori onartzen.

## c) Erabilera publikoa edota gizarte-interesa duten eraikinak:

Izaera eta ezaugarriak kontuan izanda, landa-eremuan ematea eskatzen duten zerbitzuak emateko komunitate-eraikuntza eta -instalazio publiko zein pribatuak, betiere, aurretik erabilera-publikoa edo gizarte-interesa aitortu bazaie.

Mota hauek daude:

– Ekipamendu soziokulturalak: kultura-sustapeneko nahiz arte-sorkuntzako jardueretarako ekipamenduak (museoak, interpretazio-zentroak, bisitariei harrera egiteko edota informazioa emateko tokiak eta abar).

– Kirol-ekipamenduak: kirola praktikatzen edota irakasteko eraikinak eta aire zabaleko espazioak, betiere, kirolerako espresuki egokitu badira.

Ez dira onartzen erabilera honen barruan: golf zelaiak eta trialerako edo lur orotako ibilgai-luetarako zirkuituak.

– Hirugarren mailako erabilerak: ostalaritza-establezimenduak, turistentzako ostatuak, aterpetxeak eta kanpinak. gaiaren inguruko lege aplikagarriak eta horien ordezkoko maila bereko arauak gorde behar dira hirugarren mailako erabilerak ezartzeari dagokionez.

Turistentzako ostatuen kasuan, maiatzaren 28ko 128/1996 dekretuan, landa-eremuko turismo-ostatutak arautzekoan eta hura aldatzeko irailaren 23ko 21/1997 dekretuan jasota dauden modalitateak baino ez dira onartuko, dekretu horietan zehaztutako erabilera-baldintzekin eta plaza kopuruekin.

Aterpetxeak ipintzeari dagokionez, urriaren 18ko 406/1994 dekretuan, haur eta gazte taldeak egoteko eta ostatu hartzeko aterpetxe eta instalazioei buruzkoan ezarritakoa gordeko da.

Kanpinak ezartzeari dagokionez, martxoaren 16ko 41/1981 dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko kanpinen antolamenduari buruzkoan eta hura aldatu zuen uztailearen 27ko 178/1989 dekretuan jasotako modalitateak baino ez dira onartuko, dekretu horietan adierazitako erabilera-baldintzekin eta plaza kopuruekin.

– Osasun-ekipamenduak: gaixoak ospitaletan, bainuetxeetan eta antzekoetan tratatzea eta horiei ostatu ematea.

– Hilerriak.

– Erlijio-ekipamenduak: eliza, baseliza eta antzekoetan bideratzen diren gurtza-jarduerak eta erlijio-prestakuntza.

– Aisialdirako baratzeak: hiriguneen aldirietan kokatu ohi diren, lurzati txikietan banatuta egoten diren eta zenbait azpiegitura partekatzen dituzten baratze multzoak sartzen dira hemen. Baratze multzo horiek aisialdirako aukera gisa erabiltzen dituzte hiriko biztanleek batez ere. Kudeaketa eta titulartasuna publikoa nahiz pribatua izan daiteke.

## d) Nekazaritza-ustiaguneari lotutako etxebizitza isolatua:

Nekazari edota abeltzainak eta euren familiak bizitzeko, nekazaritza- edota abeltzaintza-ustiagune bati atxikitako familia bakarreko edo bi familiako etxe bat, beharra dagoela frogatu ondoren, ustiagunearekin zuzenean lotutakoa.

Erabilera hori beste batzuen osagarritzat joko da eta dagozkion arau espezifikoak beteta baimenduko da (nekazaritza- edota abeltzaintza-ustiagunearekin lotutako etxebizitza isolatuaren baldintzak).

## e) Bizitegi-erabilera aurretik eraikitako baserrian:

2008ko ekainaren 23an, 118. EHAAng argitaratutako 105 dekretuan jaso zen baserriaren definizioa, Baserriak izenburuko 9. artikuluan. Hitzez hitz, hau dio definizioari eta berreraikuntza baimentzeko araubideari buruz:

– 1. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 29.1 eta 30. artikuluetan lurzoru ez-urbanizagarriaren erregimenari dagokionez xedatutakoaren ondorioetarako, honako baldintza hauek guztiak betetzen dituzten eraikinak hartuko dira baserritzat.

a) Eraikin bakanak izatea eta erabilera nagusia etxebizitza-erabilera izatea.

b) Gutxienez etxebizitza bat izatea, jabetza erregistroan xedaturikoaren arabera.

c) Lehen okupazioko lizentzia, edo eraikinak 1950eko urtarrilaren 1aren aurretik bizitegi-okupazioa izan duela era sinesgarrian jasoko duen dokumentu bat izatea.

d) Udalak bere hirigintza-plangintzan edo dagokion udal-ordenantzian ezartzen dituen ez-augarri gehigarriak izatea.

Halaber, baserriak birgaitzea eta berreraikitzea ere onartuko da, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 legearen 30. artikulua 1 eta 5. ataletan zehaztutakoarekin bat.

– 30. artikulua. Baserriak berreraikitzea eta horretarako baimena ematea.

1. Baserriak berreraikitzeko baimena, soilik, baserritzat jotzeko modua ematen duen egitura eraikia gordetzen dutenean emango da. Eraikinen murruei hondarrak ezin izango dira inoiz ere berreraiki, ez baldin badira jatorrizkoen gailurrera iristen; eta, oro har, jatorrizko higiezinaren oina jakiteko modurik ematen ez duten hondarrak ere ez, eta ezta ere jatorrizko higiezin horren jatorrizko bolumentria jakiteko modurik ematen ez dutenak.

5. Ez da inoiz ere baserriaren berreraikipentzat joko lurzoru urbanizaezinean kokatuta dauden eraikinak bizitegitzat erabiltzeko berritu edo birgaitzea, baldin eta lehenago ez bazaie bizitegietarako erabilera hori legez eman izan. Horrelako obrak etxebizitzatarako eraikuntza berritzat joko dira, eta lege honetan horrelakoentzat ezarritako araubide juridikoaren menpe egongo dira.

Plan bereziaren barruan, eraikitako ondarearen araubideari buruzko 3.3 atalean ezarri dira baserrietan esku hartzeko baldintzak.

f) Industria edota biltegiatze arriskutsuak: plan berezi honen esparruan, ez da erabilera hori onartzen.

### 1.3 Lurzoruaren antolamendu-matrizea



1.4 Irabazteko aprobetxamendua amaitzeagatiko konpentsazio-araubidea.

#### 4. artikulua: konpentsazio-araubide orokorra

Ermuko Andra Mari eta Santa Luziako monumentu multzoa babestu eta kontserbatzeko plan bereziaren arauak aplikatzeak berarekin dakartza planaren aplikazio-esparruaren barruko espazioetan zenbait erabilera eta aprobetxamendu murriztea. Baso-lurzatien jabeei eta onuradunei kalte ekonomikoak aurrezteko eta plan bereziaren funtzionamenduaren zati izan daitezen, ekonomikoki konpentsatzeko araubidea ezarri da.

Hortaz, Arabako Mendien Foru Legea beteko da, bereziki, 11.4 artikulua, hau dioena:

– 11. artikulua: mendiaren gizarte-eginkizuna.

– 4. Administrazio egintza edo arau arautzaile baten ondorioz jabeari baso-aprobetxamendu iraunkorreko eskubideak kentzen bazaizkio, jabe horrek kalte-ordaina jasoko du.

Halaber, nekazaritza eta basozaintza antolatzeko lurraldearen arloko planean erabilerak ezartzeko jaso diren irizpideak aplikatuko dira. Ingurumen-hobekuntzaren kategorian, hau dakar ezarrita:

– 12.3 Nekazaritzako eta basozaintzako erabileren zehaztasunak:

– Ingurumenaren hobekuntza kategoria

1. Basozaintzako erabilera: jabetza pribatuko lurretan dauden ingurumen hobekuntzako areetan, administrazio eskudunak jabeak motibatzen duten neurriak aztertuko ditu, zona horretarako ezarritako helburuak lortzen laguntzen dutenak.

Hau da irabazteko aprobetxamendua amaitu izana konpentsatzeko araubidea:

1. Lurzati partikularrak baino ez dira konpentsazioaren onuradunak izango.

2. Babes bereziko eremuetan eta ingurumena hobetzeko eremuetan azken aprobetxamendurako mozketak bakoitzaren ondoren espezie autoktonoak landatzeko erre-serbatu beharreko azalera-ehunekoak ezarri dira. Araudi honen barruko esparru bakoitzaren araubide zehaztuan adierazi dira azalera horiek.

3. Eremu bakoitzeko landaredi-serie potentzialen azterketaren arabera aukeratuko dira oihanberritzea egiteko landare-espezie autoktonoak.

4. Espezie-aldaketa ekonomikoki konpentsatzeko taula hau ezarri da:

ESPEZIEA	BARNE ERRETORNUKO TASA (EHUNEKOAK)	KONPENTSAZIOA (EURO/HEKTAREA)
Pinus radiata (2. kalitatea)	4,87	—
Quercus robur	1,84	2.323

5. Zenbatekoak ez dira aldi bakarrean ordainduko, baizik eta proiektuaren lehen urteetako "N" zatian. Horrela, landaketa finkatzen dela eta zerbitzu implizituak ematen direla bermatu nahi da (jabearen zaintza eta erantzukizuna, aurreikusitako garbiketa- eta basozaintza-lanak).

6. Azken batean, jabearen eta administrazioaren arteko akordioa izango da, dokumentu batean jasota geratuko da eta, dokumentu horren bidez, bi alderdiek konpromisoak hartuko dituzte eta behin betiko konpentsazio-zenbatekoa nahiz "N" urte kopurua ezarriko dute. Dokumentu horretan, jabeak baso-masa mantentzeko lanei dagokienez duen erantzukizuna bermatzeko zein administrazio eskumendunak aurreikusitako zenbatekoak ordaintzeko edo, irregulartasunik badago, zenbatekoak itzultzea bueltatzeko duen konpromisoa ziurtatzeko klausulak jaso behar dira.

## 2 Lurzoru urbanizaezinaren kategoria bakoitzaren araudia

### 2.1 Babes bereziko araubidea

#### 2.1.1 Araubide orokorra

### **5. artikulua. Babes bereziko kategoriaren definizioa eta helburuak**

Kategoria honen barruan sartzen dira ekologia-, kultura- edota paisaia-balio bereziak dituzten zonaldeak, bertako integritate ekologikoa eta xede-habitaten nahiz -espezieen erreserba-leku gisa duten funtzioa bere horretan geratzeko edota hobetzeko helburuarekin.

Kategoriak barne hartzen ditu Ganekogorta mendiaren nukleo-espazioaren barruan dauden Laudio udalerriko zonaldeak. Gorbeia eta Armañongo Batasunaren intereseko lekuen arteko lotunea da Ganekogortako nukleo-espazioa. Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak 2005ean argitaratutako "Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarea" dokumentuaren bidez definitu zuen interes bereziko naturguneak (natur parkeak, Natura 2000 sarea) eta kontuan hartzeko tamaina duten beste landare-multzo autoktonoak elkarrekin lotzeko sarea. Sare horren helburua da eremu babestuak biodibertsitatea berreskuratzeko eta lurraldearen iraunkortasun orokorraren oinarriak ezartzeko funtsezko elementu gisa finkatzea. 2012an hasierako onarpena jaso zuen aldaketa-dokumentuaren arabera, lurraldearen antolamendurako gidalerroek babes bereziko kategorian sartzen dituzte aipatutako nukleo-espazioak.

Halaber, azaleko urak ere kategoria horretan sartzen dira, antolamendurako gidalerroetan zein Euskal Autonomia Erkidegoko ibaiak eta errekek antolatzeke lurraldearen arloko planean ezarritakoarekin bat.

### **6. artikulua. Azpikategoriaren definizioak eta helburuak**

1. Erreserba: natur balio aparta duten zonaldeak dira eta zuhaitz-masari eusteko helburua dute. Hortaz, basozaintza lanen artean, suteen aurkako zaintza eta babesa baino ez dira onartzen, salbuespeneko beste neurri batzuek gain. Baso-masaren iraupena arriskutan dagoela ikusten bada, osasun-izaerako mozketak kontrolatuak edota birsorkuntza naturala bultzatzeko mozketak egiteko baimena emango da.

Lur hauek sartzen dira "erreserba" kategorian:

- Ermuko Andra Mariko artadia (N1.01).
- Laudioko gurbiztia (N1.02).

2. Azaleko uren babesa: esparruko ibai, erreka eta aldiari jariatzeek nahiz horien babes- eta eragin-eremuek osatzen dute.

Laudioko eremu funtzionalaren lurralde plan partzialean 30 metroko babes-eremua ezarri da esparruko erreka guztien iberen bi aldeetan.

Aldiari jariatzearen kasuan, 15 metroko babes-zerrenda ezarri da iberen bi aldeetan.

Eragin-eremua plan honen O.02 antolamendu-planoan ezarri da.

Hauek dira kasu guztietan ibai eta erreken batzerren lurralde plan sektorialaren ikuspegitik aplikatu beharreko irizpide orokorrak:

- Uren kalitateari eustea edo hobetzea.
- Gutxieneko emari ekologikoari eustea.
- Ibai eta erreken iberen okupatzea eragozteko.
- Uholdeen nahiz arrisku naturalen ondoriozko kalteak minimizatzea.

- Ingurumen-interes berezia duten ibai- edo erreka-zatietako ezaugarri eustea.
- Kultur ondarearen elementuak babestea.

Lur hauek sartzen dira “azaleko uren babes” kategorian:

- Iñarrondo eta Lorbide errekek (N2.01).
- Urrutxu erreka (N2.02).
- Kamaraka menditik santutegira doan mazelako errekek (N2.03).
- Asketa eta Garbe trokak (N2.04).
- Palanka erreka (N2.05).
- Almuerreka erreka (N2.06).

3. Babes aktiboa: natura-, kultura- edo paisaia-interes handiko elementu bakanak dituzten eremuak dira eta euren helburu nagusia balio horiei eustea da.

Lur hauek sartzen dira “babes aktiboa” kategorian:

- Goikogane-Kamaraka-Gazteluzar gailur-lerroa (N3.05).
- Isusiko zuhaitz mugarro eta ipinabarren unada (N5.03).
- Isusiko pago-mintegi zaharra (N5.04).

4. Progresio ekologikoa 1: kokapen estrategikoa dela eta, interes ekologikoa duten masa naturalak konektatzeko gaitasuna duten zonaldeak. Epe labur edo ertainera baso naturaleko korridorea osatzea da helburua. Eraldatze-epe horrek bereizten ditu epe laburrera korridore ekologiko gisa funtzionatuko duten masak, haranak eta erreken arroak gailur-lerroarekin lotuta edota dagoeneko bertan dauden zuhaitz autoktonoak erabilita. Aurreko korridoreek bestelako zonalde batzuk inguratzen dituzte eta mazelako zenbait zati okupatzen dituzte espezie bakarreko sailekin. Sail horiek epe ertainera eraldatuko dira Ganekogorta mendiaren nukleo-espazioa osatzen bukatzeko.

Lur hauek sartzen dira “progresio ekologikoa 1” kategorian:

- Goikogane-Kamaraka-Gazteluzar gailur-lerroa babesteko banda (N3.01).
- Iñarrondo-Kamaraka erreka korridorea (N3.02).
- Kareharrizko pendizaren oina (N3.03).
- Urrutxu-Mugarriluze erreka korridorea (N3.04).
- Kamaraka-Gazteluzar mazelak (N6.01).
- Goikogane-Mugarriluze mazelak (N6.05).

### **7. artikulua. Esparru desberdinetan esku hartzeko araubidea**

Esparru desberdinetan esku hartzeko zazpi kategoria ezarri dira; bakoitzak bere baldintzak eta mugapen zehatzak ditu, ezarritako babes-graduaren arabera:

5. Erreserba integrala: pertsona eta abereak ez sartzeko, esparru hesituak izango dira, baso-masek modu naturalean eta asaldu antropikorik gabe eboluziona dezaten. Eremu horretan ez denez esku hartuko, basoaren birsorkuntza eta eboluzio naturala egiaztatu eta erkatzeko erreferentzia gisa erabiliko da.

Espazio horiek ixteko, abeltzaintzan erabiltzen diren hesi motak baliatuko dira.

6. Babes integrala: balio ekologiko handiko landaredi naturala ondo kontserbatuta daukaten zonaldeetan aplikatuko da. Zonalde horietan, habitataren heldutasuna eta

egitura-komplexutasuna garatzen dela bermatuko da eta, beraz, posible izango da bertako ingurumen-ezaugarriak kontserbatzeko, babesteko eta birsortzeko esku-hartzeak bideratzea.

7. Ibaixkak eta errekek leheneratzea: Uberkei, ibai eta erreken bazterrei eta euren eragin-eremuei aplikatuko zaie. Ibaxka eta erreketako ekosistema leheneratzeko eta oraingo nahiz etorkizuneko aldaketak eragozteko jarduketak dira eta horien helburua da ibai-ohearen konplexutasunari nahiz uraren egoera fisiko-kimiko onari eustea.

8. Hobekuntza: kontserbatzeko eta hobetzeko egoki izan daitezkeen zenbait balio natural edota kultural azpimarragarri dituzten zonaldeak.

9. Hedapena: Balio ekologiko handiko zonaldeekin konektatuta, landaredi autoktonoa duten korridoreak eratzeko egoki izan daitezkeen eta balio naturalen bat duten zonaldeak.

10. Eraldaketa 1: zuhaitzik gabeko edo zuhaitz gutxiko zonaldeak, batzuetan higadura jasateko eta lurra galtzeko arrisku handia dutenak. Bertan eraldaketak bideratu beharko dira, epe laburrera zuhaitz-masa natural jarraituak ezartzea lortzeko. Gutxienez, etorkizuneko baso-landaketetan erabiltzen diren landareen ehuneko 50 tokiko landaredia potentzialari dagozkion hostozabalak izan beharko dira.

11. Eraldaketa 2: batez ere, espezie bakarreko zuhaitz masa produktiboak dauzkaten zonaldeak dira. Bertan, eraldaketa bideratu beharko da epe ertainera, Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sareko zati den gure esparruaren barruko nukleo-eremuan espezie autoktonoz osatutako baso-masa jarraitua lortu arte. Gutxienez, etorkizuneko baso-landaketetan erabiltzen diren landareen ehuneko 30 tokiko landaredia potentzialari dagozkion hostozabalak izan beharko dira.

#### 2.1.2 Esparruetako araubide zehaztua

### 8. artikulua. Erreserba integralak

Babes bereziko kategoriako zonaldeen artetik hobekien kontserbatu diren zatietan sortuko dira, dagozkion ikerketen bidez zonaldea sakonki aztertu ondoren. Gutxi gorabehera, hektarea bat izango dute.

1. Bultzatu beharreko erabilerak: kontserbazioa.

2. Debekatutako erabilerak: bultzatzen ez diren erabilera guztiak eta bereziki:

– Pertsonak edota abereak sartzea eta handik ibiltzea inplikatzan duten erabilerak.

– Azpiegituretarako edo eraikuntzarako erabilera guztiak.

3. Onartutako esku-hartzeak:

– Salbuespen gisa, baso-masaren iraupena arriskutan dagoela ikusten bada, baimena emango da osasun-izaerako mozketak kontrolatuak edota birsorkuntza naturala bultzatzeko mozketak egiteko.

– Abereak ez sartzeko itxiturak sortzea, araudi honetako II. kapituluan, urbanizazioari buruzkoan ezarritako ezaugarriekin bat.

### 9. artikulua. Ermuko Andra Mariko artadia (N1.01)

1. Esku hartzeko araubidea: babe integrala

2. Helburuak: artadia kontserbatu eta hobetzea, egitura konplexudun baso mediterranean helduaren elementu adierazgarri eta enblematikoa lortzeko, bazkarako larre batzuekin eta abeltzaintzarekin orekan.

3. Bultzatu beharreko erabilerak:

a. Kontserbazioa: erreserba integral txiki eta itxiak sortzea.

b. Ingurumen-hobekuntza: hobetzeko bosa-tratamenduak aplikatzea eta baso autoktonoen barruan isolatutako masa produktiboak birsortzen eta eraldatzen laguntzea, artadi kantauriarren masa jarraitua lortzeko.

4. Onartutako erabilerak:

– Aisia-erabilera estentsiboak diren mendi-ibiliak, betiere, artikulu honetan definitutako ibilbide-berdeetara mugatuta. Debekatuta dago azpiegitura berriak eraikitzea eta mendiko bizikletak erabiltzea.

– Ehiza-erabilera, ehizari buruzko foru arauarekin bat.

– Debekatuta landaredia birsortzeko itxitako zonaldeetan.

– 3. artikuluko erabileren definizioan ezarritako segurtasun-distantzien murriztapenak errespetatuta.

– Artadiaren birsorkuntzaren bideragarritasun-ikerketaren baldintzapean, abeltzaintza estentsiboa:

– Ageriko higadura-arazoak dituzten zonaldeetan, abereak bazkatzea ekidingo da; abereak bertako pista eta bideetatik ibiltzea baino ez da onartuko.

– Udal arauetan jasotako neguko etenaldiak errespetatuko dira.

– Mendien Foru Arauan jasotakoaren arabera, esanbidez debekatuta dago ahuntz aziendak erabiltzea, ez bada belar-sastrakak modu kontrolatuan kentzeko behararengatik; kasu horretan, proiektu teknikoa beharko da.

– Abeltzaintza estentsiboa zelaietan: ardiak eta zaldiak.

– Bidezaintza-antolamenduaren O.03 planoan jasotako landa-bideak, motordun ibilgailuak igarotzeko debekuekin, baimendutako ibilgailuak salbu.

– Ibilbide berdeak: gainerako ibilbide, bidexka eta bide berdeak dagoeneko eginda dauden bideetatik egin beharko dira.

Hauek dira O.03 planoan jasotako ibilbideak, dagoeneko eginak:

– 1. ibilbidea: GR 123.

– 3. ibilbidea: burdinazko hesiaren ibilbidea.

– Dubiriz eta Aspurutik Ganekogortara doan bidea, ingurumen-berreskurapena behar duena.

Hauek dira O.03 planoan proposamen gisa jasotako ibilbideak:

– 5. ibilbidea: ikatzaren eta karearen bidexka berdea.

– 6. ibilbidea: zuhaitz berezien bidexka berdea.

– 7. ibilbidea: Ermuko parkeko bidexka berdea.

– Aireko linea elektrikoak: dagoeneko badaudenak onartuko dira, betiere, ezin badira eraman eginda dauden bideen azpira.

- Mendien antolamendu-proiektua.
- Zur-aprobetxamenduen urteko plana.
- Ehiza kudeatzeko plana.
- Basoberritze-proiektuak.

#### **24. artikulua Kamaraka-Gasteluzar mazelak (N6.01)**

##### 1. Esku hartzeko araubidea: eraldaketa II

##### 2. Helburuak:

– Epe ertainera, babes-funtzio handiagoa betetzen duten espezie autoktonoz osatutako landaredia multzo bihurtzea, biodibertsitatea eta paisaiaren kalitatea hobetzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarearen nukleo-gunean sartzea.

##### 3. Bultzatu beharreko erabilerak:

a. Ingurumen-hobekuntza: basozaintza-tratamenduak, basoberritzeak, birsortze-eremuak hesitzea.

##### 4. Onartutako erabilerak:

- Aisia-erabilera estentsiboa.
- Ehiza:
  - Aldi baterako debekatuta landaredia birsortzeko itxi diren zonaldeetan.
  - 3. artikuluko erabileren definizioan ezarritako segurtasun-distantzien murriztapenak errespetatuta.
  - Abeltzaintza estentsibo arautua:
    - Abereak baso-masetara bazkatzera eramateko (baso-abeltzaintza praktikatzeko), lurzatieen jabeen esanbidezko baimen dokumentatua beharko da eta ezingo dira zuhaitzak edo euren birsorkuntza kaltetu.
    - Ezingo da abeltzaintza estentsiboa praktikatu landareak birsortzeko aldi baterako itxituretan.
    - Mendi publikoetan, Mendien Foru Arauaren arabera, ez da onartuko zuhaitzak dituzten lurzatieetan ahuntzak bazkatzea, ez bada sastraka-belarrak modu kontrolatuan garbitzeko.
    - Ageriko higadura-arazoak dituzten zonaldeetan, abereak bazkatzea ekidingo da; abereak bertako pista eta bideetatik ibiltzea baino ez da onartuko.
    - Udal arauetan jasotako neguko etenaldiak errespetatuko dira.
    - Landa-bideak: bidezaintza antolatzeko 0.03 planoan jasotako landa-bideak soilik.
    - Baso-pistak: baso-pista berriak irekitzea debekatuta dago. Ingurumena hobetzeko egin beharreko edozein lan egiteko, eginda dauden pistak erabiliko dira soilik. Dagoeneko eginda dagoen azpiegitura ibilbide berdeak osatzeko eta larrialdietako nahiz ingurumen-zaintzako zerbitzuak sartzeko ere erabili ahalko da. Jada erabiltzen ez diren ateratze-bideen sarbideak itxiko dira, denborak aurrera egin ahala naturaliza daitezen.
  - Ibilbide berdeak.

Hauek dira O.03 planoan jasotako ibilbideak, dagoeneko eginak:

– 1. ibilbidea: GR 123.

– 3. ibilbidea: burdinazko hesiaren ibilbidea.

– Basozaintza: metodo iraunkorren bidezko baso-aprobetxamenduak, betiere, esku hartzeko "eraldaketa 2" araubidea errespetatuta: gutxienez, etorkizuneko baso-landaketetan erabiltzen diren landareen ehuneko 30 tokiko landaredia potentzialari dagozkion hostozabalak izan beharko dira. Erabilera horrekin lotutako instalazioak, azpiegiturak eta eraikuntzak debekatuta daude.

– Aireko linea elektrikoak: dagoeneko badaudenak onartuko dira, betiere, ezin badira eraman eginda dauden bideen azpira.

5. Debekatutako erabilerak: bultzatzen eta onartzen ez diren erabileraz gain, hauek:

– Edozein eraikuntza edo eraikuntza-erabilera.

6. Lehentasunezko esku-hartzeak:

– Hobekuntzarako basozaintza-tratamenduak, bakanketa autofinantziagarriak zein ez-autofinantziagarriak pinudietan eta hostozabalak birsortzeko laguntza.

7. Onartutako esku-hartzeak:

– Txanda ertain eta luzeetan kalitatezko zura lortzeko esperimentazioa hostozabalekin.

– Basoko beste produktu batzuk lortzeko basozaintza (biomasa, perretxikoak, ehiza, eta abar) Babes- eta aisia-erabileretarako basozaintza.

– Ondarea babestu edota zaharberritzeko lanak, dagokion araubidean ezarritakoaren arabera.

8. Lehentasunezko jarduketak:

– Ikerketa faunistikoa.

– Ehiza-ikerketa.

– Mendien antolamendu-proiektua.

– Zur-aprobetxamenduen urteko plana.

– Ehiza kudeatzeko plana.

– Bazkarako larreak erabili eta kudeatzeko plana.

– Ingurumena leheneratzeko proiektuak.

– Basoberritze-proiektuak.

– Ingurumen-egokitzeak egiteko proiektuak.

## **25. artikulua Goikogane-Mugarri luze mazelak (N6.05)**

1. Esku hartzeko araubidea: eraldaketa II

2. Helburuak:

– Epe ertainera, babes-funtzio handiagoa betetzen duten espezie autoktonoz osatutako landaredia multzo bihurtzea, biodibertsitatea eta paisaiaren kalitatea hobetzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarearen nukleo-gunean sartzeta.

3. Bultzatu beharreko erabilerak:

a. Ingurumen-hobekuntza: basozaintza-tratamenduak, basoberritzeak, birsortze-eremuak hesitzea.

#### 4. Onartutako erabilerak:

- Aisia-erabilera estentsiboa.
- Ehiza:
  - Aldi baterako debekatuta landaredia birsortzeko itxi diren zonaldeetan.
  - 3. artikuluko erabileren definizioan ezarritako segurtasun-distantzien murriztapenak errespetatuta. 3.
- Abeltzaintza estentsibo arautua:
  - Abereak baso-masetara bazkatzea eramateko (baso-abeltzaintza praktikatzeko), lurzatieen jabeen esanbidezko baimen dokumentatua beharko da eta ezingo dira zuhaitzak edo euren birsorkuntza kaltetu.
  - Ezingo da abeltzaintza estentsiboa praktikatu landareak birsortzeko aldi baterako itxituretan.
  - Mendi publikoetan, Mendien Foru Arauaren arabera, ez da onartuko zuhaitzak dituzten lurzatieetan ahuntzak bazkatzea, ez bada sastraka-belarrak modu kontrolatuan garbitzeko.
  - Ageriko higadura-arazoak dituzten zonaldeetan, abereak bazkatzea ekidingo da; abereak bertako pista eta bideetatik ibiltzea baino ez da onartuko.
  - Udal arauetan jasotako neguko etenaldiak errespetatuko dira.
  - Landa-bideak: bidezaintza antolatzeke O.03 planoan jasotako landa-bideak soilik.
  - Baso-pistak: baso-pista berriak irekitzea debekatuta dago. Ingurumena hobetzeko egin beharreko edozein lan egiteko, eginda dauden pistak erabiliko dira soilik. Dagoeneko eginda dagoen azpiegitura ibilbide berdeak osatzeko eta larrialdietako nahiz ingurumen-zaintzako zerbitzuak sartzeko ere erabili ahalko da. Jada erabiltzen ez diren ateratze-bideen sarbideak itxiko dira, denborak aurrera egin ahala naturaliza daitezten.

- Ibilbide berdeak.

Hau da O.03 planoan jasotako ibilbidea:

- 3. ibilbidea: burdinazko hesiaren ibilbidea.
  - Basozaintza: metodo iraunkorren bidezko baso-aprobetxamenduak, betiere, esku hartzeko "eraldaketa 2" araubidea errespetatuta: gutxienez, etorkizuneko baso-landaketetan erabiltzen diren landareen ehuneko 30 tokiko landaredia potentzialari dagozkion hostozabalak izan beharko dira. Erabilera horrekin lotutako instalazioak, azpiegiturak eta eraikuntzak debekatuta daude.
  - Aireko linea elektrikoak: dagoeneko badaudenak onartuko dira, betiere, ezin badira eraman eginda dauden bideen azpira.

#### 5. Debekatutako erabilerak: bultzatzen eta onartzen ez diren erabilerez gain, hauek:

- Edozein eraikuntza edo eraikuntza-erabilera.

#### 6. Lehentasunezko esku-hartzeak:

- Hobekuntzarako basozaintza-tratamenduak, bakanketa autofinantziagarriak zein ez-autofinantziagarriak pinudietan eta hostozabalak birsortzeko laguntza.

#### 7. Onartutako esku-hartzeak:

- Txanda ertain eta luzeetan kalitatezko zura lortzeko esperimentazioa hostozabalekin.
- Basoko beste produktu batzuk lortzeko basozaintza (biomasa, perretxikoak, ehiza eta abar) Babes- eta aisia-erabileretarako basozaintza.

– Ondarea babestu edota zaharberritzeko lanak, dagokion araubidean ezarritakoaren arabera.

8. Lehentasunezko jarduketak:

- Ikerketa faunistikoa.
- Ehiza-ikerketa.
- Mendien antolamendu-proiektua.
- Zur-aprobetxamenduen urteko plana.
- Ehiza kudeatzeko plana.
- Bazkarako larreak erabili eta kudeatzeko plana.
- Ingurumena leheneratzeko proiektuak.
- Basoberritze-proiektuak.

2.2 Ingurumen-hobekuntzako araubidea

2.2.1 Araubide orokorra

**26. artikulua Ingurumen-honekuntzaren kategoriaren definizioa eta helburuak**

Kategoria honen zati dira balio ekologiko berezirik izan gabe ere, babes berezia duen esparruko gainerako elementuekin batera paisaia-unitatea osatzen duten kultura- eta paisaia-balioak dituzten eremuak. Zehazkiago, Santa Luzia auzoko, Palanka erreka (Ermuerrekako) eta Iñarrondo, Lorbide nahiz Urrutxu erreketako ikusmen-arroen zati dira.

Plan bereziaren barruan espazio horiek izango duten helburua izango da esparruko gainerako elementuekin batera ekologia-, paisaia- eta kultura-unitate baten zati bihurtzea, epe ertainera edo luzera.

Halaber, kategoria honek barne hartzen ditu Gorbeia zein Armañongo batasunaren intereseko lekuak elkartzeko dituen korridore ekologikoaren moteltze-eremuaren barruko Audio udalerriko eremuak. Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak 2005ean argitaratutako "Eusko Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarea" dokumentuaren bidez definitu zuen interes bereziko naturguneak (natur parkeak, Natura 2000 sarea) eta kontuan hartzeko tamaina duten beste landare-multzo autoktonoak elkarrekin lotzeko sarea. Sare horren helburua da eremu babestuak biodibertsitatea berreskuratzeko eta lurraldearen iraunkortasun orokorraren oinarriak ezartzeko funtsezko elementu gisa finkatzea.

Lurralde antolamendurako gidalerroetan, zehazkiago, 2012an hasierako onarpena jaso zuen aldatze-dokumentuan datoz jasota "Eusko Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarea" dokumentuak moteltze-eremuei dagokienez ezarrita dakartzan egiturazko helburuak:

Inpaktuak prebenitzea, landaredia naturaleko elementuak babestea eta, dagokionean, leheneratzea, nekazaritza-, basozaintza-, abeltzaintza- eta ehiza-aprobetxamenduen ustiapen iraunkorraz gain.

**27. artikulua Azpikategoriaren definizioak eta helburuak**

1. Kontserbazio aktiboa: natura-, kultura- edo paisaia-interes handiko unadak dituzten eremuak dira eta euren helburu nagusia balio horiei eustea eta horiek hobetzea da.

Lur hauek sartzen dira "kontserbazio aktiboa" kategorian:

- Iñarrondo erreka ezkerreko pago-unada (N5.01).
- Urrutxu erreka eta Iñarrondoren artean dagoen gaztainadi zaharra (N5.02).
- Ameztoi mendiaren iparraldeko mazelako gaztainadia (N5.05).

2. Progresio ekologikoa 2: espezie bakarreko landaketak dituzten mazeladun zonaldeak dira, erreken arroetako paisaiaren zati eta horiek epe luzera eraldatzea izango da xedea, plan bereziaren esparru osoa hartuko duen paisaia-unitatea osatzen laguntzeko.

Lur hauek sartzen dira "progresio ekologikoa 2" kategorian:

- Ameztoi mendiko ipar-mendebaldeko mazela (N6.02).
- Palanka erreken arroa (N6.03).
- Iñarrondo erreken arroa (N6.04).
- Dubirizetik Palanka erreka doazen mazelak (N6.06).

### **28. artikulua Esparru desberdinetan esku hartzeko araubidea**

Esparru desberdinetan esku hartzeko hiru kategoria ezarri dira; bakoitzak bere baldintzak eta mugapen zehatzak ditu, esku-hartzearen graduaren arabera:

1. Hobekuntza: kontserbatzeko eta hobetzeko egoki izan daitezkeen zenbait balio natural edota kultural azpimarragarri dituzten zonaldeak.

2. Leheneratzea: dagoen ekosistema leheneratzeko xedea duten esku-hartzeak, egungo nahiz etorkizuneko eraldaketak geldiarazteko.

3. Eraldaketa 3: espezie bakarreko zuhaitz-masa produktiboak dauzkaten zonaldeak dira. Bertan, eraldaketa bideratu beharko da epe luzera, Plan Bereziaren esparruaren barruan espezie autoktonoz osatutako baso-masa jarraitua lortu arte. Gutxienez, etorkizuneko baso-landaketetan erabiltzen diren landareen ehuneko 15 tokiko landaredia potentzialari dagozkion hostozabal autotoktonoak izan beharko dira. "progresio ekologikoa 2" azpikategoriari aplikatzen zaio.

#### 2.2.2 Esparruetako araubide zehaztua

### **29. artikulua Iñarrondo erreken ezkeraldeko pago-unada (N5.01)**

1. Esku hartzeko araubidea: hobekuntza.

2. Helburuak:

- Unada kontserbatu eta hobetzea, etorkizunean baso heldua eta orekatua izan dadin.

3. Bultzatu beharreko erabilerak:

a. Kontserbazioa.

b. Ingurumen-hobekuntza: basozaintzako hobekuntza-tratamenduak, lurzorua aldatu gabe.

4. Onartutako erabilerak:

- Aisia-erabilera estentsiboa.

– 3. artikuluko erabileren definizioan ezarritako segurtasun-distantzien murriztapenak errespetatuta.

– Abeltzaintza estentsibo arautua. Abereak baso-masetara bazkatzera eramateko (baso-abeltzaintza praktikatzeko), lurzatien jabeen esanbidezko baimen dokumentatua beharko da eta ezingo dira zuhaitzak edo euren birsorkuntza kaltetu.

Mendi publikoetan, Mendien Foru Arauaren arabera, ez da onartuko zuhaitzak dituzten lurzatietan ahuntzak bazkatzea, ez bada sastraka-belarrak modu kontrolatuan garbitzeko.

Ageriko higadura-arazoak dituzten zonaldeetan, abereak bazkatzea ekidingo da; abereak bertako pista eta bideetatik ibiltzea baino ez da onartuko.

Abeltzaintza debekatuta dago landaredia birsortzeko itxitako zonaldeetan.

Udal arauetan jasotako neguko etenaldiak errespetatuko dira.

– Baso-pistak: baso-pista berriak irekitzea debekatuta dago. Edonola ere, ingurumena hobetzeko egin behar den edozein lan egiteko, jada eginda dauden pistak erabili beharko dira. Ibilbide berdeak osatzeko eta larrialdi-zerbitzuak nahiz ingurumen-zaintzako zerbitzuak sartzeko ere erabili ahalko dira dagoeneko eginda dauden azpiegiturak.

Dagoeneko eginda dauden ateratze-bideetatik egin beharko da baso-aprobetxamenduetarako zur-ateratzea.

– Ibilbide berdeak.

– Basozaintza: txanda luzeko aprobetxamenduak ditzuten espezie autoktonoak lehenetsiko dira eta, gutxika-gutxika, zuhaitz-masa osoak errotik mozteari utziko zaio.

5. Debekatutako erabilerak: bultzatzen eta onartzen ez diren erabilerez gain, hauek:

– Edozein eraikuntza edo eraikuntza-erabilera.

6. Lehentasunezko esku-hartzeak:

– Gutxika-gutxika, autoktonoak ez diren espezieak kentzea (pinuak).

– Basoa hobetzeko eta birsortzen laguntzeko tratamenduak soilik nahitaezkoak badira. Ondoz ondoko mehaketa bidezko aprobetxamendu-mozketak. 100 edo 150 urteko txanda luzeak. Oreka bultzatzea masako adin-klaseei dagokienez. Espezie laguntzaileak ugaritzea (gereziondoak, lizarrak, urkiak, gurbeondoak, astigarrak, gorostiak, haginak eta abar).

– Batasunaren intereseko 9120 habitata duten zonaldeetan (pagadi azidofilo atlantikoak), habitat horretarako ezarri diren kudeaketa-gidalerroak aplikatu beharko dira (plan berezi honen barruan, memoriari dagokion atalean jaso dira).

7. Kontserbatu beharreko elementu espezifikoak:

– Batasunaren intereseko 9120 habitata (pagadi azidofilo atlantikoak).

8. Lehentasunezko jarduketak:

– Ikerketa faunistikoa.

– Ehiza-ikerketa.

– Mendien antolamendu-proiektua.

– Zur-aprobetxamenduen urteko plana.

– Ehiza kudeatzeko plana.

– Basoberritze-proiektuak.

### **30. artikulua Landatxuetako gaztainadi zaharra (N5.02)**

1. Esku hartzeko araubidea: leheneratzea.

2. Helburuak:

– Garai bateko gaztainondo basoen adibide bat lortzea, ibarreko jarduera ekonomiko garrantzitsua izan zenaren eredu didaktiko gisa.

3. Bultzatu beharreko erabilerak:

a. Kontserbazioa.

b. Ingurumen-hobekuntza: basozaintzako hobekuntza-lanak.

c. Elementu etnografikoak leheneratzea.

#### 4. Onartutako erabilerak:

– Aisia-erabilera estentsiboa, baina mendi-bizikletak debekatuta.

– 3. artikuluko erabileren definizioan ezarritako segurtasun-distantzien murriztapenak errespetatuta.

– Abeltzaintza estentsibo arautua. Abereak baso-masetara bazkatzera eramateko (baso-abeltzaintza praktikatzeko), lurzatiien jabeen esanbidezko baimen dokumentatua beharko da eta ezingo dira zuhaitzak edo euren birsorkuntza kaltetu.

Mendi publikoetan, Mendien Foru Arauaren arabera, ez da onartuko zuhaitzak dituzten lurzatietan ahuntzak bazkatzea, ez bada sastraka-belarrak modu kontrolatuan garbitzeko.

Ageriko higadura-arazoak dituzten zonaldeetan, abereak bazkatzea ekidingo da; abereak bertako pista eta bideetatik ibiltzea baino ez da onartuko.

Abeltzaintza debekatuta dago landaredia birsortzeko itxitako zonaldeetan.

Udal arauetan jasotako neguko etenaldiak errespetatuko dira.

– Ibilbide berdeak, bidexka berdeen kategorian:

Hau da O.03 planoan proposamen gisa jasotako ibilbide berdea:

– 4. ibilbidea: gaztainondoen bidexka berdea.

– Txanda luzeko aprobetxamenduak dituzten espezie autoktonoak lehenetsiko dira eta, gutxika-gutxika, zuhaitz-masa osoak errotik mozteari utziko zaio.

#### 5. Debekatutako erabilerak: bultzatzen eta onartzen ez diren erabilereiz gain, hauek:

– Edozein eraikuntza edo eraikuntza-erabilera.

#### 6. Lehentasunezko esku-hartzeak:

– Basozaintzako hobekuntza-tratamenduak, pinudian mehaketak egitea ordeztu arte, hostozabalak (gaztainondoa, espezie nagusi gisa) birsortzeko laguntzak eta espezie laguntzaileak ugaritzea.

– Batasunaren intereseko 9260 habitata (Castanea sativa espezieko basoa) duten zonaldeetan, habitat horretarako ezarri diren kudeaketa-gidalerroak aplikatu beharko dira (plan berezi honen barruan, memoriari dagokion atalean jaso dira).

– Ondarea eta elementu etnografikoak leheneratzeko lanak, bakoitza bere arau espezifikoekin bat.

#### 7. Kontserbatu beharreko elementu espezifikoak:

– Batasunaren intereseko 9260 habitata: Castanea sativa espezieko basoak.

#### 8. Lehentasunezko jarduketak:

– Ikerketa faunistikoa.

– Ehiza-ikerketa.

– Mendien antolamendu-proiektua.

– Zur-aprobetxamenduen urteko plana.

– Ehiza kudeatzeko plana.

– Basoberritze-proiektuak.

– Ingurumena leheneratzeko proiektuak.

– Ingurumen-egokitzeak egiteko proiektuak.

**31. artikulua Ameztoi mendiaren iparraldeko mazelako gaztainadia (N5.05)**

1. Esku hartzeko araubidea: hobekuntza.

2. Helburuak:

– Gaztainondo-masa kontserbatu eta hobetzea, horrelako formazioen adibide ona lortu arte.

3. Bultzatu beharreko erabilerak:

a. Kontserbazioa.

b. Ingurumen-hobekuntza: basozaintzako hobekuntza-lanak.

4. Onartutako erabilerak:

– Aisia-erabilera estentsiboa.

– 3. artikuluko erabileren definizioan ezarritako segurtasun-distantzien murriztapenak errespetatuta.

– Abeltzaintza estentsibo arautua. Abereak baso-masetara bazkatzera eramateko (baso-abeltzaintza praktikatzeko), lurzatien jabeen esanbidezko baimen dokumentatua beharko da eta ezingo dira zuhaitzak edo euren birsorkuntza kaltetu.

Mendi publikoetan, Mendien Foru Arauaren arabera, ez da onartuko zuhaitzak dituzten lurzatieetan ahuntzak bazkatzea, ez bada sastraka-belarrak modu kontrolatuan garbitzeko.

Ageriko higadura-arazoak dituzten zonaldeetan, abereak bazkatzea ekidingo da; abereak bertako pista eta bideetatik ibiltzea baino ez da onartuko.

Abeltzaintza debekatuta dago landaredia birsortzeko itxitako zonaldeetan.

Udal arauetan jasotako neguko etenaldiak errespetatuko dira.

– Baso-pistak: baso-pista berriak irekitzea debekatuta dago. Edonola ere, ingurumena hobetzeko egin behar den edozein lan egiteko, jada eginda dauden pistak erabili beharko dira. Ibilbide berdeak osatzeko eta larrialdi-zerbitzuak nahiz ingurumen-zaintzako zerbitzuak sartzeko ere erabili ahalko dira dagoeneko jadanik dauden azpiegiturak.

Dagoeneko eginda dauden ateratze-bideetatik egin beharko da baso-aprobetxamenduetarako zur-ateratzea.

– Ibilbide berdeak.

– Basozaintza: txanda luzeko aprobetxamenduak ditzuten espezie autoktonoak lehenetsiko dira eta, gutxika-gutxika, zuhaitz-masa osoak errotik mozteari utziko zaio.

– Aireko linea elektrikoak: dagoeneko badaudenak onartuko dira, betiere, lurzoruaren baldintzak edota espazioaren ezaugarri naturalak direla-eta, ezin badira eraman eginda dauden bideen azpira.

5. Debeekatutako erabilerak: Bultzatzen eta onartzen ez diren erabilerez gain, hauek:

– Edozein eraikuntza edo eraikuntza-erabilera.

6. Lehentasunezko esku-hartzeak:

– Basozaintzako hobekuntza-tratamenduak, pinudian mehaketak egitea ordeztu arte, hostozabalak (gaztainondoa, espezie nagusi gisa) birsortzeko laguntzak eta espezie laguntzaileak ugaritzea.

– Batasunaren intereseko 9260 habitata (*Castanea sativa* espezieko basoa) duten zonaldeetan, habitat horretarako ezarri diren kudeaketa-gidalerroak aplikatu beharko dira (plan berezi honen barruan, memoriari dagokion atalean jaso dira).

– Ondarea eta elementu etnografikoak leheneratzeko lanak, bakoitza bere arau espezifikoekin bat.

7. Kontserbatu beharreko elementu espezifikoak:

– Batasunaren intereseko 9260 habitata: Castanea sativa espezieko basoak.

8. Lehentasunezko jarduketak:

– Ikerketa faunistikoa.

– Ehiza-ikerketa.

– Mendien antolamendu-proiektua.

– Zur-aprobetxamenduen urteko plana.

– Ehiza kudeatzeko plana.

– Basoberritze-proiektuak.

– Ingurumena leheneratzeko proiektuak.

– Ingurumen-egokitzeak egiteko proiektuak.

### **32. artikulua Ameztoi mendiko ipar-mendebaldeko mazela (N6.02)**

1. Esku hartzeko araubidea: eraldaketa III.

2. Helburuak:

– Epe luzera espezie autoktonoz osatutako masa bihurtzea, babes-funtzioak hobetzeko, biodibertistatea handitzeko eta kalitate handiagoko paisaia lortzeko.

3. Bultzatu beharreko erabilerak:

b. Ingurumen-hobekuntza: basozaintza-tratamenduak eta baso-aprobetxamenduak.

4. Onartutako erabilerak:

– Aisia-erabilera estentsiboa.

– 3. artikuluko erabileren definizioan ezarritako segurtasun-distantzien murriztapenak errespetatuta.

– Abeltzaintza estentsibo arautua. Abereak baso-masetara bazkatzera eramateko (baso-abeltzaintza praktikatzeko), lurzatiaren jabeen esanbidezko baimen dokumentatua beharko da eta ezingo dira zuhaitzak edo euren birsorkuntza kaltetu.

Mendi publikoetan, Mendien Foru Arauaren arabera, ez da onartuko zuhaitzak dituzten lurzatiaren ahuntzak bazkatzea, ez bada sastraka-belarrak modu kontrolatuan garbitzeko.

Ageriko higadura-arazoak dituzten zonaldeetan, abereak bazkatzea ekidingo da; abereak bertako pista eta bideetatik ibiltzea baino ez da onartuko.

Abeltzaintza debekatuta dago landaredia birsortzeko itxitako zonaldeetan.

Udal arauetan jasotako neguko etenaldiak errespetatuko dira.

– Landa-bideak: bidezaintza-antolamenduen O.03 planoan jasotako landa-bideak soilik. Gainerako eremuetan debekatuta dago.

– Baso-pistak: baso-pista berriak irekitzea debekatuta dago. Edonola ere, ingurumena hobetzeko egin behar den edozein lan egiteko, jada eginda dauden pistak erabili beharko dira. Ibilbide berdeak osatzeko eta larrialdi-zerbitzuak nahiz ingurumen-zaintzako zerbitzuak sartzeko ere erabili ahalko dira dagoeneko jadanik dauden azpiegiturak.

Dagoeneko eginda dauden ateratze-bideetatik egin beharko da baso-aprobetxamenduetarako zur-ateratzea.

– Ibilbide berdeak.

– Basozaintza: metodo iraunkorren bidezko baso-aprobetxamenduak, betiere, esku hartzeko "eraldaketa 3" araubidea errespetatuta: gutxienez, etorkizuneko baso-landaketetan erabiltzen diren landareen ehuneko 15 tokiko landaredia potentzialari dagozkion hostozabalak izan beharko dira.

– Aireko linea elektrikoak: dagoeneko badaudenak onartuko dira, betiere, lurzoruaren baldintzak edota espazioaren ezaugarri naturalak direla-eta, ezin badira eraman eginda dauden bideen azpira.

5. Debekatutako erabilerak: bultzatzen eta onartzen ez diren erabilerez gain, hauek:

– Edozein eraikuntza edo eraikuntza-erabilera.

6. Lehentasunezko esku-hartzeak:

– Hobekuntzarako basozaintza-tratamenduak, bakanketa autofinantziagarriak zein ez-autofinantziagarriak pinudietan eta hostozabalak birsortzeko laguntza.

7. Onartutako esku-hartzeak:

– Txanda ertain eta luzeetan kalitatezko zura lortzeko esperimentazioa hostozabalekin.

– Basoko beste produktu batzuk lortzeko basozaintza (biomasa, perretxikoak, ehiza etab.) Babes- eta aisia-erabileretarako basozaintza.

8. Lehentasunezko jarduketak:

– Ikerketa faunistikoa.

– Ehiza-ikerketa.

– Mendien antolamendu-proiektua.

– Zur-aprobetxamenduen urteko plana.

– Ehiza kudeatzeko plana.

– Basoberritze-proiektuak.

### **33. artikulua Palanka errekaen arroa (Aldai) (N6.03)**

1. Esku hartzeko araubidea: eraldaketa III.

2. Helburuak:

– Epe luzera espezie autoktonoz osatutako masa bihurtzea, babes-funtzioak hobetzeko, biodibertistatea handitzeko eta kalitate handigoko paisaia lortzeko.

3. Bultzatu beharreko erabilerak:

b. Ingurumen-hobekuntza: basozaintza-tratamenduak eta baso-aprobetxamenduak.

4. Onartutako erabilerak:

– Aisia-erabilera estentsiboa.

– Aisia-erabilera intentsiboa, baina eraikuntza mota guztiak debekatuta.

– 3. artikuluko erabileren definizioan ezarritako segurtasun-distantzien murriztapenak errespetatuta.

– Abeltzaintza estentsibo arautua. Abereak baso-masetara bazkatzera eramateko (baso-abeltzaintza praktikatzeko), lurzatiaren jabeen esanbidezko baimen dokumentatua beharko da eta ezingo dira zuhaitzak edo euren birsorkuntza kaltetu.

Mendi publikoetan, Mendien Foru Arauaren arabera, ez da onartuko zuhaitzak dituzten lurzatiaren ahuntzak bazkatzea, ez bada sastraka-belarrak modu kontrolatuan garbitzeko.

Ageriko higadura-arazoak dituzten zonaldeetan, abereak bazkatzea ekidingo da; abereak bertako pista eta bideetatik ibiltzea baino ez da onartuko.

Abeltzaintza debekatuta dago landaredia birsortzeko itxitako zonaldeetan.

Udal arauetan jasotako neguko etenaldiak errespetatuko dira.

– Baso-pistak: baso-pista berriak irekitzea debekatuta dago. Edonola ere, ingurumena hobetzeko egin behar den edozein lan egiteko, jada eginda dauden pistak erabili beharko dira. Ibilbide berdeak osatzeko eta larrialdi-zerbitzuak nahiz ingurumen-zaintzako zerbitzuak sartzeko ere erabili ahalko dira dagoeneko jadanik dauden azpiegiturak.

Dagoeneko eginda dauden ateratze-bideetatik egin beharko da baso-aprobetxamenduetarako zur-ateratzea.

– Ibilbide berdeak.

– Basozaintza: metodo iraunkorren bidezko baso-aprobetxamenduak, betiere, esku hartzeko "eraldaketa 3" araubidea errespetatuta: gutxienez, etorkizuneko baso-landaketetan erabiltzen diren landareen ehuneko 15 tokiko landaredia potentzialari dagozkion hostozabalak izan beharko dira.

– Dagoeneko badauden aireko zein lur azpiko linea elektrikoak, betiere, jadanik egindako bideetatik badoaz, ez badago aukerarik linea esparrutik kanpo ateratzeko, interes publikoa badago eta ez badago ordezko hornitze aukera iraunkorrik.

5. Debekatutako erabilerak: bultzatzen eta onartzen ez diren erabilereiz gain, hauek:

– Edozein eraikuntza edo eraikuntza-erabilera.

6. Lehentasunezko esku-hartzeak:

– Hobekuntzarako basozaintza-tratamenduak, bakanketa autofinantziagarriak zein ez-autofinantziagarriak pinudietan eta hostozabalak birsortzeko laguntza.

7. Lehentasunezko jarduketak:

– Ikerketa faunistikoa.

– Ehiza-ikerketa.

– Mendien antolamendu-proiektua.

– Zur-aprobetxamenduen urteko plana.

– Ehiza kudeatzeko plana.

– Basoberritze-proiektuak.

### **34. artikulua Iñarrondo errekaaren artoa (N6.04)**

1. Esku hartzeko araubidea: eraldaketa III.

2. Helburuak:

– Epe luzera espezie autoktonoz osatutako masa bihurtzea, babes-funtzioak hobetzeko, biodibertistatea handitzeko eta kalitate handiagoko paisaia lortzeko.

### 3. Bultzatu beharreko erabilerak:

b. Ingurumen-hobekuntza: basozaintza-tratamenduak eta baso-aprobetxamenduak.

### 4. Onartutako erabilerak:

– Aisia-erabilera estentsiboa.

– Aisia-erabilera intentsiboa, baina eraikuntza mota guztiak debekatuta.

– 3. artikuluko erabileren definizioan ezarritako segurtasun-distantzien murriztapenak errespetatuta.

– Abeltzaintza estentsibo arautua. Abereak baso-masetara bazkatzera eramateko (baso-abeltzaintza praktikatzeko), lurzatiaren jabeen esanbidezko baimen dokumentatua beharko da eta ezingo dira zuzenak edo euren birsorkuntza kaltetu.

Mendi publikoetan, Mendien Foru Arauaren arabera, ez da onartuko zuzenak dituzten lurzatiaren ahuntzak bazkatzea, ez bada sastraka-belarrak modu kontrolatuan garbitzeko.

Ageriko higadura-arazoak dituzten zonaldeetan, abereak bazkatzea ekidingo da; abereak bertako pista eta bideetatik ibiltzea baino ez da onartuko.

Abeltzaintza debekatuta dago landaredia birsortzeko itxitako zonaldeetan.

Udal arauetan jasotako neguko etenaldiak errespetatuko dira.

– Landa-bideak: bidezaintza-antolamenduaren 0.03 planoan jasotakoak soilik. Gainerako eremuetan debekatuta dago.

– Baso-pistak: baso-pista berriak irekitzea debekatuta dago. Edonola ere, ingurumena hobetzeko egin behar den edozein lan egiteko, jada eginda dauden pistak erabili beharko dira. Ibilbide berdeak osatzeko eta larrialdi-zerbitzuak nahiz ingurumen-zaintzako zerbitzuak sartzeko ere erabili ahaliko dira dagoeneko jadanik dauden azpiegiturak.

Dagoeneko eginda dauden ateratze-bideetatik egin beharko da baso-aprobetxamenduetarako zur-ateratzea.

– Ibilbide berdeak.

– Basozaintza: metodo iraunkorren bidezko baso-aprobetxamenduak, betiere, esku hartzeko "eraldaketa 3" araubidea errespetatuta: gutxienez, etorkizuneko baso-landaketetan erabiltzen diren landareen ehuneko 15 tokiko landaredia potentzialari dagozkion hostozabalak izan beharko dira.

– Dagoeneko badauden aireko zein lur azpiko linea elektrikoak, betiere, jadanik egindako bideetatik badoaz, ez badago aukerarik linea esparrutik kanpo ateratzeko, interes publikoa badago eta ez badago ordezko hornitze aukera iraunkorrik.

### 5. Debekatutako erabilerak: bultzatzen eta onartzen ez diren erabilerez gain, hauek:

– Edozein eraikuntza edo eraikuntza-erabilera.

### 6. Lehenetsutako esku-hartzeak:

– Hobekuntzarako basozaintza-tratamenduak, bakanketa autofinantziagarriak zein ez-autofinantziagarriak pinudietan eta hostozabalak birsortzeko laguntza.

### 7. Onartutako esku-hartzeak:

– Ondareko elementuak leheneratzeko lanak, kasuan kasuko araubide zehaztuaren arabera.

### 8. Lehenetsutako jarduketak:

– Ikerketa faunistikoa.

- Ehiza-ikerketa.
- Mendien antolamendu-proiektua.
- Zur-aprobetxamenduen urteko plana.
- Ehiza kudeatzeko plana.
- Basoberritze-proiektuak.

### **35. artikulua Dubirizetik Palanka errekarra doazen mazelak (N6.06)**

1. Esku hartzeko araubidea: eraldaketa III.

2. Helburuak:

– Epe luzera espezie autoktonoz osatutako masa bihurtzea, babes-funtzioak hobetzeko, biodibertistatea handitzeko eta kalitate handiagoko paisaia lortzeko.

3. Bultzatu beharreko erabilerak:

c. Ingurumen-hobekuntza: basozaintza-tratamenduak eta baso-aprobetxamenduak.

4. Onartutako erabilerak:

– Aisia-erabilera estentsiboa.

– 3. artikuluko erabileren definizioan ezarritako segurtasun-distantzien murriztapenak errespetatuta.

– Abeltzaintza estentsibo arautua. Abereak baso-masetara bazkatzera eramateko (baso-abeltzaintza praktikatzeko), lurzatiaren jabeen esanbidezko baimen dokumentatua beharko da eta ezingo dira zuzenak edo euren birsorkuntza kaltetu.

Mendi publikoetan, Mendien Foru Arauaren arabera, ez da onartuko zuzenak dituzten lurzatiaren ahuntzak bazkatzea, ez bada sastraka-belarrak modu kontrolatuan garbitzeko.

Ageriko higadura-arazoak dituzten zonaldeetan, abereak bazkatzea ekidingo da; abereak bertako pista eta bideetatik ibiltzea baino ez da onartuko.

Abeltzaintza debekatuta dago landaredia birsortzeko itxitako zonaldeetan.

Udal arauetan jasotako neguko etenaldiak errespetatuko dira.

– Landa-bideak: bidezaintza-antolamenduaren O.03 planoan jasotakoak soilik. Gainerako eremuetan debekatuta dago.

– Baso-pistak: baso-pista berriak irekitzea debekatuta dago. Edonola ere, ingurumena hobetzeko egin behar den edozein lan egiteko, jada eginda dauden pistak erabili beharko dira. Ibilbide berdeak osatzeko eta larrialdi-zerbitzuak nahiz ingurumen-zaintzako zerbitzuak sartzeko ere erabili ahalko dira dagoeneko jadanik dauden azpiegiturak.

Dagoeneko eginda dauden ateratze-bideetatik egin beharko da baso-aprobetxamenduetarako zur-ateratzea.

– Ibilbide berdeak.

– Basozaintza: metodo iraunkorren bidezko baso-aprobetxamenduak, betiere, esku hartzeko "eraldaketa 3" araubidea errespetatuta: gutxienez, etorkizuneko baso-landaketetan erabiltzen diren landareen ehuneko 15 tokiko landaredia potentzialari dagozkion hostozabalak izan beharko dira.

– Dagoeneko badauden aireko zein lur azpiko linea elektrikoak, betiere, jadanik egindako bideetatik badoaz, ez badago aukerarik linea esparrutik kanpo ateratzeko, interes publikoa badago eta ez badago ordezko hornitze aukera iraunkorrik.

5. Debekatutako erabilerak: bultzatzen eta onartzen ez diren erabilerez gain, hauek:

- Edozein eraikuntza edo eraikuntza-erabilera.

6. Lehentasunezko esku-hartzeak:

- Hobekuntzarako basozaintza-tratamenduak, bakanketa autofinantziagarriak zein ez-autofinantziagarriak pinudietan eta hostozabalak birsortzeko laguntza.

7. Lehentasunezko jarduketak:

- Ikerketa faunistikoa.
- Ehiza-ikerketa.
- Mendien antolamendu-proiektua.
- Zur-aprobetxamenduen urteko plana.
- Ehiza kudeatzeko plana.
- Basoberritze-proiektuak.

2.3 Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabal-eremuko araubidea

2.3.1 Araubide orokorra

### **36. artikulua: nekazaritza, abeltzaintza eta landazabal-eremuaren definizioa eta helburuak**

Kategoria honetako eremuen kasuan, elkarrekin nahastuta egoten dira nekazaritza-, abeltzaintza- eta basozaintza-erabilerak eta txandakatu egin daitezke, besteak beste, merkatuaren bilakaeraren, nekazaritzaz kanpoko eskariaren (turismoa eta aisialdia), nekazari aktiboak egotearen eta abarren arabera.

Euskal Herriko paisaiaren funtsezko zati dira eremuok, edertasun handikoak, erabilera eta landare mota desberdinez osatutako mosaiko modukoa direlako, sasi biziz egindako landaresi batez inguratuta eta paisaian integratutako eraikuntza txiki gutxi batzuekin.

Ingurumen-hobekuntzako kategorian dauden espazioak bezalaxe, hauek ere “Euskal Autonomia Erdidegoko korridore ekologikoen sarean” jasotako moteltze-eremuaren barruan daude eta, beraz, egiturazko helburu berberak izango dituzte:

Inpaktuak prebenitzea, landaredia naturaleko elementuak babestea eta, dagokionean, leheneratzea, nekazaritza-, basozaintza-, abeltzaintza- eta ehiza-aprobetxamenduen ustiapen iraunkorraz gain.

### **37. artikulua Azpikategorien definizioak eta helburuak**

1. Trantsizioko landa-paisaia: malda handiek eta baso-zonaldeekiko mugakide izateak baldintzatzen du kategoria honen barruan sartutako lurzoruen nekazaritza-gaitasuna. Larrez eta baso-unada txikiz osatutako mosaiko antzeko eremuak ere kategoria honetan sartzen dira.

Kategoria hau definitzen duen nekazaritza eta basozaintzako lurralde plan sektorialaren arabera, kontrolatu egin beharko dira balio handiko lurzoruak okupatzeko joera duten eraikuntza-prozesuak eta azpiegitura-instalazioak.

Lur hauek sartzen dira “trantsizioko landa-paisaia” kategorian:

- Lusurbei baserriaren ingurunea (N4.01).
- Isusiko paisaia (N4.02) eta Isusiko multzo tradizionala.
- Dubirizeko paisaia (N4.03) eta Dubirizeko multzo tradizionala.
- Iñarrondo errearen eskuinaldeko larredia (N4.04).
- Lezeagako zelaia (N4.05).

**38. artikulua Esparru desberdinetan esku hartzeko araubidea**

Esparru desberdin guztietarako esku-hartze mota bakarria ezarri da:

1. Paisaia kontserbatzea: paisaia-balio handiko eremuak dira, baserrien inguruko laborantza-eremuen, larreen eta baso-aprobetxamenduen mosaiko itxurakoa. Mosaiko zatiak elkarrekin lotuta daude sasi biziz egindako landaresi bidez eta balio ekologiko handiko zuhaitz autoktonoz osatutako basotxoek bidez.

Paisaia kontserbatzeko lotutako giza jarduerari eutsi behar zaie eta balio ekologikoa duten elementuetan oinarritutako morfologia babestu behar da. Horrela, pasaiaren egitura, testura eta elementu bereziak ere babestuko dira, O.05 eta O.06 planoetan eta jarraian azalduko den artikuluan ezarritakoarekin bat: paisaian esku hartzeko irizpideak.

**39. artikulua Paisaian esku hartzeko irizpideak**

Kategoria honen barruan esku hartzeko, beharrezkoa izango da paisaia-ikerketa baten bidez frogatzea paisaiaren oinarritzko integrazio-baldintzak bete direla eta lurraldeko ikusizko egituraren elementu garrantzitsuenak errespetatu direla. Horretarako, irizpide orokor hauek beteko dira paisaia babesteari dagokionez:

1. Ez eraldatzea Isusi antolatzeke O.05 planoan nahiz Dubiriz antolatzeke O.06 planoetan jasotako paisaia-egitura, ezta elementu bereziak ere eta, beraz, egitura eta elementuak ikusgai izatea eta inguruneke ikusizko erreferentzia gisa duten garrantzia indartzea.

2. Ez eraldatzea malda naturala.

3. Debekatuta dago eraikuntza berriak eraiki eta instalatzea elementu gailenetan zein mendi gailurretan.

4. Dauden elementu topografikoei eustea eta eragozteak mazelak nahiz erliebearen irtenguneak kentzea, ubide naturalak estaltzea, hormak, baratze-mailak, zuhaitz edota landaresi bizen lerrotatzeak, bide tradizionalak eta abarrak desagertzea.

5. Aurretik zeuden baso autoktonoetako landare-zuhaitzei beren horretan eustea.

6. Debekatuta daude ikusmira oztopatu edota paisaiako elementu bereziak ezkuta ditzaketen jarduketak, batez ere, multzo tradizionalak antolatzeke O.05 eta O.06 planoetan V puntu fokal gisa identifikatu diren eremuetan.

7. Itxiturak eta hesiak gauzatzea, II. kapituluaren ezarritakoarekin bat. Urbanizazioa.

**40. artikulua Nekazaritza edota abeltzaintza-erakin berritarako eraikuntza-baldintzak**

1. Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerekin lotutako eraikinak: Eraikin berriak eraikitzeke, egiaztatu egin behar da titularrak nekazaritza- edo abeltzaintza-ekoizleak direla eta instalazioek kasu bakoitzean indarrean dauden arau aplikagarriak beteko dituztela. Edonola ere, nekazaritza sailen barruan eskumena duten zerbitzuek aldeko txostena eman behar dute nekazaritza- edota abeltzaintza-jarduerarekin lotutako edozein eraikin eraiki aurretik. Hasiera batean planteatutako erabilera baino ezingo zaie eman. Erabilera aldatzeke, dagokion lizentzia izapidetu behar da.

2. Lurzati hartzailearen gutxieneke azalera: eremurako definitu den gutxieneke laborantza-unitatea 1 hektareakoa da. Eraikin nagusia daukan lurzatiaren barruan kokatutako dira nekazaritza- edo abeltzaintza-jarduerarekin lotutako eraikin txikiagoak, esaterako, siloak, minda-putzuak eta abar. Ez da onartutako eragindako lurzatiak bereiztea, baldin eta emaitza gisa gutxieneke laborantza-unitatea baino lurzati edo jabego txikiagoak lortzen badira, ez bada bermatzen bereizketatik eratorritako lurzatiak jadanik badauden beste nekazaritza-ustiagunee-tara atxikiko zaizkiela.

3. Eraikinaren neurriak: Plan bereziaren barruan sartutako eraikin tradizionalen eraikuntza-tipologiara moldatu beharko dira eraikin berrien bolumetria nahiz konfigurazio orokorra. Eraikinaren gehieneko okupazioa eta aurreikusi den edo jadanik martxan dagoen ustiagunea (edo erabilera) proportzionalak direla zainduko da. Debehatuta daude 20 metrotik gorako luzera duten eraikinak.

4. 39. artikuluan ezarritakoak, hau da, "paisaia esku hartzeko irizpideak" bete beharko dira.

#### **41. artikulua Nekazaritza edota abeltzaintza-ustiaguneari lotutako etxebizitzaren baldintzak**

1. Baimena lortu ahal izateko, ustiaguneari lotuta egon beharko dute eta ustiaguneko titularren ohiko etxebizitza izan beharko dute etxebizitza-eraikin berriek.

2. Dagoeneko martxan dauden nekazaritza-ustiaguneei lotutako etxebizitzaren kasuan, nekazaritza eta abeltzaintzako lurraldeko plan sektorialean ageri diren justifikazio guztiak aurkeztu beharko dira, dagokion egikaritze-proiektuaz gain.

– Ustiagunea Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiaguneei erregistroan inskribatu izana frogatzeko agiria.

– Ustiaguneei jabe goaren barruko lurzatiaren gutxieneko azalera 1 hektarea izatea.

– Nekazaritza-jardueraren justifikazio fiskala.

– Bideragarritasun- eta lotura-ikerketa, frogatuta uzteko titularraren nekazaritza-ustiaguneei lanbide arteko gutxieneko soldata bezainbesteko etekinak edo soldata hori gaintzen duten etekinak lortzeko moduko neurri ekonomikoa duela eta, gutxienez, nekazaritzako lan-unitate baten pareko familia-eskulana hartzen duela.

– Eskatzaileak nekazaritzaren alorrean duen gaikuntzaren egiaztagiria aurkeztea, esaterako, nekazaritzaren alorreko titulazio akademikoa, gaikuntza-ikastaroetara bertaratu izanaren forgiak edo eskarmentu-urteak frogatzeko dokumentazioa.

3. Dagoeneko baserriak eraikita dituzten lurzatietan, debehatuta dago oin berriko etxebizitzak eraikitzea. Hortaz, nahitaezkoa izango da baserriok birgaitu edota berreraikitzea Eraikitako Ondareari buruzko 3.3 atalean baserrietan esku hartzeko ezarri diren baldintzen arabera, 2/2006 Legean xedatutakoarekin bat eta nekazaritza eta basozaintzako lurraldeko plan sektorialean jaso diren baldintza hauei jarraitzea:

– Gehienez ere, baserri motako eraikin bakoitzean bi (2) etxebizitza ipini ahal dira.

– Etxebizitza gisa erabiliko diren eraikinak birgaitzean edo osoko berritzean, barne-antolamendua arrazionalizatzearaz gain, alboko etxolak, atxikitako eraikin prekarioak eta estalpeak kendu beharko dira, eraikinaren eta ingurunearen konfigurazioa eta itxura orokorki hobetzeko. Horretarako egiten diren lanetan, eraikinaren funtsezko ezaugarriei eutsi beharko zaie, baita arkitektura- edota historia-balioei ere, baldin balitu. Lanek kanpoko elementuei eragingo badiete, lehentasuna emango zaie landa-eraikin tradizionalak berezko dituzten materialei. Aurretik zegoen eraikina handitu behar den kasuetan, material berberak erabili beharko dira.

– Nekazaritza- edota abeltzaintza-lanetarako tokiak eraikin independente batean ipini beharko dira edo, bestela, beheko solairutik teilatu-gailurrera doan horma bertikal isolagarri baten bidez bereizi beharko dira. Baserria berreraiki behar den kasuetan, ikuilua nahitaez jarri beharko da bereizitako eraikin independente batean.

4. Salbuespen gisa, nekazaritza-ustiagune bati lotutako etxebizitza osagarria izan dadin familia bakarreko edo bi familiako eraikin berri eta bakar bat egin ahal izateko, eraikin berriak bat etorri beharko du, bolumetriari eta konfigurazio orokorrari dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eraikin tradizionalen eraikuntza-tipologiekin, honako kasu hauetan:

b. Ustiaguneko lurretan etxebizitzarik ez badago.

c. Baserrian lan egiten duten eta, aipatu baserrian bigarren etxebizitza egiteko leku nahikoa ez dagoenean, bertan jarraitzeko asmoa duten seme-alaba jaraunsleek familia berria egiten badute; udal-arkitektoaren aurretiko txostenak bermatuko du kontu hori.

Eskritura publikoan egiaztatuko da nekazari gazteak nekazaritzako ustiagunean jarraitzen duela, indarrean dauden legeen arabera, honako modalitate juridiko hauen bitartez:

i) Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide zibilar buruzko Legea aldatzeko 3/1999 Legeak babestutako oinordetza-ituna.

ii) Nekazari gazteak ustiagunearen titularkidetasuna eskuratzea, nekazaritzako ustiaguneak modernizatzeke 1995eko uztailaren 4ko 19/1995 Legean xedatutakoarekin bat, aldi berean honako baldintza hauek betetzen badira:

– Titularrak eta nekazari gazteak erabakitzea azken horrek gerentziaren erantzukizuna, ustiapenaren emaitza ekonomikoak, haren kudeaketari loturiko arriskuak eta bertan egiten diren inbertsioak bere gain hartuko dituela 100eko 50eko gutxieneko proportzioan. Akordio horrek gutxienez sei (6) urte iraun beharko du.

– Titularrak nekazari gazteari eskualdatzea bere jabetzaren herena gutxienez, ustiagunea osatzen duten elementuei dagokienez; haien erabilerak eta aprobetxamenduak ustiagunean sartuta jarraituko dute.

iii) Ustiagunearen jabetza osoa edo biziarteko gozamenaren salerosketa edo dohaintza.

Aurreko paragrafoetan jasotako kasu guztietan, Arabako Lurralde Historikoko ustiaguneen erregistroan nekazaritza ustiagunearen titular gisa inskribatuta egongo dira proiektatutako etxebizitza berrien erabiltzaileak, gutxienez, hiru (3) urteko antzinatasuna izan beharko dute nekazaritza ustiagunean. Hori justifikatzeko, aldi berean aurkeztu beharko dituzte nekazaritza ustiaguneen erregistroko inskripzioa, bertan jarraitzearen ziurtagiria eta azken hiru (3) ekitaldian pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan izandako nekazaritza-etekinen aitorpena. Gainera, nekazaritzaren alorreko prestakuntza profesionala egiaztatu beharko dute, terminoen glosarioan ezarritakoarekin bat. Aurkeztutako azkeneko errenta-aitorpenean, eskatzaileak diru-sarrera arrunten ehuneko 50 baino gehiago baratzezaintzako edo abelazkuntzako ustegiategitik lortu dituela.

Nekazaritza-ustiagunearen ekoizpen-dimentsioa behar adinakoa izango da ustiaguneko etxebizitza guzti-guztietan justifikatzeko (bai eta lehenagoko baserrian daudenetan eta aurreikusitako berrietan ere) gutxienez nekazaritzako lan-unitate bat okupatzen dela eskulanean, eta lortzen den marjina garbia azken hiru urteetako lanbide-arteke gutxieneko soldataren parekoa dela.

Halaber, lurzoru urbanizaezinean bizitegi-erabilerarako eraikuntza-obra baimentzen dituzten lizentziek legezko baldintza bat bete behar dute: erabilera hori dagokion ustiaguneari edo landa-garapenaren berezko beste erabilera batzuei lotuta mantentzea, gutxienez, 25 urteko epean eta modu jarraitu eta etengabe.

Hirigintzari zein erregistroari dagokionez, baimentzen den eraikuntzari lotuta egongo dira nekazaritza- edo abeltzaintza-erabilerekiko lotura egiaztatzeke balio duten lurzatiak.

Aurreikusitako egoera guztietan, egingo diren lanek eraikinaren funtsezko ezaugarriei eutsi beharko diete, baita arkitektura- edota historia-balioei ere, baldin balitu. Halaber, nekazaritza- edota abeltzaintza-lanetarako tokiak beheko solairutik teilatu-gailurrera doan horma bertikal isolagarri baten bidez bereizi beharko dira etxebizitzatik. Ahal bada, eraikin independente batean ipiniko dira. Salbuespen kasuetan soilik erabiliko dira etxebizitza gisa abeltegien gainean kokatutako gelak.

### 2.3.2 Esparruetako araubide zehaztua

**42. artikulua Lusurbei baserriaren ingurunea (N4.01)**

1. Esku hartzeko araubidea: paisaia kontserbatzea
2. Helburuak:
  - Erabilera tradizionalak eta horiei lotutako paisaia babestea.
3. Bultzatu beharreko erabilerak:
  - a. Nekazaritza. Erabilera horrekin lotutako eraikin orok bete beharko ditu “nekazaritza- eta abeltzaintza-eraikin berrien eraikuntza-baldintzak” artikuluko baldintzak.
  - b. Abeltzaintza estentsiboa.
  - c. Ingurumen-hobekuntza: birsortzeko laguntzak.
4. Onartutako erabilerak:
  - Kontserbazioa.
  - Aisia-erabilera estentsiboa.
  - Aisialdi intentsiboa.
  - Abeltzaintza intentsiboa. Erabilera horrekin lotutako eraikin orok bete beharko ditu “nekazaritza- eta abeltzaintza-eraikin berrien eraikuntza-baldintzak” artikuluko baldintzak.
  - Landa-bideak.
  - Bidezaintza-antolamenduaren O.03 planoan jasotako baso-pistak, aurretik bazeudenak. Debekatuta dago pista berriak irekitzea.
  - Ibilbide berdeak.
  - Basozaintza: basozaintza-aprobetxamenduak, espezie aloktonoek hartutako azalera handitu gabe.
  - Aurretik bazeuden aireko argindar-lineak eta lur azpikoak, betiere, dagoeneko bazeuden bideetatik badoaz.
  - Erabilera publikoa edota gizarte-interesa duten eraikinak.
  - Nekazaritza-ustiagune bati lotutako bizitegi-erabilera isolatua, betiere, hemen jasotako araei jarraituta.
  - Bizitegi-erabilera eraikita zegoen baserrian.
  - “Paisaian esku hartzeko irizpideak” artikulua bete beharko da edozein eraikin, eraikuntza-erabilera, zabalkuntza, bide-irekitze eta egindako bideen edota azpiegitura osagarrien gaineko esku-hartze bideratzeko.
5. Debekatutako erabilerak: bultzatzen eta onartzen ez diren erabilera guztiak.
6. Lehentasunezko esku-hartzeak:
  - Artadia birsortzeko garbiketak eta tratamenduak.
7. Lehentasunezko jarduketak:
  - Artadiaren birsorkuntzaren inguruko berriazko ikerketa.
  - Mendien antolamendu-proiektua.
  - Bazkarako larreak erabili eta kudeatzeko plana.
  - Basoberritze-proiektuak.
  - Ingurumen-egokitzeak egiteko proiektuak.

**43. artikulua Isusiko paisaia (N4.02)**

1. Esku hartzeko araubidea: paisaia kontserbatzea

2. Helburuak:

– Jarduera ekonomiko tradizionalei eta aprobetxamenduei eustea, landa-biztanleria natura-ingurunean integratuta izateko aukera ematen baitute.

– Paisaiaren egitura kontserbatzea.

3. Bultzatu beharreko erabilerak:

a. Nekazaritza. Erabilera horrekin lotutako eraikin orok bete beharko ditu “nekazaritza- eta abeltzaintza-eraikin berrien eraikuntza-baldintzak” artikuluko baldintzak eta, horrez gain, multzo tradizionalaren eremuaren barruan egon beharko du.

b. Abeltzaintza estentsiboa.

d. Abeltzaintza intentsiboa. Erabilera horrekin lotutako eraikin orok bete beharko ditu “nekazaritza- eta abeltzaintza-eraikin berrien eraikuntza-baldintzak” artikuluko baldintzak eta, horrez gain, multzo tradizionalaren eremuaren barruan egon beharko du.

c. Ingurumen-hobekuntza: basozaintzako hobekuntza-lanak eta basoberritzeak.

4. Onartutako erabilerak:

– Kontserbazioa.

– Aisia-erabilera estentsibo eta intentsiboa.

– Ehiza-jarduerak: debekatuta dago lege hauetan jasotako segurtasun-eremuetan: Arabako Lurralde Historikoko ehizari buruzko 8/2004 Foru Araua, ekainaren 14koa, Euskadiko ehizari buruzko 2/2011 Legea, martxoaren 17koa eta plan berezi honen barruan “lurzoruaren erabileren definizioa” artikuluan berariaz jasotakoak.

– Landa-bideak.

– Bidezaintza-antolamenduaren O.03 planoan jasotako baso-pistak, aurretik bazeudenak. Debeekatuta dago pista berriak irekitzea.

– Ibilbide berdeak.

– Basozaintza: basozaintza-aprobetxamenduak, espezie aloktonoek hartutako azalera handitu gabe.

– Aurretik bazeuden aireko argindar-lineak eta lur azpikoak, betiere, dagoeneko bazeuden bideetatik badoaz.

– Erabilera publikoa edota gizarte-interesa duten eraikinak.

– Nekazaritza-ustiagune bati lotutako bizitegi-erabilera isolatua, betiere, arau honen artikuluko espezifikoarekin bat eta soil-soilik multzo tradizionalaren eremuaren barruan.

– Bizitegi-erabilera eraikita zegoen baserrian.

– “Paisaian esku hartzeko irizpideak” artikulua bete beharko da edozein eraikin, eraikuntza-erabilera, zabalkuntza, bide-irekitze eta egindako bideen edota azpiegitura osagarrien gaineko esku-hartze bideratzeko.

5. Debeekatutako erabilerak: bultzatzen eta onartzen ez diren erabilera guztiak.

6. Lehentasunezko esku-hartzeak:

– Baso-kudeaketa: bakanketak eta garbiketak baso naturaleko unadetan, birsortzeko laguntzak.

– Ondareko elementuak babesteko edota leheneratzeko lanak, hemen jasotako arauekin bat.

– Ingurukoarekin bat ez datozen etxolak eta elementu osagarriak kentzea eta garbitzea, ez badute betetzen “paisaian esku hartzeko irizpideak” artikuluan xedatutakoa.

– Batasunaren intereseko 6510 habitata (altitude baxuetako sega-belardi pobrea) duten zonaldeetan, habitat horretarako ezarri diren kudeaketa-gidalerroak aplikatu beharko dira (plan berezi honen barruan, memoriari dagokion atalean jaso dira).

#### 7. Kontserbatu beharreko elementu espezifikoak:

– Errekabieta ibilbidearen barruan kokatutako bide tradizionalaren zatia.

– Batasunaren intereseko 6510 habitata (altitude baxuetako sega-belardi pobreak).

#### 8. Lehentasunezko jarduketak:

– Mendien antolamendu-proiektua.

– Zur-aprobetxamenduen urteko plana.

– Bazkarako larreak erabili eta kudeatzeko plana.

– Basoberritze-proiektuak.

– Ingurumena leheneratzeko proiektuak.

– Ingurumen-egokitzeak egiteko proiektuak.

#### **44. artikulua Dubirizeko paisaia (N4.03)**

1. Esku hartzeko araubidea: paisaia kontserbatzea.

#### 2. Helburuak:

– Jarduera ekonomiko tradizionalei eta aprobetxamenduei eustea, landa-biztanleria natura-ingurunean integratuta izateko aukera ematen baitute.

– Paisaiaren egitura kontserbatzea.

#### 3. Bultzatu beharreko erabilerak:

a. Nekazaritza. Erabilera horrekin lotutako eraikin orok bete beharko ditu “nekazaritza- eta abeltzaintza-eraikin berrien eraikuntza-baldintzak” artikuluko baldintzak eta, horrez gain, multzo tradizionalaren eremuaren barruan egon beharko du.

b. Abeltzaintza estentsiboa.

c. Abeltzaintza intentsiboa. Erabilera horrekin lotutako eraikin orok bete beharko ditu “nekazaritza- eta abeltzaintza-eraikin berrien eraikuntza-baldintzak” artikuluko baldintzak eta, horrez gain, multzo tradizionalaren eremuaren barruan egon beharko du.

d. Ingurumen-hobekuntza: basozaintzako hobekuntza-lanak eta basoberritzeak.

#### 4. Onartutako erabilerak:

– Kontserbazioa.

– Aisia-erabilera estentsibo eta intentsiboa.

– Ehiza-jarduerak: debekatuta daude lege hauetan jasotako segurtasun-eremuetan: Arabako Lurralde Historikoko ehizari buruzko 8/2004 Foru Araua, ekainaren 14koa, Euskadiko ehizari buruzko 2/2011 Legea, martxoaren 17koa eta plan berezi honen barruan “lurzoruaren erabileren definizioa” artikuluan berariaz jasotakoak.

- Landa-bideak.
  - Bidezaintza-antolamenduaren O.03 planoan jasotako baso-pistak, aurretik bazeudenak. Debekatuta dago pista berriak irekitzea.
  - Ibilbide berdeak.
  - Basozaintza: basozaintza-aprobetxamenduak, espezie aloktonoek hartutako azalera handitu gabe.
  - Aurretik bazeuden aireko argindar-lineak eta lur azpikoak, betiere, dagoeneko bazeuden bideetatik badoaz.
  - Erabilera publikoa edota gizarte-interesa duten eraikinak.
  - Nekazaritza-ustiagune bati lotutako bizitegi-erabilera isolatua, betiere, arau honen artikulua espezifikorekin bat eta soil-soilik multzo tradizionalaren eremuaren barruan.
  - Bizitegi-erabilera eraikita zegoen baserrian.
  - “Paisaia esku hartzeko irizpideak” artikulua bete beharko da edozein eraikin, eraikuntza-erabilera, zabalkuntza, bide-irekitze eta egindako bideen edota azpiegitura osagarrien gaineko esku-hartze bideratzeko.
5. Debekatutako erabilerak: bultzatzen eta onartzen ez diren erabilera guztiak.
6. Lehentasunezko esku-hartzeak:
- Baso-kudeaketa: bakanketak eta garbiketak baso naturaleko unadetan, birsortzeko laguntzak.
  - Ondareko elementuak leheneratzeko lanak, kasuan kasuko araubide zehaztuaren arabera.
  - Ingurukoarekin bat ez datozen etxolak eta elementu osagarriak kentzea eta garbitzea, ez badute betetzen “paisaia esku hartzeko irizpideak” artikuluan xedatutakoa.
  - Batasunaren intereseko 6510 habitata (altitude baxuetako sega-belardi pobrea) duten zonaldeetan, habitat horretarako ezarri diren kudeaketa-gidalerroak aplikatu beharko dira (plan berezi honen barruan, memoriari dagokion atalean jaso dira).
7. Kontserbatu beharreko elementu espezifikokoak:
- Dubirizetik Santa Luzia santutegira doan bidea: jatorrizko ibilbidea, barne hartuta harrizko hormak, harlauzak eta paisaia ikusteko begi-lerro irekiak.
  - Solobiarteko bidegurutzetik Okondora doan bidea: jatorrizko ibilbidea, barne hartuta harrizko hormak, harlauzak eta paisaia ikusteko begi-lerro irekiak.
  - Batasunaren intereseko 6510 habitata (altitude baxuetako sega-belardi pobreak).
8. Lehentasunezko jarduketak:
- Mendien antolamendu-proiektua.
  - Zur-aprobetxamenduen urteko plana.
  - Bazkarako larreak erabili eta kudeatzeko plana.
  - Basoberritze-proiektuak.
  - Ingurumena leheneratzeko proiektuak.
  - Ingurumen-egokitzeak egiteko proiektuak.

**45. artikulua Iñarrondo erreken eskuinaldeko larredia (N4.04)**

1. Esku hartzeko araubidea: paisaia kontserbatzea

2. Helburuak:

– Abeltzaintza-jarduerari eustea karga onargarriak araututa.

3. Bultzatu beharreko erabilerak:

a. Abeltzaintza estentsiboa.

4. Onartutako erabilerak:

– Kontserbazioa.

– Ingurumen-hobekuntza.

– Aisia-erabilera estentsiboa.

– Aisia-erabilera intentsiboa, baina eraikuntza berriak debekatuta.

– Ehiza-jarduerak: debekatuta daude lege hauetan jasotako segurtasun-eremuetan: Arabako Lurralde Historikoko ehizari buruzko 8/2004 Foru Araua, ekainaren 14koa, Euskadiko ehizari buruzko 2/2011 Legea, martxoaren 17koa eta plan berezi honen barruan “lurzoruaren erabileren definizioa” artikuluan berariaz jasotakoak.

– Nekazaritza, baina horri lotutako eraikinak debekatuta.

– Abeltzaintza estentsiboa, horri lotutako eraikuntzak debekatuta.

– Landa-bideak.

– Bidezaintza-antolamenduaren O.03 planoan jasotako baso-pistak, aurretik bazeudenak. Debekatuta dago pista berriak irekitzea.

– Ibilbide berdeak.

– Aurretik ipinita zeuden aireko argindar-lineak eta lur azpikoak, betiere, dagoeneko bazeuden bideetatik badoaz.

– Bizitegi-erabilera eraikita zegoen baserrian.

5. Debekatutako erabilerak: bultzatzen eta onartzen ez diren erabilera guztiak.

6. Lehentasunezko esku-hartzeak:

– Bazkarako larreak hobetzea.

– Ingurukoarekin bat ez datozen etxolak eta elementu osagarriak kentzea eta garbitzea, ez badute betetzen “paisaian esku hartzeko irizpideak” artikuluan xedatutakoa.

– Batasunaren intereseko 6210 habitata (belardi lehor erdinaturalak eta kare-substratuetako sastraka-faziesak) dauden zonaldeetan, habitat horietarako ezarri diren kudeaketa-gidalerroak aplikatu beharko dira (plan berezi honen barruan, Memoriari dagokion atalean jaso dira).

7. Kontserbatu beharreko elementu espezifikoak:

– Batasunaren intereseko 6210 habitata (belardi lehor erdi-naturalak eta kareharrizko substratu gaineko sasitza fazieak).

8. Lehentasunezko jarduketak:

– Bazkarako larreak erabili eta kudeatzeko plana.

– Ingurumena leheneratzeko proiektuak.

**46. artikulua Lezeagako zelaia (N4.05)**

1. Esku hartzeko araubidea: paisaia kontserbatzea
2. Helburuak:
  - Espazioa erreserbatzea Errekabietako ibilbide berderako sarbide egiteko, aparkaleku eta guzti.
  - Abeltzaintza-jarduerari eustea.
3. Bultzatu beharreko erabilerak:
  - a. Aisia-erabilera intentsiboa.
  - b. Aisia-erabilera estentsiboa.
  - c. Abeltzaintza estentsiboa.
4. Onartutako erabilerak:
  - Ingurumen-hobekuntza.
  - Nekazaritza, horri lotutako eraikuntzak debekatuta.
  - Abeltzaintza intentsiboa, horri lotutako eraikuntzak debekatuta.
  - Landa-bideak.
  - Bidezaintza-antolamenduaren O.03 planoan jasotako baso-pistak, aurretik bazeudenak. Debekatuta dago pista berriak irekitzea.
  - Ibilbide berdeak.
  - Lurpeko lineak.
  - Erabilera publikoa edota gizarte-interesa duten eraikinak.
5. Debekatutako erabilerak: bultzatzen eta onartzen ez diren erabilera guztiak.
6. Lehentasunezko esku-hartzeak:
  - Errekabietako ibilbide berderako sarbidea sortzea, Ermualdeko parkera sartzeko ate gisa.
  - Sarbide horri lotutako aparkalekua sortzea.
7. Onartutako esku-hartzeak:
  - Bazkarako larreak hobetzea.
8. Lehentasunezko jarduketak:
  - Aisialdirako azpiegiturako eraikitzeako proiektuak.
  - Ingurumen-egokitzeak egiteko proiektuak.
  - Bazkarako larreak erabili eta kudeatzeko plana.

**47. artikulua Isusiko eta Dubirizeko multzo tradizionalen araubide zehaztua**

1. Definizioa: Plan bereziari dagokionez, multzo tradizional deritze bide edo kale batean zehar edo horren inguruan dauden eta landazabal atlantikoko paisaiaren zati diren baserri tradizionalen multzoiei.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen, ekainaren 30ekoaren arabera, multzo horiek ez dute landa-nukleorik osatzen.

Plan berezi honen barruan jasotako multzo tradizionalak dira Isusi eta Dubirizekoak, antolamenduko O.05 eta O.06 planoetan zedarrituak.

## 2. Helburuak:

– Jarduera ekonomiko tradizionalei eta aprobetxamenduei eustea, landa-biztanleria natura-ingurunean integratuta izateko aukera ematen baitute.

– Paisaiatren egitura kontserbatzea.

## 3. Esku hartzeko araubidea: paisaia kontserbatzea

### 4. Antolamendu orokorra:

– Grafikoki definitu da Isusi antolatzeko 0.05 planoan eta Dubiriz antolatzeko 0.06 planoan.

– Multzo bakoitzerako area libre egituratzaile bat ezarri da, eraikuntzak bateratuko dituen eta euren izaera indartuko duen espazio libre publiko bat sortzeko. II. kapituluan arautu da hori. Urbanizazioa.

– Multzo tradizionalaren barruko mugikortasunari dagokion gainerakoan, area libre bat ezarri da. II. kapituluan arautu da hori. Urbanizazioa.

– Aparkatzeko area bat ezarri da ibilgailuen aparkatzea arautzeko. II. kapituluan arautu da hori. Urbanizazioa.

– V puntu fokalak ezarri dira, zeintzuetan paisaiaren berezko elementuak babestu behar diren:

– V1: multzo tradizionalaren hurbileko antzematea, eraikuntzaren inbariantekin.

– V2: multzo tradizionalaren urruneko antzematea landazabal-paisaiaren barruan edo plan bereziko gainerako paisaiekin lotuta.

### 5. V puntu fokalen antolamendua:

– Isusiko multzo tradizionala:

– V1: babestea 480 lurzatiak eta Ameztuiganako paisaiaren hondoa ezkuta dezaketen eraikin berri, bolumen berri, lur-mugimendu, lurzati-itxiera nahiz azpiegituretatik.

– V2: 461 eta 463 lurzatiak bolumenik, itxitura opakurik eta zuhaitzi jarraiturik gabe izatea, Isusiko area libre egituratzailetik hondoko paisaiaren ikuspegia estali ez dezaten.

– Dubirizeko multzo tradizionala:

– V1: babestea baserri tradizionalen multzoko landa-paisaia ezkuta dezaketen eraikin berri, bolumen berri, lur-mugimendu, lurzati-itxiera nahiz azpiegituretatik.

– V2: 426, 427 eta 428 lurzatiak bolumenik, itxitura opakurik eta zuhaitzi jarraiturik gabe izatea, ez dezaten estali hondoko paisaiaren (Supikando edo Garate gaina), erdiko paisaiaren (Dubiriz ladazabalean) eta gertuko paisaiaren (426 eta 427 lurzatiak) begi-lerroa Ermurako bidetik.

6. Erabilerak: Isusiko paisaia (43. artikulua) eta Dubirizeko paisaia (44. artikulua) esparruetarako ezarri diren bereberak.

7. Ondarearen araubidea: araudi honen 3.3 kapituluan definitu da eraikitako ondarearen araubidea.

Hauek dira arautu diren elementuak:

– Isusiko multzo tradizionala: P3.1 Goikoetxe baserria, P3.2 Andikoa baserria, P3.3 Bekoetxe baserria, P3.4 Beasko baserria, P3.5 Isusi baserria, P3.6 Minteguieta baserria, P 3.10 Kalbarioa, P3.11 Iturria.

– Dubirizeko multzo tradizionala: P 4.1 Urrutxi baserria, P4.2 Andikoa baserria, P 4.3 Dubiriz baserria, P4.4 Landagoikoa baserria, P 4.5 Andikoa baserriari atxikitako eraikina, P 4.6 1. elementua.

8. Babes-araubidea duten beste elementu batzuk:

– Dubirizeko multzo tradizionalan: Almuerreka (N2.06)

9. Ingurukoarekin bat ez datozen eta leheneratu edota kendu behar diren elementuak:

– Isusiko multzo tradizionala:

– Kendu beharreko elementua: Arauz kanpoko eraikina 461 lurzatian.

– Dubirizeko multzo tradizionala:

– Leheneratu beharreko elementua: 416. lurzatiako eraikina. Ez dator bat materialei eta eraikuntza-elementuei dagokienez.

2.4 Ermualdeko parkearen sistema orokorraren araubidea

#### **48. artikulua Ermualdeko parkearen definizioa eta helburuak**

Ermualdeko parkea Laudioko udalerrriaren barruko sistema orokorra da, garrantzitsua baita udalerrriaren lurralde egiturari dagokienez.

Sistema orokorra den heinean, babes-araubide berezia dagokio, baita lurraldearen egituran duen garrantziaren arabera erabilera- eta eraikuntza-baldintza bereziak ere.

Ermuko Andra Mariren parkea jabari eta erabilera publikoko espazio librea da eta titulartasun publikoko nahiz pribatuko ekipamendu kolektiboak ditu.

Halaber, Ermualde parkea funtsezko pieza da Laudioko eremu funtzionaleko lurralde plan partzialean definitutako lurralde-sare berdeari dagokionez. Bertan, Santa Luziako aisialdi-gune gisa definitzen da, hitzez hitz, honelaxe:

Jolas-eremuak: espazio erakargarriak dira ingurumenari dagokionez eta izaera estentsibo biguneko aisialdi-jardueretarako egokitze minimoa dute (...).

Errepidez iristeko aukera izan behar dute guztiak, baina irisgarritasun maila batetik bestera aldatu egiten da eta eremuon barruan motordun ibilgailuak ibiltzea eragotzi behar da. Hortaz, aparkalekuak ipini behar dira eremu hauen sarbideetan, paisaiarekin integratuta. Sarbideetatik gertu, harrera-eremuak ipini behar dira, bisitari gehienak hartzeko modukoak, erabiltzaileak sakabana ez daitezen, horrek arriskuak baitakartza espazio hauen igurumen-kalitateari eusteari dagokionez. Harrera-eremu horietan, kanpaleku txikiak ere egon beharko dira, baita mahaiaik, bankuak, aire zabalean janaria prestatzeko elementuak, ura, komunak... ere. Jolas-eremu horietako barne-bideei dagokienez, modu selektiboan ireki behar da lurraldea; zailagoa izan beharko da egoera txarrean dauden edo karga-gaitasun txikiagoa duten eremuetara sartzea.

Aurreko paragrafoan ezarritako baldintza guztiak jaso dira plan berezi honetan.

#### **49. artikulua Erabileren araubide orokorra**

Bultzatu beharreko erabilerak:

– Aisia-erabilera estentsiboa.

– Aisialdi-erabilera intentsiboa espazio librean araubidean nahiz eraikuntza-araubidean definitutako zonalde jakin batzuetan.

– Ibilbide berdeak: sistema orokorra jarraian azalduko diren ibilbideen gune neuralgikoa da, dagoeneko eginda daudenena nahiz proposatu direnena:

Eginda dauden ibilbideak:

- 1. ibilbidearen igarobidea: GR 123.
- 3. ibilbidearen irteera-gunea: burdinazko hesiaren ibilbidea.

Proposatutako ibilbideak:

- 6. ibilbidea: zuhaitz berezien ibilbide berdea.
- 7. ibilbidea: Ermualdeko ibilbide berdea.
- 8. ibilbidea: Dubirizetik Ermura doan bidexka (lurralde plan partzialaren barruko Okondoko zirkuitua).

– Aurretik egindako eraikinen erabilera publikoa eta gizarte-interesa: hezkuntza-, kultura- eta kirol-erabilerak, ostalaritza- eta ostatu-erabilerak, osasun-erabilerak, hilerriak, erlijio-erabilerak eta aisialdirako baratzeak.

– Arabako Lurralde Historikoko katalogoko LLO004 kodea duen 58. zuhaitz berezia eta N 2.03 esparruko ubideak kontserbatzea.

- Ingurumen-hobekuntza.

Onartutako erabilerak:

- Abeltzaintza estentsiboa: soilik ardiak edota zaldiak eta soilik zelaian.
- Erabilera publikorako abeltzaintza eta nekazaritza: produkuen salmenta eta hezkuntza-jarduerak.
- Lurpeko lineak: soilik area libre egituratzailean.
- Bizitegi-erabilera eraikita zegoen baserrian, onartutako erabilera hauen baldintzetan eta erabilera publikoari, abeltzaintzari nahiz nekazaritzari lotuta.

Debekatutako erabilerak: bultzatzen eta onartzen ez diren erabilera guztiak.

#### **50. artikulua: parkearen araubidea**

Zonakatzeko, eremu osoa bi talde handitan banatu da: espazio libreak dituzten área libreak eta ekipamenduak. Horien araubideak jarraian ageri diren artikuluetan ezarri dira:

#### **51. artikulua Espazio libren araubidea**

Espazio libreen area guztiek II. kapituluko urbanizazio-araubidea beteko dute, baita jarraian ageri den erabileren araubide zehaztu ere:

##### **1. Area libre egituratzailea:**

Barne hartzen ditu Isusitik iristen den bidea eta parkeko elementu guztiak egituratzen dituzten konexio-azalera guztiak, Dubirizetik datorren bidera arte.

O.04 planoan definitu da grafikoki.

Erabilerak: parkeko elementu guztiak komunikatzeko eta horietara iristeko espazio librea da. Area honetan onargarria da zoladurak jartzea, zerbitzuak hornitzeko lurpeko lineak trazatzea, argiztapen-elementuak instalatzea eta, oro har, hiri-altzariak eta seinaleak jartzea.

Zamalanetarako eta larrialdietarako ibilgailuak soilik sar daitezke.

2. AL01: zelaia osatutako area librea, instalazio osagarri gisa eszenatokia eta estali gabeko harmailak jartzeko.

O.04 planoan definitu da grafikoki.

Larrinekoa eta Salabarri baserrien alboko espazio irekia da.

Erabilerak: ingurumenari dagokionez larre belartsua hobetzea, topografian integratutako eszenatokiarekin eta estalperik gabeko harmailekin uztartuta.

3. AL02: askaltegi edo merendero gisa egokitutako plataforma.

O.04 planoan definitu da grafikoki.

Apaizaren etxearen atzekaldearen alboko espazio libre irekia.

Erabilerak: espazioa herri-askaltegi gisa erabiltzeko egokitzea onartzen da, mahai eta banku luzeen bidez.

4. AL03: larraina eta umeen jolastokia.

O.04 planoan definitu da grafikoki.

Apaizaren etxearen alboko espazio libre irekia.

Erabilerak: aisialdirako eta natura-ingurunean integratutako umeen jolasak hartzeko larrain aproposa.

5. Larraina (Ermulanda): Area Libre Naturala.

O.04 planoan definitu da grafikoki.

Andra Mariren santutegiko larrainen esparru tradizionala. Inguruko espazio libre naturalak ere.

Erabilerak: ekipamendu, altzari edota azpiegiturarik behar ez duten aisialdi-jarduerak soilik.

Aisia-erabilera estentsiboa eta bidexka berdez osatutako ibilbide berdeak, lurzorua batere egokitu gabe. Onartzen den gauza bakarra seinaleak instalatzea da. Erabat debekatuta dago motordun ibilgailuak edota mendiko bizikletak erabiltzea.

Arabako Lurralde Historikoko katalogoko LLO004 kodea duen 58. zuhaitz berezia babestea araututako jarduketan bidez.

Ingurumen-hobekuntza: motordun ibilgailuak erabili izanaren ondoriozko gurpil-markak kentzea, baita gehiegizko larratzearen ondoriozkoak ere.

Abeltzaintza: ardiak edota zaldiak soilik.

## **52. artikulua Eraikuntza-araubidea**

– E01. Santutegiaren multzoa: eliza, baseliza eta haren kanpandorrea eta ingurunea.

– Eliza (P1.01): elizaren gorputz osoa, habearteak, kanpoko eliz atariak, sartzeko eskailerak, euste-hormak eta sakristia.

Erabilera: erabilera publikoa eta gizarte-interesa duen eraikina.

Erabilera zehatua: erlijio-, kultura- eta hezkuntza-erabilerak.

106. artikuluan ezarri da eraikitako ondarearen araubide partikularra.

– Kanpandorrea (P1.02): elizaren kanpandorrearen gorputz exentua.

Erabilera: elizari lotua (P1.01).

107. artikuluan ezarri da eraikitako ondarearen araubide partikularra.

– Santa Luzia baseliza (P1.03): habearteak eta kanpoko gorputzak osatutako multzoa.

Erabilera: erabilera publikoa eta soziala duen eraikina.

Erabilera zehatza: erlijio-, kultura- eta hezkuntza-erabilera.

108. artikuluan ezarri da eraikitako ondarearen araubide partikularra.

– E02 Apaizaren etxea (P1.04): aurretik zegoen baserriaren gaineko eraikin modernoa eta ingurunea.

Erabilera: erabilera publikoa eta soziala duen eraikina.

Erabilera onargarria: erabilera nagusiari lotutako bizitegi-erabilera.

109. artikuluan ezarri da eraikitako ondarearen araubide partikularra.

– E03 Benta baserria (P1.05): aurretik zegoen baserria, abeltzaintza-ustiagune gisa erabilia eta lurzatiaren ondoko lur libreak.

Erabilera: erabilera publikoa eta soziala duen eraikina. Erabilera publikoetarako jarduerak, nekazaritza-ustiagunearen osagarriak: produktuak saldu eta dastatzea, artisautza-tailerrak, nekazaritza-turismoa, aisialdiko jolas-jarduerak eta jardueraren dibulgazioa.

Erabilera onargarria: bizitegi-erabilera eraikita zegoen baserrian, nekazaritza- edo abeltzaintza-erabileran laguntzeko eraikina.

– E04 Larrinekoa baserria (P1.06): gaur egun erabiltzen ez den baserria eta inguruko lurzatiak.

Erabilera: erabilera publikoa eta soziala duen eraikina.

Erabilera onargarria: bizitegi-erabilera eraikita zegoen baserrian.

110. artikuluan ezarri da eraikitako ondarearen araubide partikularra.

– Salabarri baserria (P1.07): gaur egun eraitsita dagoen baserria, apaizaren etxearen alboan.

Erabilera: erabilera publikoa eta sozial duen eraikina.

Erabilera xehatua: kultura eta hezkuntza (informazio- eta interpretazio-zentroa).

111. artikuluan ezarri da eraikitako ondarearen araubide partikularra.

– E06 Bolalekua (P1.08): bolaleku zaharrak hartzen duen area eta inguruko espazioa.

Erabilera: erabilera publikoa eta soziala duen eraikina.

Erabilera xehatua: kirol-erabilera; bolalekua.

112. artikuluan ezarri da eraikitako ondarearen araubide partikularra.

– E07 Ikastetxe zaharraren baserria (P2.02): baserria eta inguruko lurak.

Erabilera: eraikinak erabilera publikoa, soziala eta aisia-erabilera intentsiboa du.

Erabilera onargarria: bizitegi-erabilera, aurretik eraikitako baserrian.

– E08 Hilerria: 1943an irekia Pagondon, ikastetxe zaharraren ondoan.

Erabilera: eraikinak erabilera publikoa eta soziala du.

Erabilera zehatua: hilerria.

Sektoreko arauetan eta Laudioko hirigintza antolamenduko plan orokorrean ezarrita du araubidea.

– E09 San Antonio eta Santa Apolonia baseliza (P2.01): Isusirako bidean dagoen baseliza.

Erabilera: eraikinak erabilera publikoa eta soziala du.

Erabilera zehatua: erlijiozko erabilera.

113. artikuluan ezarri da eraikitako ondarearen araubide partikularra.

– E10 Aparkalekua: 1081 zenbakia duen katastro-lurzatia.

Erabilera: aisia-erabilera intentsiboa.

Erabilera zehaztua: ibilgailuetarako aparkalekua.

Ingurune naturalean eta paisaian integratu beharko da eta II. kapituluko urbanizazio-araubide bete beharko du.

– E11 Mendibil txaleta. 866 eta 865 lurzatiak: antolamenduz kanpo.

Erabilera: ingurumen-hobekuntza eta aisia-erabilera intentsiboa.

**53. artikulua: 58 zenbakia duen zuhaitz bereziaren babes-araubidea (Arabako Lurralde Historikoko zuhaitz berezien katalogoan LLO004 kodearekin inskribatua)**

Quercus Ilex L. espezieko 58. zuhaitz berezia, LLO004 kodea duena, II. klaseko zuhaitz berezi gisa katalogatua 2,44 balioarekin (4tik).

Jarduketa hauek egin behar dira zuhaitza babesteko:

– Oina harriekin estalita babestu eta ingurunea zaindu.

– Izurriak eta gaixotasunak kontrolatzea.

3 Ondare kulturalaren eta materialaren araubidea

3.1 Araubide orokorra

**54. artikulua. Ondare kulturalaren eta materialaren definizioa**

Plan berezi honetan xedatutakoak aplikatzeari dagokionez, Ermuko ondare kultural eta materialtzat joko dira planaren IV. liburukian, eranskinetan ageri den inbentarioan izendapen horrekin jasotako elementuak.

Inbentario hori ez da sakona, ezta itxia ere eta, beraz, planaren esparruaren barruan aurkitzen diren eta inbentarioan sartuta daudenen antzeko ezaugarriak dituzten elementuak eransteko aukera egongo aurrerantzean, aldizka egingo diren berrikuspenetan.

Inbentarioan hainbat elementu mota jaso dira, euren tipologiari, kokapenari, jatorriari, berezitasunari edota garrantzi historikoari erreparatuta. Elementuok jarraian azalduko diren talde handien arteko edozeinetan sailka daitezke, baita bat baino gehiagoren barruan ere:

1- Ondare arkeologikoko elementuak.

1- Eraikitako ondareko elementuak.

2- Elementu etnografikoak.

Kapitulu honen 3.2, 3.3 eta 3.4 ataletan adierazi da hiru talde horietako bakoitzari aplikatu beharreko araubidea.

**55. artikulua. Inbentarioan jasotako elementuak kontserbatzea eta euren onean iraunaraztea**

Bereziaren inbentarioan jasotako elementuen (elementu arkeologikoak, eraikinak, elementu etnografikoak) mantentzeko eta kontserbatzeko dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa aplikatuko da. Zehazki, artikulua hauen edukia azpimarratu da:

– 199. artikulua: kontserbatzeko eta birgaitzeko eginbeharra:

– 1. Lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra.

Horretarako, behar diren kontserbatze- eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko.

Hau da, inbentarioan jasotako elementuen gaineko gauza-eskubideen jabeak, edukitzaileak eta gainerako tituludunak arduratuko dira higiezin horien zaintze-, babeste-, mantentze-, kontserbazio- eta iraunarazpen-lanez, plan berezi honetan erabakitako araubidearekin bat eta, edonola ere, horiek galtzea, hondatzea edo narriatzea saihestuta. Jabe ezagunik ez duten elementuen kasuan (inguruan sakabanatuta dauden karobiak, ikaztegiak, kirikiño-hesiak...), Udala izango da arduraduna.

Eraikuntza-elementuen kasuan, betebeharrak hori mugatu egiten dute 2. eta 3. puntuek eta jabea ahaldu egiten dute Administrazioari soberakina ordain diezaiola eskatzeko, lanak egikartzeko agindua ematean edo hori inposatzen dionean:

– 2. Eraikinen jabeek lan eta obregatik ordaindu beharreko diru-kopuruak ez du gaindituko eraikinaren eduki normalaren muga. Muga hori honela zehazten da: a) Jarduketa isolatuetan, eraikina berrizatzeko kostuaren ehuneko 60. b) Jarduketa integratuetan, eraikina berrizatzeko kostuaren ehuneko 50. Atal honetan ezarritako zenbatekoak lurzoruaren balioa aintzat hartu gabe kalkulatu dira.

– 3. Administrazioak jabeari agintzen dizkion kontserbatze- eta birgaitze-lanen kostuak aipatutako muga hori gainditzen badu, soberakin hori ordain dezan eskatu ahal dio jabeak administrazioari. Edonola ere, administrazioak laguntza publikoak ezarri ahal izango ditu, egoki deritzen baldintzetan, hitzarmenen edo beste tresna batzuen bidez. Higiezina jabeen eta administrazioaren artean ustiatzea jaso ahal izango da hitzarmenotan.

Birgaitzea, kontserbazioa eta iraunaraztea ziurtatzeko, kontserbazio-eginbearra duten eragileek sustatu beharko dituzte 200. artikuluan definitutako aldizkako ikuskapenak, ondarea berreskuratzeko jarduketaz gain eta elementu erantsi edota degradatzaileak ezabatzeaz gain:

– 200. artikulua: etxeak eta eraikinak aldizka ikuskatzea.

– 1. Katalogatutako edo babestutako etxe edo eraikin jabeek, bai eta 50 urtetik gora dituen eta bizitegi-erabilera duen edozein eraikin jabeek ere, 10 urterik behin teknikari fakultatibo bati agindu beharko diote ikuskapen bat egin dezan, etxe edo eraikinaren kontserbazio-egoera zein den zehazteko.

– (2. puntuan ezarrita dakar ikuskapenen ondoriozko txosten teknikoetan azaldu beharreko edukia)

205. artikuluan azaldutakoaren arabera, eragile horiek behartuta daude, halaber, udalarekin edo udalaren ordezkariarekin lankidetzan aritzera ikuskapen-lanei dagokienez:

– 205. artikulua: Kontrol, babes eta diziplinako eginkizunetan laguntzea:

– 1 - Pertsona fisiko edo juridiko orok lagundu beharko die herri-administrazioei, administraziook hirigintza-antolamenduko eskumenak eta gai horrekin lotutako eskumen sektorialak baldin badituzte, lege honek ezartzen dizkien kontrol-, babes- eta diziplina-eginkizunak betetzen.

– 2. Partikularrek, hain zuzen, kontrol-, babes-, eta diziplina-eginkizunen eskumena duen herri-administrazioak eskatzen dizkien informazioa eta agiriak emango dizkiote. Goian aipatutako eginbearrean oinarrituta eskatuko du hori administrazioak.

– 3. Herri-administrazioek, halaber, elkarlanean jardungo dute eginkizun horiek bete daitezten.

Halaber, udalak katalogatutako elementu guztien zaintza-lana ere egin beharko du, titularra udala ez izan arren. Gainera, plan berezi hau betearazten dela zaindu beharko du, 204. artikuluan adierazitakoarekin bat. Beraz, beste erakunde batzuek ere esku hartzearen kalterik gabe, eten

egin ahalko ditu ondarearen babes-araubidea urratzen duten edota katalogatutako elementuen batasuna eta osotasuna arriskuan jar dezaketen jarduerak.

– 204. artikulua: Hirigintzako antolamendua bermatzeko eta babesteko eginkizunak.

– 1. Udalak arduratuko dira lege honetako xedapenak eta legea osatzeko edo garatzeko emandako arauak eta gainerakoak betetzea zaintzeaz, legean ezarritako helburuak betetzeko eta aldarrikatutako printzipioak sustatzeko.

– 2. Tituluan arautzen diren ahalez baliatzeari ezingo zaio uko egin. Horretarako, agintari eta funtzionarioak behartuta daude ahal horietaz baliatzeko ezarritako prozedurak hastera eta iza-pideak egitera, kasu bakoitzerako aurreikusitako epearen barruan. Eginbehar hori ez betetzeak diziplina-erantzukizuna ekar dezake.

#### **56. artikulua. Obra-lizentziak**

Inbentarioan jasotako elementuren bati eragiten dioten udal obra-lanen lizentziak edo baimenak lortzeko, indarrean dagoen plan orokorra zorrozki beteko da eta bertan zehaztutako izapidetze-prozedura arrunta jarraituko da, ondoko berezitasun hauekin:

– Plan berezi honen babes-araubide espezifikoak betetzearen justifikazioa.

– Ondarea babesteko araudi aplikagarria betetzearen justifikazioa.

– Plan berezi honetako 63. artikulutik 68. artikulura azaltzen den prozedura betetzearen justifikazioa, lehenengo hiru faseetan eskatzen den dokumentazioa aurkeztuta: ezagutzea, hausnartzea eta esku hartzea.

Kontserbazio-planerako eskatu den dokumentazioa aurkeztearen mende geratuko da obra-lanaren harrera edo, eraikuntzen kasuan, lehen okupazioko lizentziaren emakida; beraz, dagokin kontrol organismoak aldeko txostena eskaini beharko du eta bertan egiaztatuko da babes-araubidearen eta lizentzia emakidaren baldintza-multzoa, baldin baleude.

#### **57. artikulua. Elementu babestuen aurriak**

Eraikin nagusien kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak 201. eta 202. artikuluetan xedatuta dakarrenari jarraituko zaio, baina ezin izango da inolaz ere inbentarioan jasotako elementua eraitsi.

Elementu baterako definitu den babes-araubidea ez da amaituko edo iraungiko aurri deklaratzeko; aitzitik, bere horretan jarraituko du atxikita duen lurzorurako, halako moduz ezen deklarazio horretatik ondorioztatuko diren jarduerak elementua berreskuratzeko izan beharko duten, 2/2006 Legearen 203. artikulua arabera aplikagarria den zehapen araubideari buruz ebazitakoaren kalte barik.

– 201. artikulua. Legezko aurri-egoera.

– 1. Etxe edo eraikin baten legezko aurri-egoera honako kasu bi hauetan deklaratu da: egonkortasuna, segurtasuna, estankotasuna eta egituraren sendotasuna berreskuratzeko lanen kostuak kontserbatzeko eginbehar normalaren muga gainditzen duenean 199. artikuluko 2. paragrafoan dago araututa muga hori, edo lan horiek egiteko baimenik eman ezin denean, eraikina antolamendutik kanpo dagoelako.

– 2. Udalari dagokio legezko aurri-egoera deklaratzeko. Horretarako, aldez aurretik prozedura bat aplikatuko da -erregelamenduz garatuko da prozedura hori-, eta prozedura horretan, betiere, jabe interesdunari eta eragindako eskubide-titular enparaei iritzia adierazteko aukera emango zaie.

– 3. Legezko aurri-egoeraren deklarazioak pertsonen eta ondasunen kalterik ez egiteko behar diren neurriak xedatu beharko ditu eta jabearen eginbehar hauek ezarriko dizkio: a) Etxe edo eraikina katalogatu gabe badago, babesik merezi duen baliorik ez badu, edo katalogatzeko

bidean edo babes integraleko araubideren baten menpe jartzeko bidean ez badago: aukeran, osorik birgaitzeko edo eraisteko eginbearra. b) Etxe edo eraikina katalogatuta badago, bere balioengatik babestuta badago, edo katalogatzeko bidean edo babes integraleko araubideren baten menpe jartzeko bidean badago: egonkortasuna eta segurtasuna mantentzeko edo, behar bada, berreskuratzeko premiazko neurriak hartzeko eginbearra, eta behar diren lan eta obrak egin bearra. Kasu honetan, administrazioak jabearekin adostu dezake behin betiko birgaitzea nola egin. Baina akordiorik ez badago, administrazioak bere kasa agindu ahal izango ditu behar diren birgaitzeko obrak.

– 4. Kultur ondarearen legeriaren arabera kalifikatutako edo inbentariatutako higieziei dagokienez, legeria horretako xedapenak eta horren garapenetik emandakoak izango dira jarraibide aurri-deklarazioa erabakitzeke. Babes-araudi horren aurka ez doazen gorabehera eta zehaztapenetan, berriz, artikulua honetako araubidea aplikatuko da.

– 202. artikulua. Erortzeko zorian egotea.

– 1. Etxe edo eraikin bat erortzeko zorian egoteak arriskuan jartzen badu segurtasun publikoa edo pertsona eta ondasunen segurtasuna, udalak etxe edo eraikinari euskarriak jartzeko erabakiko du eta husteko agindu, edo premiazko eta beharrezko neurriak hartuko ditu kalteak aurreikusteko edo ekiditeko eta obra, eraikuntza, instalazio edo lursailen egoeraren ondorioz berehala etor daitezkeen arriskuei aurre egiteko. Salbuespenez, kalte handiagoak saiheste aldera ezinbestekoa bada, eraikuntza botatzeko agindu ahal izango du, katalogatu edo babestu gabeko eraikinen kasuan.

– 2. Eraikinaren jabeak bere gain hartuko du aurreko artikuluan adierazitako neurrien ondorioz sor daitezkeen kalte-galeren erantzukizuna, bai eta neurriok hartzeak ekarriko duen kostua ere.

– 3. Artikulu honetan aurreikusitako neurriak hartzeak, inola ere, legez erortze-zorian egotea deklaratzeko espedientea hastea ekarriko du berarekin.

Eusko Jaurlaritzak izendatutako eta inbentarioan jasotako ondasunei (komunitate intereseko ondansun izendatutako Ermuko Andra Mariren santutegiko monumentu multzoari) dagokienez eta Euskal kultur ondareari buruzko 7/1990 Legearen 36. artikuluan xedatutakoarekin bat, ezingo da horrelako elementurik eraitsi dagokion aurri-deklarazioa eskuratuta, Foru Aldundiaren esanbidezko baimena lortuta eta kalifikatutako kultura-ondasunaren desafektazio prozesua burututa izan gabe. Azaroaren 10eko 306/1998 Dekretuaren artikuluetan azaltzen dira prozesu horren nondik norakoak, kalifikatutako eta zerrendatutako kultura ondasunen aurri-egoeraren deklarazioari buruzkoa eta berauek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharreko buruzko dekretuan.

#### **58. artikulua. Arau-haustek eta diziplina-araubidea**

Plan berezi honetan xedatutako babes-araubidea bete gabe uzteak edo ez betetzeak esan nahi du hirigintza arloko arau-haustea egikaritu dela, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritakoarekin bat.

Nolanahi ere, zehapenaren aplikazioak inplikatu du eragindako elementua arau-haustearen aurreko egoerara derrigor itzuli beharra eta ondare elementu horri eragindako kalteak konpontzea.

– 225. artikulua: hirigintza arloko arau-haustek.

– 1. Arau-hauste oso larriak honako hauek izango dira:

– b) Ondasunak suntsitzea, baldin eta ondasun horiek udalak katalogatu baditu, edo ondare historiko, kultural eta artistikoari buruzko legeriaren arabera interes kulturala izendatu bazaie.

– 238. artikulua. Ingurumenaren eta natura- eta kultura-ondarearen arloko arau-haustek.

– 1. Ondare kulturala babesteko legerian ezarritakoaren arabera, zehapena jarriko zaie honako hauei: monumentalak, historikoa, artistikoa, arkeologikoa, kulturala, tipikoa edo tradizionala izateagatik plangintzak babes berezia eman beharrekotzat jotako ondasunak botatzen dituztenei edo osorik edo zati batean desmuntatzen dituztenei.

– 2. Balio historikoa, artistikoa, arkeologikoa, tipikoa edo tradizionala duten eraikinen multzo baten hurbil-hurbilean edo eraikin-multzo horren zati diren lekuetan eraikuntzak egiten dituztenei, hain zuzen, egikaritutako obraren balioaren ehuneko 75eko isuna jarriko zaie kasu hauetan: eraikin horien babeserako arauak edo araubide juridikoa urratzen badituzte, eraikin-multzoaren harmonia edo aipatutako ezaugarriengatik garrantzi nahiz kalitate handikoa den eraikinen batekiko harmonia apurtzen badute. Zehapena 5.000 eurokoa izango da, gutxienez, eta sortutako harmoniarik eza larria edo arina den kontuan hartuta mailakatuko da.

– 3. Hirigintza-antolamenduko planean edo lurraldearen antolamenduan babestu beharreko baso-eremutzat kalifikatu diren lursailetan ez da kontuan hartuko baso-araubide berezi baten menpe dauden edo ez arbolak mozten edo botatzen badira eta, ondorioz, aplikatu beharreko xedapenak urratzen badira, moztutako edo botatutako arboladiaren salmenta-balioaren adinako isuna ezarriko da.

– 4. Artikulu honetan aurreikusitako isunak mailakatzeko irizpidea, hain zuzen, babestu beharreko balioei arau-haustek eragin dien kaltearen garrantzi handiago edo txikiagoa izango da.

– 5. Ahal izanez gero, aldatutako errealitate fisikoa lehengoratu dadila aginduko da.

#### **59. artikulua. Babestutako elementuen osotasuna**

Elementu natural edo eraiki baten katalogazioak berarekin dakar elementuaren babes-araubidea elementua osatzen duten jatorrizko zati guztietara hedatzea, ez bada adierazten kontrakarrik elementu beraren araubide partikularrean.

Horrek dakar, gutxienez, ondoko elementuak babestu beharra:

– Eraikuntzen kasuan, estalduren planoak eta euren erremateak (hegalak, erlaitzak, tximiniak etab.), egitura, eskailerak, barandak, fatxadako zuloen konfigurazioa, barruko eta kanpoko arotz-lanak, zoru, horma eta sabaien akaberak (harlauzak, zoruko oholtzak, zurubi-mailakatzeak, hormako panelak, moldadurak eta abar) eta euren horretan iraun duten altzari eta apaingarriak.

– Aiurri-egoeran dauden elementuetan kontserbatzen diren jatorrizko hondarrak.

Erregela hori ez betetzeko arrazoi justifikatuak aurkezten badira, plan berezi hau aldatu egingo da horri dagokionez, betiere, behar bezala justifikatzen badira aldaketa horren beharra, egokitasuna, beste aukera batzuk baztertu izana, babestutako elementuaren gaineko jarduketaren ondorioak aztertu ondoren eta salbuespenezko ekimen horiek burutu daitezkeen baldintza eta egoerak murriztuta.

#### **60. artikulua. Babestutako elementuen kokapenaren izaera iraunkorra**

Oro har, babestutako elementuak ezin dira lekuz aldatu eta euren jatorrizko kokapenean eta ingurunean mantendu eta iraunarazi behar dira.

Arau horren salbuespen gisa, elementu zehatzak eta ondasun higigarriak lekuz aldatu ahalko dira, mantentze-arrazoiengatik edo urbanizazio lanen ondorioz egokitzat jotzen bada kontserbazio-baldintzak hobetzeko.

#### **61. artikulua. Arau sektorialak betetzea**

Elementu babestu, natural edo eraikitakoetan, baimenduta daude arau sektorialak betetzeko ekimenak, bereziki, instalazioen irisgarritasunarekin, erabilera-segurtasunarekin, egokitzapenarekin eta suteen aurkako babesarekin lotutakoak betetzekoak. Kasu guztietan, kontuan hartuko behar dira elementu bakoitzaren berariazko araubidean ezarri diren murrizketak, irizpide hauen arabera:

– Aztertu egin beharko dira araudi sektorialaren bidez ondare babestuaren kasuetarako baimendu diren aukera baliodunak eta salbuespenak, proportzioz kanpo ez jokatzeko eta elementuari kalterik ez egiteko alde aurretik araudi honetan ezohiko kasu horietarako jaso diren salbuespenak erabili gabe (espazio errepresentatiboak, monumentuak, eraikin historikoak, erlijiosoak eta abar).

– Gailu eta instalazio berriek jasan beharko dituzte ondarea babesteko araubidean ezarritako murriztapenak betetzeko egokitzapena eta ez ondare-elementuak berak.

– Jarduketak euren egokitasuna egiaztatu ondoren burutuko dira eta, horrez gain, elementua bera eraldatu barik egikaritu ezin izatea frogatu beharko da, betiere, hasierako egoerara bueltatzeko jarduketa minimoaren jarraibidearekin bat eta modu itzulgarrian eta ezaguterrazean (ez mimetikoki).

– Babestu barik dauden zatietan (baldin baleude) edo hain garrantzitsutzat jotzen ez diren zatietan egikaritutako dira elementuaren konfigurazioa eraldatu gabe egikaritu ezin diren jarduketak eraginez.

## **62. artikulua. Instalazioak, publizitatea eta seinalizazioa babestutako elementuetan**

Instalazioak: ez dute euskarritzat erabiliko babestutako elementurik. Babestutako elementuak aldatu barik instalazioak integratzeko moduko soluzioak aplikatu behar dituzte.

Publizitatea: ez da erabiliko publizitate edo seinalizazio elementurik babestutako ondarea euskarri hartuta, ez badira publikoarentzako jarduera irekiak denbora batez iragartzeko edota Udalaren identifikazio-seinaleak, betiere, babestutako zatiei kalterik ez bazaie egiten.

## **63. artikulua. Eraikitako ondare kulturean eta materialean esku-hartzeko printzipio orokorrak**

Elementu bakoitzean esku hartzeko ezarri den araubidea errespetatzeaz gain, plan honetan jasotako ondarearen gaineko jarduketek printzipio hauek bete beharko dituzte:

– Beharra: elementu bakoitzerako ezarri den babes-araubidea betetzeari dagokionez, babestutako ondarearen gaineko edozein jarduketa bideratu ahal izateko, nahitaezkoa izango da justifikatzea elementua bera kontserbatzeko, erabiltzeko prestatzeko edo araudi sektorialera egokitzeko beharra.

– Itzulgarritasuna: elementu babestuaren zati iraunkorrei kalte iraunkorrik eragin gabe egiteko eta desegiteko modukoak izan beharko dute jarduketa guztiek, araubide partikularrean berreraikitze- edota birsorkuntza-jarduketetarako baimenduta dauden kasuetan izan ezik.

– Irakurgarritasuna: jarduketak jasaten dituzten elementuen jatorrizkotasuna modu fidagarrian irakurri ahal izateko, ez da asmo mimetiko duen obrarik egingo babestutako ondarean. Aipatu den irakurgarritasun hori elementuen berreraikitze- edo ordezte-kasuetan lortzeko, elementuon seinalamendu diskretua egingo da edo xede horretarako argi eta garbi definitutako jarduketaren azalpen-dokumentazioa baliatuko da.

## **64. artikulua. Ondare kulturean eta materialean esku-hartzeko metodologia**

Plan honetan eta inbentarioan jasotako ondareari balioa emateko bideratzen diren jarduketa-prozesuek fase hauek izan beharko dituzte gutxienez:

Azteketa – Hausnarketa – Esku-hartzea – Prebentziozko kontserbazioa

## **65. artikulua. Metodologia betetzea**

Ondarearen gaineko edozein jarduketa bideratzen duen eragile publiko edo pribatu orok jasota utzi behar du goiko prozesu horri jarraitu izana, fase bakoitza behar bezala egikaritu dela frogatzeko dokumentuak aurkeztuta. Aurrerago zehaztuko da dokumentu horiek zeintzuk diren.

**66. artikulua. Kontrol organoa**

Plan bereziaren jarraipen batzordea izango da hemen azaldutako dokumentazioa jasotzeko eta, baldin badagokio, onartzeko kontrol organoa. Haren zeregina dokumentu honen III. liburu-kian definitu da.

Batzordea eratuta ez badago, obra-lizentziak emateko ardura duen udal erakundeak beteko ditu Batzordearen funtzioak aurreikusitako metodologia betetzen dela ikuskatzeari dagokionez. Halaber, udal erakunde horrek kasuan kasuko goragoko erakunde ofizialaren ikuskapena eskatu ahalko du, esaterako, Eusko Jaurlaritzaren kultura sailarena edota Arabako Foru Aldundiarena.

**67. artikulua. Aurkeztu behar den dokumentazioa**

– I. eta II. faseak (Azterketa eta Hausnarketa): Txosten teknikoaren formatuan aurkeztu beharko dira, proiektu tekniko espezifikoa idatzi baino lehenago, egindako azterketen datu eta eta ondorio nagusiak, behar bezala justifikatzeko ateratako ondorioak eta kasu bakoitzaren ezagutza sakona.

– III. fasea (Esku-hartzea): proiektu teknikoa bera izango da aurkeztu beharreko dokumentazioa. Dena den, esku-hartzea bera dibulgatzeko aurreikusi diren ekintzen memoria ere aurkeztu beharko da proiektuari erantsita.

– IV. fasea (Kontserbazioa): jarduketaren lanak amaitu ostean eta lanen amaierako dokumentazioan oinarrituta, Kontserbazio Plan bat emango dio mantentze-lanen ardura duen erakundeak kontrol-organo eskumendunari, bertan jasota prebentziosko mantentze-lanetarako aurreikusi diren neurriak.

**68. artikulua. Ondare kultural-materialaren gaineko jarduketa-prozesuaren faseen edukia**

Ondare arkeologikoaren eta eraikitako ondarearen barruan azpimarragarriak diren elementuei egiten die erreferentzia hemen azaltzen diren faseen edukiak. Ondare etnografikoaren "elementu txiki" deritzen kasuan (iturriak, karobiak, ikaztegiak eta abar), elementu bakoitzaren garrantziarekiko proportzionala izan beharko du azterketaren sakontasunak.

– Lehen fasea: Azterketa

Plan bereziak berak ematen duen informazioa oinarri gisa hartuta, aurrediagnostiko bat egingo da dagozkion proiektu teknikoen hasierako erabakiak hartzen laguntzeko.

Analisi historikoaren helburua izango da jarduketaren xede-elementuaren eraikuntzaren une desberdinekin erlazionatutako gertaera, inguruabar eta pentsamoldeak ezagutzea, datatzea, deskribatzea eta interpretatzea, baita elementuaren bilakaera, izaera, erabilera, narriadura, hondatzea eta zaharberitzea ezagutzea ere.

Esparruan sartuta dagoen ondareari buruzko dokumentuzko iturrietan oinarrituta egingo da azterketa-lan hori eta ondarearen historia- eta eraikuntza-ikerketan zein eta ikerketa historiko-artistikoan sakonduko du. Beraz, azterketaren xedea izango da multzoa zein elementu bakoitza behar bezala baloratzea, jatorrizkoak diren aldeak eta dela gutxi esku-hartutakoak bereiztea, multzoa azaltzen duten eraikuntza-faseak, egungo egoeraren arrazoi historikoak eta abar.

Analisi materialari dagokionez, elementu bakoitzaren ikerketa geometriko formala egin beharko da gainontzeko lanetarako dokumentu-oinarri eraginkor gisa. Hortaz, jatorrizko proiektuaren eraikuntza-planoak berreskuratuko dira ahal den guztietan (erlijio-erabilera duten eraikinen edota eraikin berriagoen kasuan) eta argazkien artxibo historiko baten bidez zein gaur egungo argazki-artxibo baten bidez osatuko dira.

Eraikuntza-ikerketa fisikoaren helburua izango da multzoaren portaera ezagutzea eta, beraz, balizko esku-hartzeak bideratzeko erabakietarako gakoak emango ditu. Horri dagokionez, lehen-tasuna emango zaie ezkutuko kalte edo okerdurak antzemateko egitura-analisiei.

Azterketa soziologikoaren bidez jakingo dugu monumentuak Laudion eta inguruetan duen garrantzia, kolektibitatearentzako monumentuak duen erabilera-balioa aztertuta eta herritarrengan pizten dituen itxaropenak ikertuta.

Bigarren fasea: Hausnarketa

Jasotako faktore guztien behar bezala ebaluatuta eta aurreikusitako jarduketetarako benetan dauden ekonomia baliabideen erabilgarritasuna zenbatetsita, galdera hauek erantzungo dira:

nolakoa zen - nolakoa da - zer eskatzen zaio - nolakoa izan behar du

Fase honetan zehaztuko da monumentuak behin betiko har dezakeen funtzioa, betiere, horri dagokionez plan berezian ezartzen diren mugak kontuan hartuta. Behar bezala justifikatu beharko da espazio bakoitzerako aurreikusi diren erabilerak egokiak direla, edukitzailearen eta edukiaren arteko koherentziarik handiena lortzeko eta kokapen desegokiak saihesteko. Hala bada, aipatu egin behar da elementu bakoitzaren araubide zehaztuak barne hartzen dituela erabileren kokapen zuzen hori lortzen laguntzeko zenbait jarraibide.

Oinarri horiek izanda erabakiko dira parte bakoitzaren gainean bideratu beharreko ekintza zehatzak. Besteak beste, eraberritzeko, birgaitzeko, berreraikitze, kentzeko edo eranstea aukerak aztertuko dira, betiere, plan berezian elementu bakoitzerako xedatu diren zehaztapenei jarraikita.

Hirugarren fasea: Esku-hartzea

Plan berezia indarrean sartu ondoren, kasuan kasuko esku-hartzea nolakoa izan behar den teknikoki definitzeko egikaritze-proiektuak idatzi ahalko dira.

Udalaren zein foru-administrazioaren eskumena da bermatzea idazketa taldeen, obra-zuzendaritzaren eta eraikuntza-zuzendaritzaren egokitasuna bermatzea proiektua idazteko fasean nahiz obrak egikaritzean.

Obra egin ondoren, eraikin bakoitzaren bilakaeraren jarraipena eginda, esku-hartze osoaren egokitasuna baloratu ahalko da.

Azkenik eta plan berezia idazteko fasearekin bat, kontuan hartuko da herritarren parte-hartzea ondarearen gainean esku hartzeko beste elementu gisa.

Abiaraziko diren ekintza-ildoak jarraibideek oinarri gisa izango dute kolektibitateak duen papera zaharberitze objektiboari dagokionez. Herritarrek prozesu osoan parte hartzeko bete-beteko justifikazioa da Laudioko auzokideak Ermualde parkearen erabiltzaile nagusiak direla eta erabilera hori ahalik eta bisitari gehienei zabaltzeko asmoa dagoela.

Bideratuko diren ekintzen helburu nagusia izango da bermatzea herritarrak direla emaitzen onuradun nagusiak, horretan baitatza eragiketa osoaren arrakasta. Hortaz, proiektu zehatzak modu arrazoituan azaltzea eta horien dibulgazioa egitea bultzatuko da, obren lekuetara bisitaldi didaktikoak antolatuta edo inaugurazioak herritarren parte-hartzeari irekita.

Laugarren fasea: Prebentziozko kontserbazioa

Egin beharreko prebentzio-azterlanen ondorioak oinarri gisa hartuta, prebentziozko mantentze-plana prestatuko da, inbentarioan jasotako eta esku-hartzea jasandako ondarea behar bezala kontserbatzeko. Azterlan horiek esku-hartze prozesuan jasotako dokumentazioan oinarrituko dira eta bermatu egin beharko dute ondarearen zati bakoitzari aplikatutako baliabideak errentagarri direla eta behar bezala erabili direla.

### 3.2 Ondare arkeologikoaren araubidea

#### 3.2.1 Ondare arkeologikoaren araubide orokorra

#### **69. artikulua. Ondare arkeologikoaren definizioa**

Plan bereziaren esparruko ondare arkeologikoaren barruan sartzen dira balio historikoarengatik, artistikorengatik, urbanistikorengatik, etnografikorengatik, zientifikorengatik, teknikoarengatik edota sozialarengatik babestea eta defendatzea merezi duten ondasun higigarri eta higiezin guztiak, baldin eta horiek ikertzeko arkeologiako metodologia aplikatu behar bada.

#### **70. artikulua. Planak ondare arkeologikoaren inguruan dituen eskumenak**

Plan bereziaren zeregina da eremuan dagoen ondare arkeologikoaren elementuak kontserbatu, ikertu eta dibulgatzen direla zaintzea eta, horretarako, hiru jarduketa-ildo planteatuko dira:

1- Eraginkorki babestea dagoeneko arkeologia-presuntziodun zona gisa izendatutako eremua, Laudioko 15.a, hain zuzen ere, "Ermuko Andra Mariren Santutegi" deritzona.

2- Babes-araubidea aplikatzea Eusko Jaurlaritzak oraindik ezarri ez dituen beste zenbait eremutan, inbentarioko elementu jakinetarako araubide zehaztuaren bidez. "plan bereziko zona arkeologiko" terminoa erabiliko da aurreko kasutik bereizteko.

3- Eremuaren ikerketa-plan historiko-arkeologikoa bideratzen laguntzea eta ikerketa planari jarraipena eta egonkortasuna ematea.

#### **71. artikulua. Ondare arkeologikoaren erregulazioa**

Plan bereziaren esparruaren barruko ondare arkeologikoaren erregulazioari dagokionez, 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal kultura ondareari buruzkoa aplikatuko da, zehazkiago, IV. atalburua.

Aipatutako arauaren zenbait artikulua jaso dira jarraian, esku-hartzeak interpretatzeko erabilgarri izango direlako. Hain zuzen ere, plan bereziaren xedapenetan erabiliko diren terminoak definitzen dituzten artikulua dira hemen jasotakoak.

#### 44. atala.

I. Euren azterlanetarako arkeologi metodologia erabiltzea beharrezko izan dadineko ondasun higigarri edo higiezinakoak daudeneko toki guztiak joko dira zona arkeologikotzat. Edonork bisitatzeko moduan dauden ondare-multzo eta arkeologia-aztarnak arkeologia-gunetzat joko dira. (...)

#### 45. atala.

1. Euskal Autonomi Elkartearen lurralde-eremuan arkeologia eta paleontologiazko, lurreko nahiz urpeko lanak egiteko, dagokion Foru Aldundiak aurrez eman beharko du baimena, lur-ateraketarik gabeko arkeologia-bilaketarako salbu; horrelakoetan, jakitera ematea aski izango da.

2. Hurrengo hauek joko dira arkeologia- eta paleontologia-lantzat: kobazuloetako arteari buruzko ikerketak, bilaketak, zundaketak, hondalanak, arakatzek eta arkeologia edo paleontologiazko ondasun zein aldeetan eraginik izanezko bestelako guztiak, hurrengo zehaztapenen arabera:

A) Prospekzio arkeologikoa: historia edo paleontologia aldetikako aztarna-mota guztiak bilatzea helburu duen lur-miaketa da. Erabili beharreko teknikaren arabera, prospekzio arkeologikoa mota hauetakoa izan daiteke:

a) Lur-ateraketarik gabeko bilaketa; hau, bere aldetik, honako zatitan banatzen da:

- Ikusizko prospekzioa: azaleko miaketa da, lurra aztertuta.
- Prospekzio geofisikoa: fisika-zientziak erabilita lurrazpia ikertzea.

b) Lur-ateratzeko bidezko prospekzioa, honako zatitan banatua:

– Laginketa bidezko prospekzioa: aurrez mugatutako toki batean arkeologia-aztarnategirik dagoen ala ez egiaztatzeko egiten den lur-ateratzea da. Lehenengo arkeologia-aztarnak agertzen direnean emango da bukatutzat.

– Prospekzio mekanikoa: zundaketa mekaniko bidez lekuko bat ateratzea. Lehenengo arkeologia-aztarnak agertzen direnean emango da bukatutzat.

B) Zundaketa arkeologikoa: lan osoarekiko proportzionala den neurri txikiko hondalana da eta arkeologia-aztarnategi bateko kultur-hurrenkera arakatzeko izaten da.

C) Indusketa arkeologikoa: aztarna arkeologiko edota paleontologikoak ikertzea, dokumentatzea eta lurretik ateratzea da, betiere, jalkinen estratigrafia kontuan hartuta.

D) Kontrol arkeologikoa: arkeologiaren aldetik interesgarri izan daitekeen gune bati eragiten dioten edo eragin diezaioketen lanetan esku-hartzea da hau eta lan horien ikuskaritza egitean datza, lan horietan azal daitezkeen aztarnak edo arkeologia-intereseko osagaiak agiritartzeko edo horiei bere onean eusten laguntzeko neurri egokiak ezarriz.

E) Haitzuloetako artearen ikerketa: arkeologia-metodoaz iker daitezkeen haitzuloetako agerpenen zein horien ingurunearen ikerketak, irudizko agiriek eta erreproduzioak egitera zuzendutako landa-lanek osatzen dute hau.

3. Aztergai horien iraupena arriskuan dagoenean, jardun hauek presazko jitea izango dute eta horretarako, aldarrikapen hori bere baitan izanezko administrazio-jardunbidea ezarri beharrekoa izango da.

4. Dagokion Foru Aldundiak araudi bidez finkatuko ditu nahitaezko baimenak emateko baldintzak eta horiek ematek eratortzen diren erantzukizunak. Nolanahi ere, baimenaren jabeak Eusko Jaurlaritzaren kultura eta turismo sailari bidaliko dizkio nahitaezko txosten eta memorien kopia, baita lortutako materialen zerrenden kopia ere, jatorrizko estratigrafia jasota utzita.

5. Kalifikatutako edo inbentarioan jasotako eremu edo ondasunei eragiten dieten edozein eratako lanen ondorioz, arkeologia-jarduna beharrezkoa denetan, suztazaileak dagokion arkeologi egitasmoa aurkeztu beharko dio dagokion Foru Aldundiari, lan horiek egiteratu baino lehen onartzeko. Titularrak finantzatu beharko ditu eragina duten lanak zuzenbide publikoko erakundeak badira. Bestelakoetan, gastuen zati bat bere gain hartuta partaide izango da dagokion Foru Aldundia, arau bidez finkatutako baldintzetan laguntzak emanda, behintzat, beharrezkotzat jotzen den proiektua zuzenean egikaritzen ez bada. Dena dela, arkeologia-lanak izango duen kostu osoaren ehuneko 50 ordaintzera behartuta dago Foru Aldundia.

6. Behar bezalako lanbide-gaitasunik ez izatea edo aurkeztutako arkeologia-egitasmoa egin nahi den lanerako egokia ez izatea gertatuz gero, Foru-Aldundiek ukatu egin beharko dute arkeologia- eta paleontologia-lanak egiteko baimena.

Planean proposatutako ikerketa-prozesu historiko-arkeologikoaren kalterik gabe, ondareari buruzko 7/1990 Legearen 49. artikuluan xedatutakoa beteko da inbentarioan jasotako elementuetan egin nahi diren obrei dagokienez:

#### 49. artikulua

1. Arkeologia-aztarnak daudela uste deneko alde, orube edo etxeetan, jabeak edo egin nahi diren lanen suztazaileak orube edo etxearen arkeologia-aldeetikako balioari eta lanen egitasmoan izan dezakeen eraginari buruzko azterlana egin beharko dio.

2. Azterlana egin ondoren, Foru Aldundiak erabakiko du arkeologia-egitasmoa beharrezkoa den ala ez eta, guztia ikusirik, obra-lizentzia eman baino lehenagoko aitzin-baimena emango dio. Arkeologia-egitasmoa idazteari eta egikaritzeari dagokionez, 45.5 atalean jasotako diru-laguntzen arabidean agindutakoa beteko da.

49. atalean aipatzen den azterlanaren edukia 234/1996 Legearen 7. artikuluan definitzen da; artikulua horretan bertan ezartzen da presuntzio arkeologikoa zehazteko arabidean.

Planearan presuntzio arkeologikoko zona gisa zehaztutakoak alde batera utzita, Foru Aldundiak berak zuzenean egikaritu ahaliko du edozein esku-hartze arkeologiko, betiere, ondareari buruzko 7/1990 Legearen zehaztapen hauei jarraituta:

#### 50. artikulua

1. Arkeologi edo paleontologia-intereseko aztarnak ezagunak direneko edo egon daitezkeela uste deneko tokietan Foru Aldundiek artez egin ahal izango dituzte edozein eratako arkeologi lanak, horretarako bizkortasun-arauari jarraiki jokatuz eta ahalik eta kalterik gutxien egiten saiatuz. Jardun hauetan eragindako kalteak diruz neurtu ahal izanez gero, aldi baterako okupazioerarako nahitaezko desjabetzeen Legean adierazitakoaren arabera emango dira kalte-ordainak.

2. Foru Aldundiek, era berean, beharrezko arkeologia-lanak egikaritzeko agindua eman ahal izango dute 45.5 atalean agindutakoa bete ez izanagatik zaingoa edo dokumentazioa arriskutan duten zona arkeologiko zerrendatuetan, dagokion arkeologia-egitasmoa aurkeztu eta onartu ondoren. Horrelakoetan, arkeologia-egitasmoaren finantzazio osoa lege-hauslearen konturakoa izango da. Bitartean, arkeologia-ondarea arriskutan jartzen duten jardun guztiak badaezpada etenda utzi ahal izango dira. Ondorio hauek ez dute zerikusirik izango jar daitezkeen zigorrarekin.

#### 72. artikulua. Plan bereziko zona arkeologikoak

“Plan bereziko zona arkeologikotzat” hartzen dira plan bereziaren fitxetan edota araudi honetan zehazten diren eremu nahiz ondare-elementuak, baldin eta euren kokapenarengatik, morfologiarengatik edo ibilbide historikoarengatik metodo arkeologikoen bidez ikertu badaitezke.

Ez da beharrezkoa Foru Aldundian eskumena duen organoak inbentarioan elementuok aurretik jaso izana; planaren beraren interes espezifikoei zehaztuko dute kategoria horretan sartzea ala ez.

Plan berezian interesgarritzat jotako eremuak dira, irizten baitaio Euskal kultura ondarearen zati izateko nahikoa balio dutela edo eremuok ikertuta historia eta kultura hobeto ezagutzeko alderdi esanguratsuak ager daitezkeela.

Euskal kultura ondareari buruzko 7/90 Legearen III. atalburuan ezarritako babes-arabidea aplikatuko zaie eta, zehazkiago, Lege horren 45.5. artikuluan araututakoa, araudi honen aurreko artikuluan jasotakoa.

Bestela esanda: eremu horietan eragina izan dezaketen edozein obra-proiektu martxan jarri aurretik, Arabako Foru Aldundiaren ondare zerbitzuak ikuskatutako eta baimendutako proiektu arkeologikoa prestatu beharko da. Horrela, obren kontrol publikoa bermatzen da, baina herritarren gain utzi gabe azkenean ez-beharrezkotzat jo daitezkeen proiektu arkeologiko garestien finantzazioa.

Babes-eremuen tipologia hauek ezarri dira:

- (A). Hormen barruko eremua.
- (B). Eraikinaren hormen barruko eremua eta kanpoko ertzetik 15 metro perimetroaren inguruan.
- (C). Elementuak hartzen duen eremua eta, kanpoko ertzetik, 5 metro elementuaren inguruan.
- (D). Eraikinak eta horri atxikitako instalazioek hartzen duten eremua.

(E). Planoan edo araudian zehaztutako eremua.

### 3.2.2 Ondare arkeologikoaren araubide partikularra

Jarraian datozen artikuluetan zehaztu dira babes arkeologikoren bat duten zonak eta elementuak, hala Euskal Autonomia Erkidegoko ohiko organoek ezarritako babes arkeologikoa, nola plan bereziak berak ezarritakoa.

#### **73. artikulua. Ermuko santutegia (P1.01, P1.02, P1.03, P1.09, P1.10)**

Laudio udalerriko presuntzio arkeologikoko 15. zona, B babes maila duena, EHAOren 129. zenbakia (1997-07-08).

Euskal ondareari buruzko 7/1990 Legean eta araudi honetan ez arri da elementuaren araubidea.

Eremu honen barrua sartzen da elizak, atariak, sakristiak, kanpandorreak, iturriak eta horren biltze-sistemak, perimetroko eremu mailakatuak eta Santa Luzia baselizak hartzen duten azalera. Horrez gain, eraikinaren hormen barruko azalera eta eraikinaren kanpoko ertzetatik 15 metro hartzen ditu inguruan.

#### **74. artikulua. Apaizaren etxea (P1.4)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, C babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Barne hartzen du 441 lurzati osoaren babes-eremua, gaur egun ere garai bateko eraikinaren proiektio gisa jarraitzen duena.

#### **75. artikulua. Benta baserria (P1.05)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, C babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Barne hartzen du garai bateko labearen eremua, fatxada nagusiaren aurrekoa. Gaur egun ez dago laberik. Santa Luzia baselizatik gertu dagoenez, santutegiko multzo arkeologikoaren beste zati bat da.

#### **76. artikulua. Larrineko baserria (P1.06)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, D babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Barne hartzen du gaur egungo eraikinaren babesa. Santutegiko multzoarekiko duen kokapenari esker, multzo historikoaren mugak definitzeko lagungarri izan daiteke.

#### **77. artikulua. Salabari baserria (P1.07)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, B babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Barne hartzen ditu 1095 lurzatiaren barruan dagoen garai bateko baserriaren eremuaren proiektioa eta horren kanpoko perimetrotik 15 metroko eremua. Horrela, santutegiaren beraren zona arkeologikoarekin erlazionatuko da.

#### **78. artikulua. Bolalekua (P1.08)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, C babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Santutegiko multzo arkeologikoa osatzen du eta hegoalderanzko azken mailakatzeko eremu ezaguna eransten dio, elizaren gorputzeko gainerako zapalda edo mailekin erlazionatuta.

**79. artikulua. San Antonio eta Santa Apolonia basiliza (P.2.01)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, C babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Habeartearen eta atariaren barruko aldea hartzen du, baita sarbidearekin erlazionatzen duen perimetro-zona bat ere. Kokapenaren jatorriak interesa du, santutegiaren aurreko tenplu edo otoiztegi txikia den heinean.

**80. artikulua. Ikastetxe zaharrak (P.2.02)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, D babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Santutegiarekin erlazionatutako interesa. Gaur egungoaren aurreko eraikina egon daiteke.

**81. artikulua. Hormak eta zapaldak (P.2.03)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, E babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Ikertzeko eremuak Ermuko azalera zapalduak, santutegiaren ondoan daudenak hartzen ditu, konfigurazio historikoarekin erlazioa baitute. Potentziala zenbatesteko ikerketa arkeologikoaren arabera definituko da irismena eta kokapena eta zapaldak inguruko gainerako elementuen datu eta eremuekin erlazionatuko dira.

**82. artikulua. Garberako galtzada (P.2.05)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, E babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Galtzadaren eraikuntza-elementuak eta datatzen lagunduko duten beste datu batzuk ezagutzeko interesa, galtzada eraikitzeke arrazoiak argitzeko asmoz.

Azterlanerako eremurik egokienak identifikatuko dituen ikerketa baten arabera zehaztuko da jarduera arkeologikoaren kokapen zehatza, kontuan izanda euste-hormak erortzearen ondorioz, gaur egun zenbait sektorek sekzioa agerian dutela.

**83. artikulua. 1. elementua: Askango zapaldak (P.2.06)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, E babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Galtzadaren eraikuntza-elementuak eta datatzen lagunduko duten beste datu batzuk ezagutzeko interesa, galtzada eraikitzeke arrazoiak argitzeko asmoz. Interesa santutegiarekin izan dezakeen erlazioarengatik.

Azterlanerako eremurik egokienak identifikatuko dituen ikerketa baten arabera zehaztuko da jarduera arkeologikoaren kokapen zehatza.

**84. artikulua. 5. elementua: eraikuntza-aztarnak (P.2.10)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, C babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Galtzadaren eraikuntza-elementuak eta datatzen lagunduko duten beste datu batzuk ezagutzeko interesa, galtzada eraikitzeke arrazoiak argitzeko asmoz. Interesa santutegiarekin eta horri lotutako baratze-eremuarekin izan dezakeen erlazioarengatik.

**85. artikulua. 6. elementua: eraikuntza-aztarnak (P2.11)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, C babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Galtzadaren eraikuntza-elementuak eta datatzen lagunduko duten beste datu batzuk ezagutzeko interesa, galtzada eraikitzeke arrazoiak argitzeko asmoz.

**86. artikulua. Erreka-erdiko isurbidea (P 2.12)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, C babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Interesgarria da santutegiko zelaietan duen kokapenarengatik eta gertuko baratzeei dago-kienez izan zezakeen funtzioarengatik. Zelaien goiko aldeko topagune fokala da.

**87. artikulua. Elurzuloa (P2.14)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, C babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Interesgarria da elementua datatzen lagunduko duten datuak ezagutzeko, baita eraikuntza-ti-pologia eta ustiatze modua ikertzeko ere. Baliteke erlazioa izatea santutegiarekin.

Zuloaren kareorezko eta harrizko hormek bere horretan diraute, baita balizko estalki baten gainerako materialek ere.

**88. artikulua. Goikoetxe baserria (P3.01)**

P. B. ko zona arkeologiko gisa aitortua, C babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Interesgarria da Isusiko mendi-lepoan duen kokapenarengatik, antzinako biztanle-kokagune bat izan daitekeelako. Baserria eta aurretik bertan egon zitezkeen gainerako eraikinak datatzen lagunduko duten datuak bildu behar dira.

**89. artikulua. Andikoa baserria (P3.02)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, C babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Interesgarria da Isusiko mendi-lepoan duen kokapenarengatik, antzinako biztanle-kokagune bat izan daitekeelako. Baserria eta aurretik bertan egon zitezkeen gainerako eraikinak datatzen lagunduko duten datuak bildu behar dira, kontuan hartuta baserriaren eraikina bikoitza dela.

**90. artikulua. Beaskoetxe baserria (P3.03)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, C babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Interesgarria da Isusiko mendi-lepoan duen kokapenarengatik, antzinako biztanle-kokagune bat izan daitekeelako. Baserria eta aurretik bertan egon zitezkeen gainerako eraikinak datatzen lagunduko duten datuak bildu behar dira. Eraberritze sakonak jasan ditu eraikinak eta, ziur aski, ez du datu interesgarririk emango arkeologiari dagokionez.

**91. artikulua. Bekoetxe baserria (P3.04)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, C babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Interesgarria da Isusiko mendi-lepoaren erdian duen kokapenarengatik, antzinako biztanle-kokagune bat izan daitekeelako. Baserría eta aurretik bertan egon zitezkeen gainerako eraikinak datatzen lagunduko duten datuak bildu behar dira.

**92. artikulua. Isusi baserría (P3.05)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, C babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Interesgarria da Isusiko mendi-lepoan duen kokapenarengatik, antzinako biztanle-kokagune bat izan daitekeelako. Baserría eta aurretik bertan egon zitezkeen gainerako eraikinak datatzen lagunduko duten datuak bildu behar dira. Isusiko giza kokalekuaren jatorria izan daitekeela uste da.

**93. artikulua. Mintegieta karobia (P3.06)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, C babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Interesgarria da datuak eman ditzakeelako karobiko jarduera aurre-industrialari nahiz eremuko guneko populatuekiko erlazioari buruz.

**94. artikulua. Urrutxi baserría (P4.01)**

P. B. ko zona arkeologiko gisa aitortua, D babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Interesgarria da eraikina datatzen lagunduko duten datuak eta Dubirizeko kokalekuan aurretik egon zitezkeen eraikinei buruzko datuak eman ditzakeelako. Duela gutxi, eraberritze sakonak egin zaizkio barruko aldean eta perimetroko urbanizazioan eta, beraz, arkeologiari dagokionez, potentzial urria izango du.

**95. artikulua. Andikoa baserría (P4.02)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, D babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Interesgarria da multzoaren erdian kokatuta dagoelako eta datuak eman ditzakeelako eraikina datatzen laguntzeko zein Dubirizeko kokalekuan aurretik egon zitezkeen eraikinei buruz gehiago jakiteko. Zinak barne hartzen du atxikitako gorputz eraiki zaharra, gaur egun, zati bat eraikin modernoarekin ordeztua duena.

**96. artikulua. Dubiriz baserría (P4.03)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, D babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Interesgarria da eraikina datatzen lagunduko duten datuak eta Dubirizeko kokalekuan aurretik egon zitezkeen eraikinei buruzko datuak eman ditzakeelako.

**97. artikulua. Landagoikoa baserría (P4.04)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, D babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Interesgarria da eraikina datatzen lagunduko duten datuak eta Dubirizeko kokalekuan aurretik egon zitezkeen eraikinei buruzko datuak eman ditzakeelako.

**98. artikulua. Lusurbei baserría (P5.01)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, C babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Interesgarria da baserria eta aurretik bertan egon zitezkeen gainerako eraikinak datatzen lagunduko duten datuak eman ditzakeelako. Dirudienez, baserriaren barruko aldean ez da egin substratua sakonki aldatu duen eraberritzerik.

#### **99. artikulua. Burkinazko hesia (P5.02)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, E babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Burdinazko hesiak eremuan utzitako aztarna gehienetan sakonki esku hartu den arren azken berreraikitze-lanetan, aukera berririk badago, arkeologia-teknikak aplikatu behar dira. Lanen kokapena eta metodologia eskatzekoa den aurretiazko txostenean utziko dira jasota.

#### **100. artikulua Bideak I: Obikola mendi-lepoa (P5.03)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, E babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Interesgarria da Ermualdeko santutegiari lotutako mugikortasun-azpiegiturak ezagutzeko. Santutegiko mazeletara iristeko bide historiko bat da eta horri lotutako giza kokalekuaren aztarnak gordetzen ditu.

#### **101. artikulua Lezetako leizeak (P5.08)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, E babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Presuntzio arkeologikoa datu hauetan oinarritzen da:

– Urrun ez dagoen Aretxarro leizean (Garbeko troka), Mareazulo leizearen ondoan, J. M. Barandiaranek giza aztarnak aurkitu zituen 1930ean. Gaur egun, desagertuta daude, baina neolitoaren amaieran datatu zituen.

– Badira zenbait albiste (konfirmatu gabe) esaten dutenak Urkixoko markesak Lezetako bi leizeetan egindako indusketa batzuetan neolitoko zeramika aurkitu zela.

Herriarrak eta bisitariak maiz izan dira han eta, beraz, oraindik aztarnategirik badago, oso eraldatuta egon daiteke. Dagokion txosten arkeologikoaren bidez zehaztuko dira kokapena nahiz potentziala.

#### **102. artikulua Kastillozar (P5.10)**

Plan bereziko zona arkeologiko gisa aitortua, B babes mailarekin.

Araudi honetan ezarritako ondare arkeologikoaren araubidea aplikatuko zaio.

Aurretiazko txostenaren arabera zehaztuko da arkeologia-lanen kokapena.

Interes potentziala du, izar formako gotorleku txikiaren erretenen zein hormen arkitektura-aztarna nabarmenagatik. Bertan arkeologia azterlanak eginda eta eraikinaren erabilera militarri dagokionez, herriaren azken mendeotako historiari buruzko datuak lor daitezke.

#### **103. artikulua Aunia hilarria (P5.11)**

Esparruaren kanpoko zona arkeologikoa.

Plan bereziak ez du bere esparruaren kanpoko elementuak antolatzeko eskudantziarik, baina azpimarratu nahi da AVNIAREN hilarria perimetroaren inguruan aurkitu izanaren garrantzia, inguruneke giza kokaleku goiztiarrei buruzko informazioa eman dezakeelako.

Pieza testuinguru estratigrafikotik kanpo agertu zen arren, interesgarria izan daiteke kokapena berrikustea, han aztarnategi bat egoteko aukera baztertzeko.

### 3.3 Eraikitako ondarearen araubidea

#### 3.3.1 Eraikitako ondarearen araubide orokorra

#### **104. artikulua Eraikitako ondareko elementuen definizioa**

Ermualdeko plan berezian jasotako ondare eraikiaren barruan sartzen dira eranskinei dagokien IV. liburukiko ondare kultural eta materialaren inbentarioan jaso diren arkitektura-elementuak.

Inbentarioan jasotako arkitektura-elementuen multzoaren barruan, hainbat tipologia daude elementuen izaeraren arabera: besteak beste, eraikin handiak (eliza, baselizak, etxebizitzak edota baserriak) eta elementu txikiak (bolalekua, bordak, biltegiak eta abar).

Hala ere, ez da planaren zeregina elementuen haztatze maila absolutu edo erlatiboa ezartzea, irizten baitzaio ez duela erabilgarritasunik kontserbazio-helbururako. Hortaz, plan honek elementu bakoitzari aplikatzen dion erregulazioa ez da aipatutako hierarkian oinarritzen (eraikin txikiak edo elementu txikiak), aldagai multzo batean baizik, besteak beste: kontserbazio-egoera, behar bezala balioesteko eta etorkizunean kontserbatzeko benetako aukerak, ezaugarri tipologikoak, kontserbazio-ahaleginaren proportzionaltasun-printzipioa, lurralde barruko originaltasuna edo berezitasuna, garrantzi historikoa, Planaren esparruan duen garrantzi erlatiboa eta abar.

#### **105. artikulua. Eraikitako ondarearen erregulazioa**

Eraikitako ondarearen gaineko esku-hartzeen araubideari buruz, plan berezi honek bi jarraibide mota islatuko ditu, biak arau izaerarekin:

1. Arau honen "Eraikinen banan-banako araubidea" puntuan, dagozkion artikuluetan azalduko inbentarioko elementu bakoitzerako jarduketa zehaztuak.

2. Birgaitzeko jarduketak, ondare rrbanizatu eta Eraikia birgaitzeko ekimenei buruzko 317/2002 Dekretuan, abenduaren 30ekoan jasotako I. eranskinean "Birgaitzeko esku-hartzeak" izenekoan definitutakoekin bat.

Plan berezi honetan definitutako ondarearen gaineko ekimenen interpretaziorako duen interesagatik, ondoren transkribatuta azalduko da aipatutako 317/2002 Dekretuaren I. eranskinean jasotako definizioak:

##### 1.1 Zaharberitze zientifikoa

1\_Arkitekturaren ikuspegitik berriazko balioak dituela-eta hiri-ehunean berebiziko garrantzia duen eraikin edo instalazio batean eta, hala badagokio, eraiki gabeko lurretan egindako eraikuntzako esku-hartzea da zaharberitze zientifikoa, bere nolakotasunak zaintzera eta balioa ematera bideratutakoa, bere barnean aipatutako balio horiei dagokienez egoki izango den edo diren erabilerak ahalbidetuko dituen.

2\_Eraikuntzaren gai tipologikoak, formalak eta egiturazkoak errespetatuz egindako zaharberitze zientifikoak honako obrak har ditzake barne:

a) Arkitektura-itxura zaharberitzea eta aldatutako zatiak jatorrizko egoerara lehengoratzea honako hauek eginez:

- Barruko eta kanpoko fatxadak zaharberitzea.
- Barruko espazioak zaharberitzea.
- Eraitsi edo erraustutako eraikinaren zati baten edo batzuen berreraikitze filologikoa.
- Jatorrizko espazioen banaketa eta antolaketa zaintzea edo lehengoratzea.

– Eraikuntza-unitatearen zati diren eraikitako lurzoruen (patio, klaustro, plaza, baratze, lorategi eta abarren) jatorrizko egoera zaintzea edo lehengoratzea.

b) Berreskuratu ezin diren zatiak ordezkatzuz sendotzea, ondoren adierazitako egituraren inguruko elementuen kokapena edo kotak aldatu gabe:

– Barruko eta kanpoko karga-horma.

– Forjatu eta gangak.

– Eskailerak.

– Estalkia, estaltzeko jatorrizko materiala lehengoratzea.

c) Eranskin itsusgarriak eta orain gutxiko interesik gabeko obra-motak edo eraikuntzaren, eraikuntza-unitatearen edo bere inguruaren jatorrizko arkitektura ezaugarriekin bat ez datozenak kentzea.

d) Funtsezko instalazio teknologikoak eta higienearen eta osasunaren ingurukoak jartzea, aurretiaz adierazitakoa errespetatzen den heinean.

## 1.2 Zaharberritze kontserbatzailea

1. Arkitekturaren ikuspegitik berriazko baliorik izan ez arren eraikitako ondarearen alderdi interesgarria den eraikin edo instalazio batean eta, hala badagokio, eraiki gabeko lurretan egindako eraikuntzako esku-hartzea da zaharberritze kontserbatzailea. Alderdi interesgarri izan ohi dira tipologiaren ikuspuntutik garrantzizko elementua delako, barruko banaketa, banaketa bertikaleko elementuen antolaketa, lur-zatiko kokapena eta antolaketa edo beste edozein ezaugarri morfologikori dagokienez.

2. Zaharberritze kontserbatzailea eraikuntza zaintzera eta bere funtzionalitatea ziurtatzera bideratutakoa izan ohi da. Horretarako betiere eraikuntzaren elementu tipologikoak, formalak eta egiturazkoak errespetatuko dituzten obrak egingo dira eta horien barnean ez da baimenduko horiekin bat ez datorren erabilerarik. Esku-hartze horrek eraikuntza osatzen duten elementuak sendotzea, zaharberritzea eta berriztatzea, baimendutako erabilerak egiteko beharrezko elementu berriak gehitzea eta eranskin itsusgarriak kentzea hartuko ditu barne.

3. Zaharberritze kontserbatzaileak kategoria hauetan sailka ditzakegu:

1) A kategoriako zaharberritze kontserbatzailea.

2) B kategoriako zaharberritze kontserbatzailea.

3) C kategoriako zaharberritze kontserbatzailea.

4. Honako eraikin hauei aplikatuko zaie A kategoriako zaharberritze kontserbatzailea: beren kontserbazio-egoera dela eta, eraikinaren alderdi tipologiko, formal eta egiturazkoei balioa ematea ahalbidetzen duten eta erabat berreskuratzeko aukera eskaintzen duten eraikuntzei. Honako obra-lan hauek barne har ditzake:

a) Alderdi arkitektonikoari balioa ematea, hau da, jatorrizko balioak berreskuratzea, ondoren adierazitakoak eginez:

– Kanpoko eta barruko fatxadak zaharberritzea. Azken horietako zati batzuk aldatzea ahalbidetuko da, betiere osaketaren batasuna hausten ez den eta balio estilistiko bereziko elementuak errespetatzen diren bitartean.

– Barneko espazioak zaharberritzea, arkitektura edo kulturaren inguruko garrantzi nabarmena duten elementuak direnean.

b) Aurreko idatzi-zatiko bigarren paragrafoko b), c) eta d) puntuetan zehazten direnak.

5.– Honako eraikin hauei aplikatuko zaie B kategoriako zaharberritze kontserbatzailea: kontserbazio-egoera txarra edo erdipurdikoa duten eta, balio berezia duten elementu arkitektonikorik izan ez arren, ondare eraikiaren zati interesgarritzat har daitezkeen eraikuntzei. Honako obra-lan hauek barne har ditzake:

a) Alderdi arkitektonikoari balioa ematea, honako hauek eginez:

– Kanpoko eta barruko fatxadak zaharberritzea. Azken horietan baoak irekitzea ahalbidetuko da, betiere osaketaren batasuna hausten ez den bitartean.

– Barneko espazioak zaharberritzea. Horietan bertako forjatuen kotak aldatzea ahalbidetuko da, betiere leihoen kotei eta erlaitzen lerroei bere horretan eusten zaien bitartean.

b) Egoera txarrean dauden egitura-elementuak sendotzea eta, beharrezkoa denean, ordezkatzeko. Eraikuntzaren zati handi batean forjatuen kotak aldatzeko aukera izango da.

c) Aurreko idatzi-zatiko bigarren paragrafoko c) eta d) puntuetan zehazten direnak.

6. 6. Honako eraikin hauei aplikatuko zaie C kategoriako zaharberritze kontserbatzailea: zaharberritze zientifikoan barne hartu ezin diren erdi erraustutako eraikuntzei, baina jatorrizko eraikuntzako tipoa berrezartzeko aukera eskaintzen dutenei, aurkitutako agiri fidagarriari esker badugulako jatorrizko eraikuntzako tipoaren antolamenduaren berri. Ondorio horietarako, honako obra hauek egin ahal izango dira, arkitekturaren alderdiari balioa emateko helburuarekin:

– Elementu bertikalak eta horizontalak -atariak, eskailera-blokeak, arkupeak, galeriak eta abar- jatorrizko egoerara lehengoratzea.

– Eraikuntza-unitatearen forma, dimentsioak eta eraikuntzaren eta eraikuntza-unitatearen zati irekien —patio, klaustro eta abarren— arteko erlazioa jatorrizko egoerara lehengoratzea.

– Eraikuntzako tipoa osatzen duten gainerako elementu guztiak lehengoratzea.

### 1.3 Zaintzea eta apaintzea

1. Zaintzea eta apaintzea eraikuntzako esku-hartzeetako bat da, honakoak lortzea helburu duena: dauden eraikuntzetako akabera-elementuak konpontzea, berriztatzea edo ordezkatzeko, eraikuntza horietako gutxieneko bizigarritasun-baldintzei (gutxieneko higiene zerbitzuen, bainu, komun eta sukaldeko gasen aireztapenaren eta bizitzeko egoki diren gainerako gelen ingurukoei) eustea edo horiek eskaintzea, uraren hornidura, elektrizitate, berogailu eta saneamenduari dagokienez indarrean dagoen legeriaren arabera instalazio egokiak jartzea, geletako argitasuna eta aireztapena hobetzea, beharrezko izanez gero fatxada-baoak konponduz edo berriak eginez, eta eraikinak narriatzea saihesteko gutxieneko baldintzak eta Dekretu honen II. eta III. eranskinetan zehazten diren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak izateko obra txikiak.

2. Zaintzeko eta apaintzeko esku-hartze batean barne hartutako obrek ez dute eraginik izango eraikuntzaren egonkortasunean, ez zimenduei, ez sostengu-egiturei, ez estalkiaren egiturari dagokienez. Alabaina, nolabait eragina izan dezake azalera erabilgarriaren barne-banaketan, baina eraikinean funtsezko instalazio teknologikoak eta higienearen eta osasunaren ingurukoak jartzeko eta aurrez adierazitako gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzeko helburuarekin bakarrik.

3.– Honakoak izan daitezke zaintzeko eta apaintzeko esku-hartze batean barne hartutako obrak:

a) Fatxaden itxura aldatzen duten obra txikiak, baoetan eragina dutenak edo bao berriak irekitzea eragiten dutenak, horiek lehendik dagoen azalera erabilgarriaren banaketa eta fatxaden osaera orokorra aldatzen ez dituztenean.

b) Estalkia konpontzeko obrak. Hala badagokio, petralak eta bestelako egitura-elementuak ere aldatu ahal izango dira, baina betiere horien formari eutsiz.

c) Eraikinaren edozein elementu inpermeabilizatzeko edo iragazi ezin egiteko obra-lanak.

d) Fatxada, balkoietako hegalkin, begiratoki, erlaitz eta sarbideetako ateetako egurra ordezkatzeko obrak. Horrelakoetan lehendik zeuden material eta diseinuen antzekoak erabili beharko dira, lehengoak hobetzeko horiek aldatzea aholkatzen denean izan ezik.

e) Kaltetuta edo hondatuta dagoen beste akabera-elementuren bat konpontzea helburu duten obrak, horiek egitura- edo sostengu-funtzioren bat dutenean izan ezik.

f) Eraikinaren banaketan eragiten edo hori aldatzen ez duten barneko obrak, besteak beste, luzitzea, pintatzea, zolatzeak egitea eta konpontzea, barneko arotzeria-lanak, iturgintza, berogailu eta fumisteriako konponketak, sukaldeak eta aparatu sanitarioak aldatzea eta funtsezko instalazio teknologikoak eta higienaren eta osasunaren ingurukoak jartzea.

g) Aurrekoen garrantzi bera edo antzekoa duen beste edozein obra.

4.– Zaintzeko eta apaintzeko esku-hartzean barne hartutako obrek eranskin itsusgarriak kentzea eragin dezakete eta egokiak ez diren kanpoko estalduraren tratamenduetan ere eragin dezakete, bai estaldura-materialari, bai, hala badagokio, pintura, kolore eta ehundurari dago-kienez.

#### 1.4 Sendotzea

1.– Sendotzea eraikuntzako esku-hartze bat da, honako helburuetara bideratutakoa: zaintzeko eta apaintzeko esku-hartzeen kasuan adierazitako helburuetara, batetik, eta eraikuntzaren egonkortasuna hobetzera, bestetik. Hori egitura-elementuak berriztatuz eta ordezkatuz egingo da.

2.– Sendotzeko esku-hartze batean barne hartutako obrak honakoak izango dira, zaintzeko eta apaintzeko esku-hartzeen kasuan adierazitakoez gain: egoera txarrean dauden egitura-elementuak ordezkatzea, nahiz eta berriak beste material batekoak izan, eta egonkortasuna eta segurtasuna areagotzea ondorio izango duten egituraren eta zimentazioaren osaketaren inguruko gainerako

3. Egitura-elementuak ordezkatzeko obrek forjatuen kotak aldatu ahal izango dituzte pixka bat, erlaitzaren eta leihoen kotei bere horretan eutsiz.

4.– Egitura sendotzeko obrak egin ondoren, eraikinaren gainerako elementuak berregin beharko dira jatorrian zituzten formaren eta banaketaren inguruko ezaugarrien arabera, aipatutako obra horiek berriz egiteko erraustea eskatzen duten kasuetan.

#### 1.5 Berreraikitzea

1. Berreraikitzea eraikuntzako esku-hartze bat da, honakoa helburu duena: aurrez erraustu egingo den eta zaharberritze zientifikoa edo kontserbatzailea egitea eskatzen duen berariazko arkitektura-baliorik ez duen jatorrizko eraikuntza bat berriz eraikitzea.

2. Berreraikitzeko esku-hartzeetan berreraikitako eraikuntzaren solido inguratzaile berria bat etorriko da, espazioari dagokionez, jatorrizkoarekin. Horrenbestez, lur eta espazio berean kokatu behar du, solairu guztietan azalera berdina izan behar du (bai sotoan, bai goikoetan), azalera eraikigarri berdina izan behar du eta solairuen kopuruak ere berdina izan behar du.

3. Berreraikitzeko esku-hartzeetan ez da ezinbestekoa izango erabiliko diren materialek jatorrizko eraikuntzan erabilitakoen ezaugarri berdinak izatea, ezta barneko banaketa berdina eta fatxaden diseinua zehatza izatea ere. Alabaina, eutsi egin beharko zaie eraikuntzako tipoaren oinarritzko antolamenduari, fatxada aurpegiaren osaketaren oinarritzko elementuei eta estalkiaren antolamendu eta formari

#### 1.6 Berriztatzea

Berriztatzea eraikuntzako esku-hartze bat da, sendotzeko esku-hartzearen kasuan adierazitakoez gain, honako helburuetakoren bat edo guztiak dituen:

a) Barruko espazioen banaketa eta antolamendua aldatzea, aldaketak instalazio teknologikoak eta higienaren eta osasunaren ingurukoak barne hartzean egindako egokitzapenak baino harantzago doazenean.

b) Ondorengo egitura-elementuen kokapena, kota, forma eta dimentsioak aldatzea:

- Barruko hormak eta gangak.
- Pilareak, forjatuak eta gangak.
- Eskailerak.
- Estalkia.

c) Kanpoko eta barruko fatxadak aldatzea, balio estilistiko berezia duten elementuei eutsiz. Betiere osaerak duen batasunari eutsi beharko zaio.

3.3.2 Eraikitako ondarearen araubide partikularra

#### **106. artikulua Eliza (P1.01)**

1. Esku hartzeko araubidea

- Plan bereziko araubidea: zaharberritze zientifikoa.

Laudioko hiri-antolamendurako plan orokorreko araubidea (1995):

- Babestutako eraikinen katalogoa. 20. elementua.
- Audio udalerriko presuntzio arkeologikodun 15. zona, B babes maila duena (plan bereziko 73. artikulua).
- Audioko hiri-antolamendurako plan orokorreko araubidea (1995): babestutako eraikinen katalogoa. 20. elementua.
- Audio udalerriko presuntzio arkeologikodun 15. zona, B babes maila duena (plan bereziko 73. artikulua).
- Komunitate intereserako ondarea 2002ko abenduaren 4ko aginduaren bidez izendatu zen kultura-ondasun, monumentu multzoaren kategorian (20033021. EHAA, 2003ko urtarrilaren 31koa).

1. Helburuak:

1- Eraikina integralki birgaitzea plan zuzentzaile baten bidez. Plan horrek bertako elementu guztiak hartu beharko ditu barne (eliza, elizaren ataria, sakristia, eskailerak, kanpandorra, sarbideak, baseliza etab.), baita metodo zientifikoaren arabera ikerketari dagokionez kontuan hartu beharreko alderdi guztiak ere: historia, datu arkeologikoak, paramentuen estratigrafia bertikala, egitura-analisiak eta abar.

2- Eraikina Ermualdeko parkean integratzea elementu nagusi gisa, erlijio-erabileraz gain, gizarte-erabilerak hartzeko aukerarekin.

3- Udalerriaz gaindi, daukan balioa aitortzea multzoari.

2. Erabilerak:

Erabilera: eraikinak erabilera publikoa eta soziala du.

Erabilera zehaztua: erlijioa, kultura eta hezkuntza.

3. Kontserbatu beharreko elementuak: jatorrizko elementu guztiak eta bereziki:

a. Kanpoko fatxadak: guztiak.

b. Egitura: horien elementu txikiak ere barne hartzen dira, hala nola, egurrezko egituraren juntura-pieza bereziak edo hormetan erabilitako material konglomeratzailea bera (jatorrizko kareoreak).

c. Egitura finkatzeko prozesuan, jatorrizko elementuei beharrezko analisiak (petrografikoak, kimikoak, kartografikoak etab.) egin ondoren, material berriak erabiltzeko aukera egongo da narriatutako materialak edo falta diren materialak ordeztzeko, betiere, esku hartzeei dagokienez 63. artikuluan adierazitako printzipio orokorrekin bat.

d. Fatxadako baoak: jatorrizko guztiak. Barne hartzen dira zenbait hormatako bao itsutuak eta beteak.

e. Amaituak: kanpoko zein barruko jatorrizko zoladurak, gaur egun, ia guztiz desagertutakoak (zarpiatzeen hondakinak, pinturak eta abar.)

f. Dekorazioa: fitxan aipatutako jatorrizkoa, gaur egun, leiho, gezizulo eta ateetako moldeetan dagoena. Barne hartzen dira P1.11. fitxan jasotako harlanduzko pieza solteak.

g. Ondasun higigarriak.

4. Kendu beharreko elementuak:

a. Kanpoko zein barruko perimetroko hormetako zementuore edo zementu-morteroak.

b. Betoizko teila. Jatorrizkoaren antzeko zeramikazko teila arabiarrarekin ordeztu.

c. Erreten edo teilatu-hodien sistema: sistema diskretuagoekin ordeztea. Drainatze egokiak, gargolak, kanalizazioak kontzentratzea, barruko teilatu-aska etab.

d. Jatorrizko eraikinarekin zerikusirik ez duten elementu industrialak, esaterako, bandaloen kontrako hesi-sistemak, leihoetarako babes-sareta metalikoak. Sistema diskretuagoekin ordeztea.

5. Lehentasuna duten jarduketak:

a. Kontserbazio-egoeraren aurretiazko txostena, egituraren kontrolarekin eta antzemandako patologiekin.

b. Plan Zuzentzailea Egituraren azterketarekin.

c. Birgaitze-proiektuak.

d. Elementu itsusgarriak ordeztea.

e. Birgaitze-prozesua, barne hartuta ingurunearen berregokitzea antolamendu berriaren arabera (O.04 plano).

#### **107. artikulua Kanpandorra (P 1.02):**

1. Esku hartzeko araubidea

– Plan bereziko araubidea: zaharberritze zientifikoa

Laudioko hiri-antolamendurajo plan orokorreko araubidea (1995):

– Babestutako eraikinen katalogoa. 20. elementua.

– Laudio udalerriko presuntzio arkeologikodun 15. zona, B babes maila duena (plan bereziko 73. artikulua).

– Laudio hiri-antolamendurako plan orokorreko araubidea (1995): babestutako eraikinen katalogoa. 20. elementua.

– Laudio udalerriko presuntzio arkeologikodun 15. zona, B babes maila duena (plan bereziko 73. artikulua).

– Komunitate intereserako ondarea. 2002ko abenduaren 4ko Aginduaren bidez izendatu zen kultura-ondasun, monumentu multzoaren kategorian (20033021. EHAA, 2003ko urtarrilaren 31koa).

**2. Helburuak:**

- 1- Oraindik beren horretan jarraitzen duten jatorrizko elementuak kontserbatzea.
- 2- Birgaitze integrala, kontserbazioa eta erasoen aurkako babesa.

**3. Erabilerak:**

Santutegiko berberak.

**4. Kontserbatu beharreko elementuak: jatorrizko elementu original guztiak eta bereziki:**

- a. Barruko eskailera.
- b. Harlanduan grabatutako testua, azken garbiketaren ondoren irakurri ezina ia.

**5. Kendu beharreko elementuak:**

- a. Betoizko teila. Jatorrizkoaren antzeko zeramikazko teila arabiarrarekin ordeztu.

**6. Lehentasuna duten jarduketak:**

- a. Elementua Santutegiko multzoa birgaitzeko prozesuan sartzea.

**108. artikulua Santa Luzia basiliza (P 1.03)****1. Esku hatzeko araubidea**

- 105. artikulua. Zaharberitze zientifikoa.
- Laudioko hiri-antolamendurako plan orokorreko araubidea (1995): babestutako eraikinen katalogoa. 20. elementua.
- Laudio udalerriko presuntzio arkeologikodun 15. zona, B babes maila duena (plan bereziko 73. artikulua).
- Komunitate intereserako ondarea. 2002ko abenduaren 4ko Aginduaren bidez izendatu zen kultura-ondasun, monumentu multzoaren kategorian (20033021. EHAA, 2003ko urtarrilaren 31koa).

**2. Helburuak:**

- 1- Behar bezalako kontserbazioa eta mantentze-lanak.
- 2- Ermualdeko espazioaren barruan sartzea (O.06 plano).

**3. Erabilerak:**

Erabilera: eraikinak erabilera publikoa eta soziala du.

Erabilera zehaztua: erlijioa, kultura eta hezkuntza.

**4. Kontserbatu beharreko elementuak: jatorrizko elementu original guztiak eta bereziki:**

- a. Berrerabilitako harlanduetako marrazkiak.
- b. Santa Luzia iturria, barne hartuta ezkutuko elementuak, esaterako, lurpeko iturburua, ubideratzea eta abar.
- c. Akaberak, esaterako, errekarritz egindako zoladurak eta homa-irudiak (agerikoak zein ezkutak).

**5. Kendu beharreko elementuak:**

- a. Bat ere ez.

**6. Lehentasuna duten jarduketak:**

- a. Baselizarekin lotutako iturriari eta inguruan duen espazioari balioa itzultzea.

b. Mantentze-lanak.

**109. artikulua Apaizaren etxea (P 1.04)**

1. Esku hartzeko araubidea:

- Plan bereziko araubidea: berreraikitzea.
- Plan bereziko zona arkeologikoa, C babes mailakoa, 74. artikulua.

2. Helburuak:

1-Eraikina Ermualderen mesedetan berrerabiltzea, eremu osoa suspertzeko euskarri gisa.

2-Eraikinaren fatxadak Ermualdeko zelaian duen protagonismoa murriztea santutegiaren mesedez.

3-Eraikinaren ingurutzailak eremu osoaren irudi orokorrari eransten dion “itxura historiko faltsuaren” nahasmenak eragozteak.

3. Berreraikitze baldintzak:

Mugimendu-eremuak 441. lurzatiaren barruko azalera hartzen du, murriztapen hauekin:

– Nahitaezko lerrokadurak gaur egungo fatxadak dira, ekialdera orientatutakoa kenduta; azken hori 1080 lurzatiaren mugaraino mugitu ahalko da, garai bateko eraikinaren oinplano-okupazioa berreskuratzeko.

– Bolumen berriak gaur egungo eraikinaren solairu kopuru bera izango du: behekoa, lehenengoa eta teilatupea.

– Teilatuaren koroatze-altuera gaur egungo eraikinaren berbera izango da.

2. puntuan adierazitako diskrezio-helburuak bete beharko dituzte eraberritzearen edo berreraikitzearen kanpo-baldintza estetikoek, baldintza hauekin batera:

– Ez dira onartuko Ermualdeko historian egon ez diren “eraikin edo itxura historiko faltsuak”, euskal baserriaren ustezko tipologia imitatzeak, ezta bestelako erregionalismorik ere (mendiko etxeak, Alpeetako txaletak).

– Arkitektura-hizkera eguneratua erabiltzea onartzen da.

– Apaizaren garai bateko etxearen arkitektura-tipologiaren hizkera bera erabiltzea onartuko da, betiere, behar bezala frogatutako justifikazio historikoa oinarri hartuta.

– Kanpoko akabera emateko, bertoko arkitekturaren ageri diren materialak erabiliko dira, besteak beste: kareorea, harria, zura eta zeramika.

– Esanbidez debekatzen dira material distiratsuak eta, oro har, akabera metalikoak erabiltzea, jarraituak izan zein ez.

– Ez da eraikinaren erabilerekin lotutako ibilgailurik egongo area libre egituratzailearen eremuan.

4. Erabilera:

Erabilera: eraikinak erabilera publikoa eta soziala du.

Erabilera onargarria: erabilera nagusiari lotutako bizitegi-erabilera.

5. Kontsebatu beharreko elementuak:

a- Garai bateko eraikineko egitura edota elementuak.

6. Kendu beharreko elementuak:

a- Hormigoi armatuzko albo-horma, hesi metalikoa eta argindarraren zutoina.

b- Txarto integratutako eranskinak eta, oro har, lurzatian zehar sakabanatutako hondakinak eta zarama.

7. Lehentasuna duten ekimenak:

a- Eraikina egokitzea eremu osoa suspertuko duen erabilera posible baterako.

b- Ekialdeko fatxada eraberritzea.

#### **110. artikulua Larrineko baserria (P 1.06)**

1. Esku hartzeko araubidea:

– Plan bereziko araubidea: A kategoriako zaharberritze kontserbatzailea.

– Plan bereziko zona arkeologikoa, D babes mailakoa, 76. artikulua.

2. - Helburuak:

1-Eraikina berreskuratzea erabateko birgaitzearen bidez.

2-Baserria desagertzekotan, Ermualdek jasango lukeen balio-galera eragozte.

3. Erabilerak:

Erabilera: eraikinak erabilera publikoa eta soziala du.

Erabilera onargarria: Bizitegi-erabilera, aurretik eraikitako baserrian.

4. Kontserbatu beharreko elementuak: jatorrizko elementu guztiak eta bereziki:

a-Jatorrizko barne-egitura

b-Kareorezko jatorrizko kanpo-estalkia.

5. Kendu beharreko elementuak:

a- Nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutako kanpo-hesi metalikoak.

6. Lehentasuna duten jarduketak:

a- Eraikinaren egungo egoerari buruzko txostena, barne hartuta egituraren eta patologien azterketa.

b- Eraikina egokitzea eremu osoa suspertuko duen erabilera posible baterako.

#### **111. artikulua. Salaberri baserria (P 1.07)**

1. Esku hartzeko araubidea:

– Plan bereziko araubidea: 105. artikulua: baldintzatutako berreraikitzea eta sendotzea.

– Plan bereziko zona arkeologikoa, B babes mailakoa, 77. artikulua.

2. Helburuak:

1-Zonan ingurumen-birgaitzea egitea, Ermualden duen kokapen garrantzitsua kontuan hartuta.

2-Esku-hartzea diskrezioz integratzea, kontuan hartuta santutegiak izan behar duela eszenaren protagonismoa, ez santutegiarekin lotutako elementuek.

3-Garai bateko eraikinak hartzen zuen espazioa berreskuratzea parkearen funtzioetan lagungarri izango diren erabilera berrietarako.

3. Berreraikitzeko baldintzak:

Mugimendu-eremuak garai bateko eraikinak okupatzen zuen azalera hartzen du, murriztapen hauekin:

– Bolumen berriak gaur egungo eraikinaren solairu kopuru bera izango du: behekoa, lehenengoa eta teilatupea.

– Teilatuaren koroatze-altuera gaur egungo eraikinaren berbera izango da, gehienez.

2. puntuan adierazitako diskrezio-helburuak bete beharko dituzte eraberritzearen edo berreraikitzearen kanpo-baldintza estetikoek, baldintza hauekin batera:

– Ez dira onartuko Ermualdeko historian egon ez diren “eraikin edo itxura historiko faltsuak” euskal baserriaren ustezko tipologia imitatzeak, ezta bestelako erregionalismorik ere (mendiko etxeak, Alpeetako txaletak).

– Orubea egoteko leku gisa, jolasleku gisa, piknikgune gisa edo aterpe gisa erabili ahalko da; gogora ekar daiteke han baserria zegoela, baina orubea ez da nahitaez okupatu beharko eraikin itxi batekin.

– Arkitektura-hizkera eguneratua erabiltzea onartzen da.

– Garai bateko eraikinaren arkitektura-tipologiaren hizkera bera erabiltzea onartuko da, betiere, behar bezala frogatutako justifikazio historikoa oinarri hartuta.

– Kanpoko akabera emateko, bertoko arkitekturaren ageri diren materialak erabiliko dira, besteak beste: kareorea, harria, zura eta zeramika.

– Esanbidez debekatzen dira material distiratsuak eta, oro har, akabera metalikoak erabiltzea, jarraituak izan zein ez.

#### 4. Erabilerak:

Erabilera: eraikinak erabilera publikoa eta soziala du.

Erabilera zehaztua: informazio- eta interpretazio-zentroa.

#### 5. Kontserbatu beharreko elementuak:

a- Aurreko eraikinak utzitako harlanduzko hormen geldikinak.

#### 6. Kendu beharreko elementuak:

a- Orubean metatutako lan-hondakinak eta zarama.

b- Harlanduzko jatorrizko piezak, esaterako, sarrerako ezkaratza.

#### 7. Lehentasuna duten jarduketak:

a- Lan-hondakinak kentzea, ingurunea garbitzea eta zonaldea bisitarako egokitzea.

b- Elementu esanguratsuak kendu eta gordetzea eraikin berrian ipintzeko, esaterako, izkinetako harlanduak eta ate- nahiz leiho-buruak.

### **112. artikulua Bolalekua (P 1.08)**

#### 1. Esku hartzeko araubidea:

– Plan bereziko araubidea: 105. artikulua: baldintzatutako berreraikitzea eta sendotzea.

– Plan bereziko zona arkeologikoa, C babes mailakoa, 78. artikulua.

#### 2. Helburuak:

1-Ermualderekin lotutako ondare-elementu bat, sustrai historikoak dituena berreskuratzea aisialdirako eta kirolerako gizarte funtzioen bidez.

2-Santutegiko zelaiaren ingurumen-eszena berregokitzea eta beste elementu batzuekin lotzea, esaterako, baselizarekin, iturriarekin, zapaldekinekin edota apaizaren etxearekin.

#### 3. Berreraikitze baldintzak:

Mugimendu-eremuak garai bateko eraikinak okupatzen zuen azalera hartzen du, murriztapen hauekin:

– Bolumen berriak aurrekoaren bolumetria bera izango du gehienez.

Eraikin berriak jatorrizkoaren ezaugarri berberak izango ditu eta material mota berberak erabiliko dira berreraikuntzan.

Onartutako erabilerarako egokia den geldikin-sendotze soil bat egiteko okupatu ahalko da orubea.

#### 4. Erabilerak:

Erabilera: eraikinak erabilera publikoa eta soziala du.

Erabilera zehaztua: kirol-erabilera; bolalekua.

#### 5. Kontsarbatu beharreko elementuak: jatorrizko elementu guztiak eta bereziki:

a- Zapaldaren euste-hormak.

b- Garai bateko eraikinarekin lotutako arkeologia-material txikiak.

#### 6. Kendu beharreko elementuak:

a- Edukiontzia, zarama, betoizko paldoak eta, oro har, garai bateko eraikinekoak ez diren elementuak.

#### 7. Lehentasuna duten jarduketak:

a- Belar metak kentzea eta orubea garbitzea eta duintzea, edukiontzia hain agerian ez da-  
goen leku batera eramanda.

b- Eraikina berreraikitzea.

### **113. artikulua. San Antonio eta Santa Apolonia basiliza (P 2.01)**

#### 1. Esku hartzeko araubidea:

– Plan bereziko araubidea: 105. artikulua. Zaharberitze zientifikoa.

– Plan bereziko zona arkeologikoa, C babes mailakoa, 79. artikulua.

#### 2. Helburuak:

1-Eraikinari gaur egun dituen baldintzetan eustea.

2-Esparruaren izaera sakratua areagotzea ingurunea behar bezala tratatuta.

#### 3. Erabilerak:

Erabilera: eraikinak erabilera publikoa eta soziala du.

Erabilera zehaztua: erlijio-erabilera.

#### 4. Kontsarbatu beharreko elementuak: jatorrizko elementu guztiak eta bereziki:

a- Hormetako harlanduak.

b- Figura geometrikoak dituen errekarizko zorua.

c- Barruko iruditeria.

#### 5. Kendu beharreko elementuak:

a- Autoak aparkatzeko lekua.

#### 6. Lehentasuna duten jarduketak:

a- Aparkalekurik gabeko espazioa zehaztea.

b- Ermualdeko elementuak mantentzeko programa batean sartzea.

#### **114. artikulua Goikoetxe baserria (P 3.01)**

1. Esku hartzeko araubidea:

- Plan bereziko araubidea: 105. artikulua. Zaharberritze kontserbatzailea, A kategoria.
- Plan bereziko zona arkeologikoa, C babes mailakoa, 88. artikulua.
- Laudio Ibarreko hiri-antolamendurako plan orokorreko araubidea: Euskal Autonomia Erkidegoko 41. monumentu deklaratzeko proposatu da.

2. Helburuak:

- 1-Eraikina integralki birgaitzea.
- 2-Jatorrizko ondare-balioen galera eragozteak, ondasun higiezinena zein higigarriena.

3. Erabilerak:

- Erabilera: bertan dagoen baserriari lotutako bizitegi-erabilera.
- Erabilera onargarria: eraikinak erabilera publikoa eta soziala du.

4. Kontserbatu beharreko elementuak: jatorrizko elementu guztiak eta bereziki:

a- Zurezko barne-egitura, barne hartuta fatxadako, atariko nahiz eskaileretako egitura, hagak eta hegalak.

b- Leiho eta ateetako zurgintza-lanak eta horiei lotutako forja-lanak (iltzeak, sarrailak, burdineria eta abar)

c- Arkeologia-potentziala duen lurzoruko substratua (ikus 88. artikulua).

d- Zurezko egituradun fatxadako adreilu-plementeria txantiloitua.

e- Lotutako kanpo-eraikina (aurri egoeran).

f- Egiturarekin lotutako dolare zaharraren elementuak.

g- Ondare etnografikoko elementuak. Baserriarekin lotutako ondasunak: zurezko kutxatzarra, zurezko orga, tresneria, lanabesak eta abar.

h- Jatorrizko barne-banaketa: buztinezko keretak, kareozko keretak.

i- Fatxadako baoen jatorrizko banaketa.

5. Kendu edo eraberritu beharreko elementuak:

a- Jatorrizko eraikinekoak ez diren elementuak: erretanak, zorrotanak instalazioetako objektu osagarriak etab. integratzea.

6. Lehentasuna duten jarduketak:

a- Azterlan arkeologikoa.

b- Eraikinaren egoera-ikerketa integrala, barne hartuta egituraren analisisa.

b- Integralki birgaitzeko proiektua.

c- Aurri egoeran dagoen elementu atxikia birgaitzea.

d- Eraikina osoki sendotzea eta birgaitzea, ondare-galera eragozteko.

e- Eraikina bateragarri zaizkion erabilera edo funtzio berrietara egokitzea.

#### **115. artikulua. Mintegieta karobia (P 3.16)**

1. Esku hartzeko araubidea:

- Plan bereziko araubidea: zaharberritze zientifikoa.
  - Plan bereziko zona arkeologikoa, C babes mailakoa, 93. artikulua.
2. Helburuak:
- 1- Birgaitze integrala.
  - 2-Elementua Ermualdeko ondare-sarean sartzea.
3. Erabilerak:
- Erabilera: eraikinak erabilera publikoa eta soziala du.
4. Kontserbatu beharreko elementuak: jatorrizko elementu guztiak eta bereziki:
- a- Barruko aldean egon zen industria aurreko jardueraren aztarnak.
  - b- Kargatzeko atakaren gaineko kanpo-biltegia.
5. Kendu beharreko elementuak:
- a- Bat ere ez.
6. Lehentasuna duten jarduketak:
- a- Hormen egitura sendotzea.
  - b- Bisita kulturalak egiteko egokitzea.

#### **116. artikulua Basozainaren etxea (P 3.12)**

1. Esku hartzeko araubidea:
- Plan Bereziko araubidea: 105. artikulua. Zaharberritze kontserbatzailea. B babes maila.
2. Helburuak:
- 1-Eraikina integralki birgaitzea Ermualdeko parkearen funtzionamenduarekin lotutako erabilera berrietara egokitzeko (aparkaleku berria).
  - 2-Jabetza publikoko ondasun higiezin bat berrerabiltzea berria eraiki beharrik ez izateko.
3. Erabilerak:
- Erabilera: eraikinak erabilera publikoa eta soziala du.
  - Erabilera onargarria: erabilera publikoarekin lotutako bizitegi-erabilera.
4. Konstserbatu beharreko elementuak: jatorrizko eraikineko elementua eta bereziki.
- a- Izkinetako, baoetako eta atariko harlanduak.
5. Kendu beharreko elementuak:
- a- Sakabanatutako gorputz atxiki eraikiak: barbakoak, labeak, biltegiak etab.
6. Lehentasuna duten jarduketak:
- a- Eraikinaren egoeraren balorazio-txostena, egitura barne hartuta.
  - b- Premiazko zurkaizte- eta sendotze-lanak.
  - c-Birgaitze-lanak, erabilera berrietara egokitzeko.

#### **117. artikulua. Andikoa baserria (P 4.02)**

1. Esku hartzeko araubidea:
- Plan bereziko araubidea: A kategoriako zaharberritze kontserbatzailea.

- Plan bereziko zona arkeologikoa, D babes mailakoa, 95. artikulua.
- 2. Helburuak:
  - 1- Birgaitze integrala.
  - 2-Jatorrizko ondare-balioen galera eragozte, ondasun higiezinena zein higigarriena.
- 3. Erabilerak:
  - Erabilera: bertan dagoen baserriari lotutako bizitegi-erabilera.
  - Erabilera onargarria: eraikinak erabilera publikoa eta soziala du.
- 4. Kontserbatu beharreko elementuak: jatorrizko elementu guztiak eta bereziki:
  - a- Zurezko barne-egitura, eskailerak eta hegala barne.
  - b- Leiho eta ateetako zurgintza-lanak eta horiei lotutako forja-lanak (iltzeak, sarrailak, burdineria eta abar).
  - c- Arkeologia-potentziala duen lurzoruko substratua (ikusi 95. artikulua).
  - d- Kanpoko eraikin atxikia (egoera txarra).
  - e- Baserriarekin lotutako ondare etnografikoaren elementuak: tresneria, lanabesak, altzariak izan daitezkeenak etab.
  - f- Fatxadako baoen jatorrizko banaketa.
  - g-Fatxadaren jatorrizko estalki-materiala: kareorea.
- 5. Kendu eraberritu beharreko elementuak:
  - a- Jatorrizko eraikinekoak ez diren elementuak: erretenak, zorrotzenak instalazioetako objektu osagarriak, kale-argiak, kableak eta abar integratzea.
- 6. Lehentasuna duten jarduketak:
  - a- Azterlan arkeologikoa.
  - b- Eraikinaren egoera-ikerketa integrala, barne hartuta egituraren analisia.
  - b- Integralki birgaitzeko proiektua.
  - c- Atxikitako elementua birgaitzea.
  - d- Eraikina osoki sendotzea eta birgaitzea, ondare-galera eragozteko.
  - e- Eraikina bateragarri zaizkion erabilera edo funtzio berrietara egokitzea.

**118. artikulua Lusurbei baserria (P 5.01)**

- 1. Esku hartzeko araubidea:
  - Plan bereziko araubidea: zaharberritze kontserbatzailea. B kategoria.
  - Plan bereziko zona arkeologikoa, C babes mailakoa, 98. artikulua.
- 2. Helburuak:
  - 1- Birgaitze integrala.
  - 2-Jatorrizko ondare-balioen galera eragozte, ondasun higiezinena zein higigarriena.
- 3. Erabilerak:
  - Erabilera: bertan dagoen baserriari lotutako bizitegi-erabilera.
  - Erabilera onargarria: eraikinak erabilera publikoa eta soziala du.

4. Kontserbatu beharreko elementuak: jatorrizko elementu original guztiak eta bereziki:
  - a- Zurezko barne-egitura, eskailerak eta hegala barne.
  - b- Baserriarekin lotutako ondare etnografikoaren elementuak: tresneria, lanabesak, altzariak izan daitezkeenak eta abar.
  - c- Arkeologia-potentziala duen lurzoruko substratua (ikusi 88. artikulua).
  - d- Fatxadako baoen jatorrizko banaketa.
5. Kendu edo eraberritu beharreko elementuak:
  - a- Jatorrizko eraikinekoak ez diren elementuak: erretanak, zorrotanak instalazioetako objektu osagarriak, kale-argiak, kableak eta abar integratzea.
6. Lehentasuna duten jarduketak:
  - a- Azterlan arkeologikoa.
  - b- Eraikinaren egoera-ikerketa integrala, barne hartuta egituraren analisia.
  - c- Integralki birgaitzeko proiektua.
  - d- Egitura premiaz zurkaiztu eta sendotzea.
  - d- Eraikina osoki sendotzea eta birgaitzea, ondare-galera eragozteko.
  - e- Eraikina bateragarri zaizkion erabilera edo funtzio berrietara egokitzea.

#### **119. artikulua. Mahastizain etxea (P 5.09)**

1. Esku hartzeko araubidea:
  - Plan bereziko araubidea: 105. artikulua. Sendotze baldintzatua.
2. Helburuak:
  - 1-Elementua birgaitzea, aparkaleku-erabilera emateko aukerarekin.
  - 2-Bertako jatorrizko elementua berreskuratzea garai bateko mahastigintzaren azken adibidea den heinean.
3. Erabilerak:
  - Erabilera: eraikinak erabilera publikoa eta soziala du.
4. Kontserbatu beharreko elementuak: jatorrizko elementu guztiak eta bereziki:
  - a- Harlanduak dituzten karga-hormak.
  - b-Fatxadako baoen kokapena.
5. Kendu beharreko elementuak:
  - a- Jatorrizko eraikinekoak ez diren elementuen hondakinak: altzairuzko egitura osagarria.
6. Lehentasuna duten jarduketak:
  - a- Udal saneamendu-sarearekin lotzeko aukera aztertzea.
  - b- Eraikina birgaitzea.

#### **3.4 Elementu etnografikoen araubidea**

##### **3.4.1 Elementu etnografikoen araubide orokorra**

#### **120. artikulua. Ondare etnografikoaren definizioa**

Plan bereziaren eranskinak biltzen dituen IV. liburukian dago jasota babestutako eremuaren barruan ondare material edota kultural gisa izendatzea merezi duten elementuen inbentarioa.

Araudi hau aplikatzeari dagokionez, inbentarioan jasotako ondasun kulturalen multzoaren barruko "elementu etnografiko" dira baldintza hauek betetzen dituztenak:

– Eraikitako ondarearen zati izanda ere, arkitekturari dagokionez esanguratsu ez izatea. Askotan, "elementu txiki" deitzen zaie eta babes-suposamenduetatik kanpo geratzen dira.

– Elementu naturalekin lotuta egonda ere, elementu natural ez izatea. Hortaz, elementu horiek ez dira inbentarioan jasotzen eta Araudiak ez ditu berariaz babesten.

Toki eraikuntzak dira eta landa-ingurunearekin lotutako funtzio espezifikoak dituzte (erlijioa, eraikuntza, nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza, gizarte-lana).

Gutxienez, elementu hauek sartuko dira taldean:

Bolalekuak, kalbarioak eta erlijio-elementu txikiak, ikaztegiak, karobiak, kirikiño-hesiak, elur-zuloak, bidexkak eta bideak, borden eta definitu gabeko beste eraikinen arrastoak, horma eta zapaldak, kanalizazioak, iturriak, putzuak, ur-errotak eta presak, harrobiak eta, oro har, berezko balio material azpimarragarriak izan gabe ere, plan berezi honek babestu nahi dituen balio etnografikoei dagokienez interesgarri direnak.

Hurrengo artikuluetan, elementu horietarako berariazko babes-araubidea ezartzen da.

### **121. Artikulua Ondare etnografikoaren definizioa**

Oro har eta jarraian datozen artikuluetan zehaztutako arau espezifikoek aparte, ekintza hauek debekatzen dira:

– Inbentarioan jasotako elementuak edo horien zatiak suntsitzea.

– Elementua eraldatzen duten jarduerak, izaera zientifikoa edota kulturala dutenak eta ondasuna kontserbatzen laguntzen dutenak salbu.

– Lur-mugimenduak, luberritzeak eta elementuetan edota horien inguruko eremuetan ikusizko inpaktuak eragiten dituzten jarduerak, esaterako, azpiegiturak instalatzeko lanak, basozaintza-lanak eta izaera zientifikoa edo kontserbatzailea ez duten gainerako jarduerak guztiak.

### **122. Artikulua Ondare etnografikoaren gaineko jarduketak**

Elementu etnografikoei duten balioa aitortzeko ekintzak, plan honetan oinarritutakoak bezalakoak bultzatuko dira; birgaitze-proiektuak, azterlan zientifikoak eta dibulgazioa, esaterako.

Eraikuntza-elementu sakabanatuak direnean, esaterako, ikaztegien plataformen, karobien, kirikiño-hesien nahiz harlanduzko zapalden kasuan, jarduerak hauek onartuko dira:

– sastrakak kentzea eta garbitze-lanak.

– sakabanatutako materialak biltzea edo horiek ez galtzeko gordailutzea.

– material berririk (kareorea edo bestelako elementu exogenoak) erabili gabeko sendotze lanak.

– daukan balioa aitortzeko lanak, azterlan zientifikoak edo gizarte-dibulgazioko lanak egiteko.

Kasu guztietan, balioa aitortzeaz gain, elementuei beren horretan eusteko balio behar dute jarduketek eta, beraz, ez dira jarduketa horiek bideratuko pentsatu den jarduketak ez badu inplikatzen epe laburrean (gutxienez, 10 urteko epean) esku-hartze gehiago egin gabe narriatzea eragotziko duen sendotze eraginkorrik.

Inbentarioko fitxetan (eranskinak jasotzen dituen IV. eranskinean) azaltzen da xehetasunez zenbait elementuren kasuan onartzen den araubidea. Esku hartzeko kategoria berberak erabili dira ondare eraikiaren araubidea zehazteko. 105. artikuluan definitzen da zehazki ondare eraikia.

Elementu gehienetarako erabiltzen den kategoria “baldintzatutako sendotzea” da. Baldintzak izango dira elementu bakoitzak ezartzen dituenak eta elementu etnografikoen araubide orokorrean azaltzen direnak.

### **123. artikulua. Ondare etnografikoa berreraikitzea**

Kasu berezietan, berreraikitze-lanak onartuko dira ondareko elementuetan, esaterako, erai-kin txikietan, ikaztegietan, karobietan, elurzuloetan etab. Nolanahi ere, hasi aurretik, dagokion eraikuntza-proiektua aurkeztu beharko da dagokion udal organoan eta lan horien helburua izango da elementu etnografikoei duten balioa aitortzea eta balio hori dibulгатzea.

Egin beharreko lanen izaera kontuan hartuta, udalak aztertu egingo du egokia ote den udal lizentzia emateko baldintza gisa ezartzea Foru Aldundiko sail eskumendunek proiektuaren aldeko txostena eman behar izatea.

## II. kapitulua. Urbanizazioa

### 4 Urbanizazio-obretarako proiektuak idazteko irizpideak

#### 4.1 Irizpide orokorrak

### **124. artikulua. Irizpideak:**

Premisa hauek gordeko dituzte esparruko espazio urbanizatuak diseinatu, egokitu, kudeatu eta mantentzeari dagokienez aplikatu behar diren printzipioek:

- Eskatzen den egitaraua zorrozki betetzea.
- Koherentzia tokiko paisaiarekin eta morfologiarekin.
- Urbanizazioaren izaera kokapen zehatzerako egokia izatea.
- Urbanizatu nahi den esparrua espazialki egokitzea zona-banaketari edo zonen arteko hierarkiari dagokionez.
- Mantentze-lanak eraginkorrak izatea.
- Baliabideen ekonomia zaintzea.
- Herri-erabilerarako funtzionaltasuna izatea.

### **125. artikulua. Segurtasun pertzepzioa:**

Espazio publiko segurua lortzeko, urbanizazio-proiektuak definitzeari dagokionez, oinarriko printzipio hauek bete beharko dira:

1. Lekua egituratzen duten ibilbide nagusiak eta egoteko espazioak ikusiz kontrolatzen direla bermatu behar da.
  2. Esparrua zeharkatzean orientabide erraza izatea.
  3. Hondakin- edo albo-espaziorik ez egotea.
  4. Ingurunean zaintza naturala (erabiltzaileek edo auzokoez euren egindakoa) indartzea diseinuaren bidez.
  5. Argi eta garbi definitzea esparruaren mugak.
- #### 4.2 Espazio publikoa osatzen duten elementuak

### **126. artikulua. Mugikortasunerako espazio libreak**

Bi kategoria ezarri dira: ardatz egituratzaile nagusia osatzen duten bideak, Area libre egituratzailearen barruan kokatuta daudenak eta aipatu den areatik kanpo, baina horrekin zuzenean lotuta dauden espazio libreak, bigarren mailako sarea osatzen dutenak.

– Area libre egituratzaileen barruan, oinez, bizikletaz edota zaldiz ibiltzeko aukera egongo da eta motordun ibilgailuen baldintzapeko mugikortasunarekin bateratu ahalko da.

Area libre egituratzailearen barruko luzerako bide-ardatzak jasaten dituen kargak dimentsionatzeko eta kalkulatzeko, kontuan izan beharko da bide horien luzera osoan zehar noizbehinka ibilgailuak ibili ahalko direla.

– Area librearen barruan oinezkoak baino ezingo dira ibili.

#### **127. artikulua. Zoladurak:**

Bi mota bereizi dira: batetik iragazkorak (urari hartzen duten azaleraren azpira iragazten uzten diotenak) eta iragazgaitzak (ez diote urari iragazten uzten edo iragaztea zailtzen dute eta ur emaria hustubide zehatzetara bideratzen dute).

Urbanizatu beharreko zona guztietan, lehentasuna emango zaie zoladura iragazkorrei, baina salbuespen hauek onartzen dira:

– Area libre egituratzaile gisa definitutako espazioetako zoladuren azaleraren ehuneko 50 izan ahalko dira iragazgaitzak gehienez ere, betiere, ura husteko duten diseinuak ez badu eragiten jariatzeen ondoriozko higadurarik edo inpaktu negatiborik ingurune naturalean.

– Gainerako esparru, area libre eta aparkalekuetan zoladura iragazkorak eta iragazgaitzak uztartu beharko dira, betiere, zoladura iragazgaitzek ez badute gaingaitzen zoladura guztien ehuneko 30a.

#### **128. artikulua. Altzariak eta seinaleak:**

Sistema integral osatua diseinatuko da, barne hartuta hala altzariak nola seinaleak eta esparruko laguntza-ekipamendua; sistema horren bidez bermatuko dira multzoaren batasuna eta koherentzia, arinkeriaz egindako jarduketak eta koherentziarik gabekoak ekiditeko. Hortaz, plan bereziaren esparru osoa hartuko duen seinale-proiektu orokor bat planteatu beharko da, hala bertako ondarearen edota naturaren balioaren berri emateko, nola parkean eta inguruan zeharreko orientazioa errazteko.

Sistemari jarraituta erabakitzen diren formek eta materialek koherente izan beharko dute gainerako urbanizazio-elementuekiko, esaterako, zoladurarekiko eta akabera materialekiko.

Hauek izango dira jarraitu beharreko diseinu-irizpideak:

– Ingurumena babesteko eta energia-eraginkortasuna bultzatzeko arauekin bat egitea.

– Erabilitako materialak adierazkortasun zintzoa izan behar du, baliabideen ekonomia eta iraunkortasuna zaindu behar dira eta mantentze-lanek errazak izan behar dute.

– Ingurunearekiko harmonia hausten duten testura leunegiak eta akabera distiratsuegiak saihestuko dira.

– Zura erabiltzen bada, ez da espezie tropikalik erabiliko. Lehentasuna emango zaie basozaintza-erabilera arduratsua bermatzen duten PEFC edo FSC zigiluak dituzten zurei.

– Zuretik eratorritako produktuekin fabrikatutako materialak erabiltzea bultzatuko da.

– Akabera naturalak lehenetsiko dira, hala zuraren kasuan nola gainerakoetan.

– Zurari nahiz gainerako materialei dagokienez, ingurunearekin integratzeko forma hobetsitak hartuko da azaleraren zahartze naturala.

#### **129. artikulua. Itxiturak eta lurzatietako hesiak:**

Espezie autoktonoetako zuhaixka biziekin, zurezko hesiekin edo harrizko hormekin egingo dira, eremuan eremuko diseinu tradizionalaren arabera.

Alanbrezko itxiturak ere onartuko dira; metalezko hari edo sareta leunekin edo horien konbinazioekin egingo dira, zurezko taketen gainean ipinita, kasu hauetan:

- Plan berezian aurreikusitako larreetan bazkatzen diren abereak kontrolatzeko.
- Abereak eta pertsonak babes bereziko kategoriaren barruan ezarri diren erreserba integratara sartzea eragozteko.
- Abereak uberkak babesteko eremuetara sartzea eragotzi eta, horrela, hartuneak kutsatzea eragozteko.

Landaredia birsortzeko zonetan izan ezik, debekatuta dago “ehiza-sareak” erabiltzea, animalia basatien banaketari eragin diezaioketelako.

### **130. artikulua. Aparkatzeko eremuak:**

Aparkatzeko eremuen kokapena dokumentazio grafikoan definitu da, zehazkiago, bidezaintza-planoetan (I.04 eta O.03) eta multzo tradizionalak antolatzeako planoetan (O.04 eta O.06).

Aparkatzeko eremuak paisaian integratu beharko dira eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Kapitulu honetan adierazitako zoladura-baldintzak bete beharko dituzte.
- Aparkatzeko era zeharria eta paraleloa hobetsiko dira ilarakoaren gainetik.
- Gehienez ere, 10 ibilgailu multzokatu ahalko dira jarraian zeharria edo paraleloan aparkatuta eta aparkatzeko plaza bat utzi beharko da multzo bat bestetik banatzeko tarte gisa.
- Gehienez ere, 5 ibilgailu multzokatu ahalko dira ilaran aparkatuta eta aparkatzeko plaza bat utzi beharko da multzo bat bestetik banatzeko tarte gisa.
- Aparkalekuetan itzal-eremuak egon daitezzen, zuhaitzak landatuko dira, ez da markesina artifizialik ipiniko.
- Ezin izango da aparkatutako ibilgailuen azalera osoa ikusi bidearen ezein puntutik, sarbidedetik edo area libre egituratzailetik.
- Lur-ekarpenak onartuko dira, baina betiere aparkatutako ibilgailuak ezkutatzeko ezpondak eratzeko badira.

### **131. artikulua Piknikguneak:**

Piknikgune edo askalategiak area librearen mugimendu-eremuaren barruan baino ezingo dira kokatu eta, beraz, debekatuta egongo dira gainerako eremuetan.

Horien diseinua kapitulu honetan azaldutako irizpideen arabera egingo da.

### **132. artikulua. Umeentzako jolas-eremuak:**

Umeentzako jolas-eremuak area librearen mugimendu-eremuaren barruan baino ezingo dira kokatu eta, beraz, debekatuta egongo dira gainerako eremuetan.

Horien diseinua kapitulu honetan azaldutako irizpideen arabera egingo da eta, betiere, sektoreko arauekin bat.

### **133. artikulua. Argiteria:**

Plan bereziaren esparrurako argiteria egokitzen jotzen da erreproduktio kromatiko ona, argi naturalaren antzekoa eskaintzen duena. Argiteria instalatzeko baldintza hauek beteko dira:

- Argi gehiegi erabiltzearen ondoriozko itsutzeak eta argi-kutsadura ekidingo dira esparru osoan.
- Debekatuta dago airetiko kableak ipintzea.

- Debehatuta dago presio altuko sodio-lurrunekeo deskarga-lanparak erabiltzea.
- Area libre egituratzailean argiteria instalatzea onartzen da. Area horretan, gehienez ere 4 metro izango dituzten paldoetan jarri ahalko dira argiak.
- Area librean balizatze- eta kokatze-argi ahulak baino ez dira onartzen, paldorik gabe.
- Elementu historikoen eta ondare eraikiaren argiteria apaingarria instalatzea onartuko da salbuespen kasuetan, betiere, argi horiek inguruan integratuta geratzen badira eta inguruak argiaren ondoriozko itsutzeak eragozten badira. Argiteria instalatzeko behar diren azpiegiturek ez dute inolaz ere urratuko espazio naturaletako urbanizazio- eta babes-baldintzak.

#### **134. artikulua. Instalazioetako azpiegiturak:**

Zerbitzu orokorren sareek (estolderia, ura, argindarra, argiteria publikoa, telefonia eta abar) lurrazpitik joan beharko dute eta, beraz, gaur egungoak ordeztu egingo dira plan honetako zehaztapenak betetzen dituzten beste batzuekin.

Bigarren mailako sareen adarkatzeak izan ezik, sare orokor guztiak area libre egituratzailearen barrutik eraman beharko dira.

Adarkatzeen ibilbideak arrazionalizazio-prozesu bat igaro beharko du, adarkatze-elementuek ahalik eta ikusizko eragin txikiena izan dezaten. Horretarako, sistema integratuak erabiliko dira, esaterako, betetzeko kutxatila-estalkiak, integratutako horma-hobiak, paramentuetan sartutako hoditeria eta abar.

Instalazioen azpiegituren laguntza-elementuak (babesteko kutxak, mozte-kutxak, kontadore-moduluak, doitze- eta neurtze-armairuak, kanpoko argi-monolitoak, adarkatzeak eta abar) diseinatze eta kokatzeko prozesuan, araudi honetan ezarritako baldintzen arabera tratatuko da ondarea eta, enpresen interesen gainetik, lehentasuna emango zaio beti inbentarioan jasotako elementuen integritatearen errespetuari. Sektoreko arauetan onartzen diren salbuespenetan oinarrituko da jarduketa-jarraibidea (balio berezia duten monumentu edota bestelako elementuen kasuetarako). Araudi honetako 61. artikuluan (sektoreko araudia betetzea izenekoan) jaso dira salbuespen horiek.

### III. kapitulua. Ikerketa

#### 5 Ikerketa-prozesua

##### 5.1 Baldintza orokorrak

#### **135. artikulua. Ikerketa-prozesua:**

Plan bereziaren bidez, ikerketa-prozesu zientifikoa bultzatu nahi da Ermualden, denboran mailakatuta bideratzeko. Hortaz, prozesuaren faseen lehentasunak ezarri beharko dira eta etorkizunean prozesua berrikusi ahalko da, beharrezko eguneratzeak sartzeko.

Plan Bereziaren ikerketa-prozesu zientifikoa osatzen dute denboran zehar eta elkarrekin lotuta egin diren azterlan guztiak (botanikoak, faunistikoak, historikoak, arkeologikoak, etnografikoak eta abar), baldin eta azterlan horien xedea bada Ermualdez gaur egun dugun ezagutzan sakontzea eta, horrela, Planean bertan bultzatutako ekintzei koherentzia ematea.

Landa-ingurunearen eta ondare kulturalaren babes-, kontserbazio- eta dibulgazio-helburuak osatu eta taxutu egiten ditu ikerketa-prozesuak eta, ondorioz, planean jasotako neurrien artean kudeatu beharreko beste bat da. Memoria, araudia eta kudeaketa jorratzen duten dokumentuetan jasotako ikerketa programaren bidez antolatzen da ikerketa-prozesua.

#### **136. artikulua. Ikerketa-prozesuaren kudeaketa:**

Plan bereziaren indarraldiaren iraupen berbera izango du ikerketa-prozesuak eta berariazko kudeaketa-organo bat izango du ezarritako helburuak betetzen direla zaintzeko.

Organo hori ez balego, plan bereziaren sustatzaile den heinean, Laudioko udalak abiarazi beharko du prozesua eta, beraz, eskumen hauek bere egin beharko ditu:

- Ikerketa zientifikora bideratzeko baliabideak bildu eta kudeatzea (Ikusi III dokumentua, “kudeaketa”).
- Ikerketa-programa prestatzea eta lehentasunak ezartzea (Ikusi I. dokumentua, “memoria”).
- Ikerketen edukia ikuskatu eta kontrolatzea. (141., 142. eta 143. artikulua).
- Emaitzak eragile desberdinei jakinaraztea (139. artikulua).
- Emaitzak biltegiratu eta jagotea (140. artikulua).

### 137. artikulua. Ikerketa-programa:

Plan bereziak “memoria” izeneko I. liburukian dakar ezarrita plan bera taxutzean antzemandako beharrei erantzuteko ikerketa-programa bat.

Ikerketa mota zehatzei dagokienez, orientatzeko baino ez da programaren edukia, baina loteslea da ezarrirako ezagutza-helburuak erdiesteari dagokionez. Bestela esanda: planteatutako ikerketa mota batzuk mota bakarrean batu ahalko ditu (ikerketa historiko osoen kasua) eta ikerketa hainbat lan desberdinetan zehaztu ahalko du (fauna mota zehatzen ikerketak), betiere, planean antzemandako beharrek planteatutako helburuei eusten bazaie.

Bi kategoria handi ezarri dira; ingurumen-ikerketak eta ikerketa historikoak. Horien barruan ere, zenbait azpikategoria ezarri dira:

Organo kudeatzaileak ikerketa-programa berrikusi ahalko du eta tokian tokiko beharretara egokitu ahalko du Laudioko Udalak etorkizunean onar ditzakeen berrikuspenen bidez.

### 138. artikulua. Ikerketen programaren etapa-plana

Organo kudeatzaileak Ermualderako batzorde zientifiko gisa jokatu du ikerketa-programaren etapa-plan bat ezartzeko. Plan berezian ezarrirako eta III. dokumentuan (“kudeaketa”) jasotako lehenetasun-hurrenkera errespetatu beharko du etapa-plan horrek.

Plan bereziak hiru kategoria ezartzen ditu, lehentasun gehien duenetik gutxien duenera: premiazkoak, beharrezkoak eta komenigarriak. Horrela, proposatutako azterlanak denboran antolatu ahalko dira zerrenda honen arabera:

PREMIAZKOA		2. BEHARREZKOA		3. KOMENIGARRIA	
II.01	Ingurumen –ikerketa diagnostikoa	I.01	Ikerketa-hidrologikoa	I.03	Ikerketa espeleologikoa
		I.02	Ikerketa edafologikoa	II.02	Floraren ikerketa orokorra
		II.03	Artadiaren birsorkuntzaren ikerketa	II.04	Ikerketa mikologikoak
		II.06	Aurrerakuntza periodikoaren ikerketa	II.05	Eboluzio historikoaren ikerketa (ingurumena)
		II.07	Faunaren ikerketa orokorra	II.08	Leizeetako faunaren ikerketa
				II.09	Ehiza-baliabideen ikerketa
III.03	Eremuaren ikerketa arkeologikoak (kasuan kasukoak) (*)	III.01	Santutegiaren ikerketa topografikoa	III.02	Santutegiaren ikerketa arkeologikoa
		III.04	Santugiaren ikerketa historikoa	III.03	Eremuaren ikerketa arkeologikoak

PREMIAZKOA		2. BEHARREZKOA		3. KOMENIGARRIA	
		III.05	Eremuaren ikerketa historikoa	III.08	Ikerketa toponimikoa
		III.06	Elementu historikoen ikerketa	III.07	Ikerketa etnografikoa

(\*) Ondarearen elementuen gaineko jarduketan edo ustekabeko aurkikuntzen ondorioz, beharrezkoa gerta daiteke premiazko izaeradun esku-hartze arkeologikoak egitea.

### 139. artikulua. Emaitzen berri ematea

Kudeaketa-organoaren eskumena da eremuan bideratu diren lan zientifikoei behar bezalako hedapena ematea, ahalegin kolektiboari etekina ateratzeko eta emaitzak optimizatzeko asmoz.

Dokumentazio guztia behar bezala hedatzen dela bermatzeko, kudeaketa-organoak eskuragarri dagoen informazioaren inbentario eguneratua sortuko du.

### 140. artikulua. Informazioa biltegiatu eta jagotea

Plan berezia martxan jartzen denetik sortutako jarduera zientifikotik eratorritako dokumentuen aleak sektoreetako kontrol erakundeei (Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiari, profesionalen elkargoei, museoei, Unibertsitateari eta abarrei) emateko derrigortasuna alde batera utzita, kudeaketa-organoak bermatuko du Ermualdeko ikerketa-eremuari dagokion dokumentu guztiak behar bezala jagoten eta kontrolatzen direla eta dokumentazioa ahal bezain erabilgarri izateko neurriak hartu beharko ditu.

Atal honetan aipatutako ikerketa zientifikoen dokumentuez (ikerketa historikoak, botanikoak, faunistikoak eta abar) eta horiei lotutako dibulgazio-argitalpenez gain (aldizkariak, liburuak, hemerrotekan erregistratzea eta abar), lotutako egikaritze-proiektuen dokumentazioa ere jaso eta bateratu beharko da, esaterako: baso-baliabideak kudeatzeko plana, urbanizazio-proiektuak, eraikuntza-proiektuak, proiektu kulturalak eta abar.

#### 5.2 Baldintza partikularrak

### 141. artikulua. Ikerketa historikoen gutxieneko edukia (III.04, III.05 eta III.06)

Ikerketa historikoen ikergaiaren izaerarekiko (santutegi osoa, populatutako gune historikoa, elementu etnografiko zehatza eta abar) proportzionalak izan beharko dute eta, gutxienez, atal hauek izan beharko dituzte:

1- "Gaiaren egoeraren" azterketa; gaiari buruz orain arte ezagutzen den guzti-guztia biltzea, alde batera utzita kalitate zientifikoa.

Dagoen bibliografia (liburuak, artikulua, doktoretza-tesiak...) eta dokumentazio osagarria bilduko da, adibidez, jardunaldi, konferentzia eta dokumentalekin erlazionatutakoak, egunkariko albisteak, webguneak, elkarrizketak eta abar.

2 – Kasuaren beharrak definitzea: ikergaiaren mugak eta ikerketaren helburuak ezarriko dira. Ulertu nahi diren alderdi lausoak adieraziko dira, argitu eta zentzu historikoa emateko asmoz.

Plan bereziaren area osoaren edo santutegiko ingurune osoaren ikerketaren kasuan, mapan mugarriztatutako lurra da, lur horren gainean eragina duten giza jardueren multzo heterogeneo bati lotuta. Hortaz, elkarrekin erlazionatu beharreko pieza heterogeneoek osatutako ikergaia izango da.

3 – Ikerketa iturriak definitzea: Hipotesien arabera egingo da lan; kasu zehatzerako lehenetsuzkotzat jotzen diren informazio iturriak aurkituko dira datuak edukitzeko aukera gehien duten kokapenak berrikusita.

Halaber, iturri horiek ikertzeko metodo bat ezarriko da: orokorrenetik zehatzeneraino egingo da lan. Iturri bakoitzean hainbat datu bil daitezke eta gero datu-base batean jasota utzi ahalko dira.

4 – Iturrietako zein bertatik bertarako datuak konbinatzearen bidezko ikerketa. Baliteke bertatik bertarako datu horiek agerikoak izatea dagoeneko edo ikerketa-prozesu paralelo baten araberrakoak izatea (arkeologikoa, arkitektonikoa, etnografikoa, toponimikoa eta abar).

5-Konbinazio horren ondorio gisa, emaitzak eskainiko dira, behin betikoak ala behin behinakoak. Behin behinakoak badira, hipotesi onargarriak planteatuko dira ikertutako kasuaren berreraikuntza historikoa egin ahal izateko.

#### **142. artikulua. Santutegiaren ikerketa topografikoaren gutxieneko edukia (III.01)**

Ermuko Andra Mariren santutegiaren zonaldean arkeologiara bideratutako ikerketa topografikoa egingo da metodo arkeologikoekin eta edozein indusketaren aurretik. Horrela, luraren irregulartasun eta anomalia artifizialak antzeman ahalko dira, balizko zapaldak, galtzadak, ubideak, eraikinak eta abarrak bereizteko. Ikerketa osatzeko, oraindik definitu behar den prozesu arkeologikoa aplikatuko da.

#### **143. artikulua. Ikerketa arkeologikoen gutxieneko edukia (III.02)**

Alde batera utzita araudi honetan arkeologiari erreferentzia egiten dioten atalak, Euskal kultura ondareari buruzko 7/1990 Legean oinarritutakoak betetzeko derrigorrezkotasuna (I. kapitulua, 3.2: "Ondare arkeologikoaren araubidea"), santutegiaren inguruan bideratu beharreko eta plan bereziaren ikerketa-programan definitutako ikerketa arkeologikoen prozedura hau bete beharko dute gutxienez:

1-Laginketa-plana: ikerketa topografikoaren bidez antzemandako anomaliak oinarri hartuta eta ikerketa historikoetatik lortutako datuekin batera, lagin arkeologiko txikiak hartzeko aukera planteatuko da epe luzerako plan arkeologikoa orientatzeko ikuspegi orokorra lortu ahal izateko.

2-Zundatze-plana: laginketen emaitzen arabera, tokiko balio arkeologikoetan sakondu egingo da, laginen bidez nabarmendu diren tokietan zundatze arkeologikoak eginda.

3-Plan arkeologikoa: zundatzeen emaitzen arabera, esku-hartze arkeologikorako plan bat prestatu ahalko da indusketa arkeologiko tradizionalak egin behar ote diren zehazteko, betiere, kontuan izanda horren kostua, aurreikusten diren emaitzak, indusitakoa finkatzeko aukera errealak, multzoan duen garrantzi estrategikoa eta abar.